

Гарганца

Гордин



Гарганца

GARRATZ eta GORDIN

AUGUSTIN ZUBIKARAI

Legerako Gordetza (Depósito Legal) BI 199-86

ISBN. 84-398.6016-6

Argitaldaria: Gaubeka Irarkola - Gernika

Marrazkiak: J. M. Zubikarai.

# **GARRATZ eta GORDIN**

Elebarria (Nobela)

Gure egunetan

*Augustin Zubikarai*

1986



## *Oarra*

*Azken urteetan, jobide barri batzuk ezagutu doguz gure kaleetan.*

*Batzuntzat gogorrak, baiña bearrekoak; besteentzat okerrak; askorentzat oraiñarteko oiturei gainezkoak.*

*Bide oneik erri-bizitzako utsune larri bat erakusten dabe, azken baten.*

*Eguzki bideak izan leikez, edo ta itargi bideak.*

*Batzutan asarre agerpen dira; bestetan itsukerien baten ondoren, edo ta inoiz indarkeriaren ate.*

*A laz eta ezin ukatu egoera baten salakuntza diranik.*

*Gaur, ez dogu ukatuko, **garratz eta gordin** dira.*

*Inguru orretan sortu da eleberri au.*

*Ez bedi inok txarto uste.*

*Emengo gogaí eta agerbide batzuk, esaera soillak dira, eguneroko agerraldiak, askotan suari garra kenduta.*

*Edozetara be agirian dabillen jobide bateko urratsak dira, gaurko bizitzako ondorenak.*

*Eta idazleak, ames bidetan iturri billa ibil barik, erri-bidetan be eukiten doguz noiz-nai idatzi-ala paperetara eroateko ikuspegiak.*

**GARRATZ ETA GORDIN**, ez da kritika bat. Ez da ikerlan bat be. Gure kaletan artutako ariekin batutako mataza baiño ez da.



## Urteak aurrera

Gero ta sariago alkar ikusten eben.

Andoni ta Susane etxeko tellatupe ta atadian ezik, beste edonun alkartzen ziran.

Kale ta kantoietako bide-kurutze, mailladi, zerka, karkaba, egal eta aterpetan,

plazactako dantza eta erromerietan eta inguru eta auzoetako jaietan,

ondartzetako galdatan eta itxas-ertzean, aitzetako zulo, abaune ta aitzartetan,

kirol-jaietan, erri-batzarretan (asanbladetan) eta erri-agerpenetan (manifestapenetan).

Eskutuan batzutan, agirian bestetan.

Erromeririk txikienak egun izentatuak zituen.

Gabean loturak, nai ta aldendu ezin logurak.

Bederatzietan neguan eta amarretan udaldian, Susane'ren etxea itxi egiten zan kanpo eta barrukoentzat, gaixoren baten laguntza premiñetan ezik.

Zeatz eta luzaro zainduten zan oitura au.

Andoni'ren aita, bere denporetan, liberaletakoa izan zan. Eta oituraz edo bertan bera, orretan jarraitzen eban.

Ama ilda eukan.

Aita ez zan zabala, naasia, idegia, kanpo zalea. Bai ardura bakua, kezka gitxikua.

Ba eukazan bere mugak. Ez ainbeste semearí buruz. Euki zituan lenengotan bere zitaltasunak, baiña maite eban eta ezin asko ukatu. Oiturentzat libre samarra zan. Ez orraitik ibillera eta jokabide ta pentsabide batzutan. Ba eukazan etxeko oitura zar batzuk, nai ta semea muturka ikusi, lagaten ez zituanak. Betiko oiturak, zarrekandik etorzanak. Bat, esate baterako, etxeko erro-



sarioa. Andreari, il aurretxoan agindu eutsan, biak barriro alkarregaz batu arte, orretan jarraituko ebala.

Eta kalean liberal-fama eukiarren, orretan berean ebillan, setatsu, afaldu ondorengo eguneroko jardunean.

Susane'ren gurasuak, batez be aita, karlista ondorengo en arrasto fiñak ziran. Euren alderdiaren barruan zintzo, jator, kem entsu eta leialetakuak. Itsu-itsuan eurenari eutsiak. Askontzako itxiegiak, lotuegiak. Pentsabideetan estu eta ertsiegiak.

Gazte askok ez zituen ezagutzen. Ba ekien gitxi gorabera zelako familia ziran. Baiña euretatik gazteetara bitarte andiegi egoan. Eta ezagutzen zituezan banakentzako, atzeratuegi ziran.

Ondasunez, famili biak bardintsu, edo bear ba da, aberats agerpen geiago Susane'ren gurasuak.

Biak len ondo egonak, euren lanari lotuak, baiña aberats usaiñeko izanak.

Origaitik, lendik ezagutzen zituenentzako, lengo ustean jarraitzen eben. Nai eta euren diruak eta ondasunak sartuta eukezan paperak, batzuk beintzat, lurra jota egon.

Ondasun, lur eta erriko etxe bizitza batzuen jaube ziran. Gurasoekandik etorkiezan ondasunak. Lendik. Origaitik lengo errenten mende egozan, eta urtero erdi asarre ibiltzen ziran errenteruekin, eurak be bizi al izateko buruauste eta gastu asko eukezala-ta.

Alde batekoen etxean, Susane'ren gurasoetan, ezin ikusi eta irunsi eben Andoni.

Urtenegi zala, aurreratuegi, ausartegi.

Lengo guztiari lepoa emonda ebillala, giro barrietako agerpen guztietan sartuta. Eta ez edozelan, aurrenetako baiño.

Orrek berotzen zitun eurak. Batez be ba egozalako errian orrelako autuekin noz-nai joaten jakezan auzoak edo senideak.

Andoni'ren etxean ez euken ezer, agirian eta esanetan beintzat. Susane'ren aurka.

Ba ekien gurasoak, egunero santuen azurei musuka iñarduen fede onekoak zirala, baiña oituraz, azaletik, bear ba da

itxurak zaintzearren, eta ez siniste osoz.

Gaiñera, oraindik agintzen egozanak, euren pentsabide bar-diñeko ez ba ziran be, jokabide sakonetan euren mesedeko ziran. Eta igarten ziran gaztien eskabideak zela-ala eutsita eukiteko, komeni zan goikoak, danak, itxura baten agertzea, edo ta alkarri era bateko arnasa aizetzen ibiltzea.

Zarrak orrelakoak zirala jakiñarren, gazteek ez eben ikusten curen etorkizuna besterik. Eta ezkontzea pentsatu eben.

Ogetak urtena eukezan.

Zazpi mutillak. Urte bete geiago, zortzi, neskak.

Eragozpena ipini eutsen etxean neskari. Asieratik ekian ori, alkarregaz ebiltzan zurru-murrua zabaldu zanetik. Susane'ren amak aitaren aitzakia ipinten eban. «Lengo gizaldian» bizi zan aitaren aitzakia. Ala esaten eban berak.

Aitak bizitzan iraunkor izan bear dala, bere gurasoen gurasoek be Jainkoaren alde jokatu eta gudatu ebela, eta bera, orainlako odol bagako giro baten, ez eioala arein odolik salduten ez arein pentsakera zindorik salatuten.

Berak ondorengo ikusten ebala. Lengo zarra tatarrez eroan eta zapalduten eban ondoren negargarria. Eta berak, bere baimenez, ezin eikeala onartu Jainkoaren izena ezagutuarren, bizitzan kate luze bateko pekatuan iñarduen gizonekin.

Berak besterik ez ebala entzuten liberalkeria pekatu zala, eta ori Aita Santu eta abade «modernista»ren batek ezik, beste guztiek argi esandar Ori pulpilotik, liburutatik eta eguneroko garbi guztietatik zabaldua egoala ta jakinda bere or jarraitzen ebana ez zala kristiñau zintzoa, basamortuko pizti baiño. Eta berak, bere berea zan alaba eta bere soiña aiña maite eban alaba, ezin eikeala, jakiñean, liberalkeria ugaritzeko bizibide batera baimendu.

Neskak, Susane'k, kontzientziko buruausteak eukazan.

Gurasoek ten egiten eutsen; ikasi zitun siniskera batzuk ito egiten eban; gaixotuta be egon zan, burua artuta, osagilleen eskuetan, bere aulerian.

Dana bertan bera laga barik, azken alegin bat eskatuten eutsan bere mutillari.

Bere aitagaz aurrez aurre egoteko aukera bat eskatzeko. Eta bera bakarrik joateko, guraso edo lekuko barik.

Lenengoz, makur joateko, arrokeri barik, semetako baten itxuran.

Al eban bestean eta gertaten zanetan, bai-bai esateko, gogo onez edo txarrez, baiña apaltasunez.

Menpetasunez erantzuteko; eta ezezkoa zala pentsaten ebanean, ezpaian lez agertuteko, zalantzan lez.

Eta batez bere, karlista ta liberalen auturik ataraten ba eban, aurka egiten ez asteko, al ebanik jaramon gitxien egiteko, ordu-rartekuak be naiku zirala-ta.

Andoni'k ez eban olakorik aintzat be artu nai.

Erantzun bat eukan: Bera ez zala gurasoekin ezkondu bear. Berak ez ebala nai areikin loturarik.

Gero etozanak biderik zuritzen ba eben, or konpon, baiña bitartean, oraingo giro onetan, alkarri agurra ta makurra, baiña bakoitzak berea ezkurra.

Andoni ukatu egiten zan.

Egunetan ibili ziran orretan.

Neska, azalez eta itxuraz, bestetan baiño muturbaltz eta mukerrago agertzen zan.

Alako baten zuritu zan Andoni.

Susane'k, nai ta bildurrez amaren aolkuz, amaren bitartez aitari ikustaldi bat egiteko aukera eskatu eutsan.

Amak, jakin ebanean, zetarako, zegaitik, ezetz esateko ez egoala alkar ikusi bearrik, neska txotxiñak eukazala erruak lenengotik aidean bialdu ez ebalako...

Dana dala, azpiko lan batzuen ondoren, ikusteko eguna izentatu eutsen ta illunduta gero, iñok ikusi ta berbalekurik sortu barik.

Susane'k ez eban etxean egon nai izan, aita gora-goraka asiko zalakoan, eta bera be nastean sartuko ete eban bildur eta arduraz.

Lagun baten etxera joan eta an geratu zan.

Mutilla sartu zan.

Bandera, trabuko eta karlistadako ainbat oroitza eskegita egozan ormetan. Ainbat eskapulario euren artean.

Nire kaiola atsegin?

Nik txoriak maite dodaz, baiña kaiola barik.

Soldadutzan infanteriko izan al ziñan?

Aurrez-aurrekoa, asaltokua.

Sinisteko da. Ez dozu asko esan bearrik.

Zu, Pepito'ren seme zara?

-Jose Zugaza'rena.

Liberala orain bere.

Ez dakit.

Gure areriva.

Ni semea naz. Ez bera.

Bardin da.

Arerio izan ba nitz ez nenguan emen.

Zer da nai dozuna?

Berba egin.

Zetarako?

-Alaba eskatzeko.

-Atzetik tiro bat emotea da ori.

Ni aurrelaria naz, ez atzelaria. Ta ez dakit zegaitik ori tiro bat emotea dan.

-Nire sinismenari uko egitea litzake. Eta ikusten dozuzan bandera santu oneik laidotzea.

Ezkontzea politika al da?

Lotuera.

Bair Lotuera. Familiak lotzea. Eta nik, pekatua dala jakinda, liberalkeriari eusten jarraitzen daben bategaz lotzen ezin neike, ezetara be ezin, laga.

Entzun. Susana eta ni, ez ba'dakizu be, ez gara ez karlista eta ez liberal.

-Ni bizi naizen artean, liberal ez da izango, ori ziurretik, baiña karlista izan ez?

Ez jauna, ez.

Ez zaitzeze asarratu politikak zoratuta. Ordurarte ixil egonarren, ori esaten ausartu zan ama.

Mesedez, ixilik.

Ixilik egonda ez da bitartekotasunik lortzen. Ez da konpketarik egiten.

Lenago be bitartekoek izorratu ginduezan. Bitartekorik sartu ez ba'litz uste dozu guk, Karlos'en aldeko sentiduten giñanok, ez gendula irabaziko gerrarik?

-Ez dakit. Kontu zarregiak dira oneik. Guretzat beintzat.

Eta orain be bitartekoak? Zure bitartekotasuna ba dakit nik zetarakoa dan: alaba saltzeko.

Ez egizu orrelakorik pentsatu.

Pentsatu ez, ikusi egiten dot ori.

auna, ni ez nator zure alaba saltzeko eskatzen. Ez neuke orretarako dirurik.

Ba dakit nik zuk zer esan nai dozun.

Alkar ezagutzen dogur Eta zetarako ukatu? Maite gara. bera eta ni, biok.

Maitatzen dozuela alkar?

Ala ez ba litz, ez negoke emen.

Ba ni ementxe nago, alaba zuk aiña maitatzen, baiña bera zainduteko gertu.

Alabari bere eskubiderik ez dautsazu ukatuko.

Zelako eskubide?

Edozein gizakiren eskubidea. Gain gaiñetik ezagutu bear dana: Maitasuna billatu ta ugaritzeko eskubidea.

Orretan ez. Baiña bide guztiak ez dabe eroaten Erroma'ra. Ba dira beste batzuk.

Zelako bideak?

Gurasoen kateari jarraituz lortu leikezanak.

-Etxekoak egindako ezkontza.

-Egin ez da be, on ikusia.

-Eta ni ez nazu aintzat artzen, ni ez nazu begiko, ni ez nazu, bein esanda, zure alabaren duin.

Orain ez.

-Zegaitik ez?

Esan dautsut.

Politikagaitik?

Politikak bere bereari eusten jakin bear dau. Gizakien artean kontuan euki bearreko da.

-Beraz karlistakeria il da gero eta liberalkeria ondatuta gero be, guk bide onetatik ibili bear dogu. Nai ta ez ortik sartuta aurrera jo? Eta erria izorratzen jarraitu?

Guk ez dogu iñor izorratu. Jainkoaren legeari jarraitzen diardugu, eta ez bestetan.

-Jainkoaren zein aginduetan?

Danetan, amarretan.

Iñor ez iltzea eta iñor ez izorratzea, eta besteak beste, alboan lagata?

Zer dakizue zuek gazteok?

Ikasi eta ikusi egin dogur Eleizako kanpaiak dana estaldu eta amaitzen dabelakoan?

-Daneri ez dautse kanpairik joten. Merezi bere ezr

Ez. Fusillen tiroz ilten dituenei ez. Zoritxarrez. Ez al dira gu lako gizonak? Eta ori zer da?

Kartzeletan ilten diranei bere ez. Eta areik zer? Ez al dira eleizan bataiatuak?

Kale bazterretan erailten dituenei bere ez. Nungo eleizak agintzen dau ori, batetik iltea eta bestetik kanpairik ez jotea? Eta ori zer?

Zure gogua ikusten dot.

Nire pentsabiderik ez.

Zure naia igarten dot.

Nire sentiinena ezagutu.

Ez neuke nai alaba giro orretan ikusi.

Bizibideak erakusten dau zelan jokatu, askotan, norberak nai ezta, alegin andi barik.

Beraz, zurea ezetzeko da?

Igarri dozu.

Eta urteak doguzala ta...

Zer? Zer balio dabe urteak?

Urteak lege dira.

Batzutan.

Beti.

Ori ez da morala, ez da zillegia.

Zer ba?

Urte zoroak egon leiz bitartean.

Eta guraso itsuak katean.

-Dana dala, aitatasuna zaindu bear da beti.

Seme-alaben eskubideak babesten diranean.

Amaitzeko, ezkonduko ba giña?

Nok esan? Ausartu!

Eta kanpaiak joten laga ezik, laterri-legez (zibillez) baka-  
rrik ezkonduko ba giña?

Nok esan dau ori?

Zure alabak eta nik baietz esatea baiño ez dogu. Or amai-  
tzen da danar Ez gara gu eleizako legearen atea itxiten gabiltza-  
nak. Zuek zarie...

-Zemaitzen ausartu?

Zemaitu ez, keñatu ez, gogoia agertu.

Kanpora!

Ene senarra, mesedez!

Ixil zu, kanpora esan dautsat.

Ez al dakit zer egiten dodan? Noiz entzun izan da gure  
etxean ainbeste pekatu?

Bakoitzak daki zer dan pekatu.

Ori da zueri gertaten jatsuen. Deabru izan, eta jakin ez deabru zarela.

Ori, ori!

Andoni'k etsi eban jardunean jarraitzeari.

Igarten eban, nai ta berotasunaren garretan ibili, zar arek ez eukala beretik urteterik.

Parkatu, alperrik da emen jardutea. Alabaren bitartez baiño obeto ezagutu zaituet.

Agur.

Beste barik, Andoni'k, iñora be begiratu barik, bere alde igarten zan amari be begiratu barik, etxetik alde egin eban.

Itsu geratu zan Karlos. Berean, len baiño zital eta berekorrago, mutil ori arroa zala esaten, txuloa zala.

Ixilik, negar egin barik itzal, Irene.

Ikusten, ikusten zer nai daben orreik?

-Konturatu, zu izan zareala lenengo atreak itxi dautsazuzana.

Nik?

Bai. Ez bakarrik etxeakoak. Bai eleizakoak be, zuk. Izan be abade bear ziñan-eta!

-Eleizak be garbitu bear diralako. Zetarako guzurretan eta pekatuan joan?

-Zu-zeu egitan eta pekatu barik joan al ziñan nigaz ezkondu ziñanean!

Ori bere esan?

Zelan agertu zan gero...

Ba dakit nora zoazen.

-Joan bear dodalako. Nundik agertu ba zendula eta ba dozula, gero beste batek aitatasuna emon eutsan norbait? Ez al dago ori Jaunaren aginduetan?

Besterik ez dozu bear orrelakoxeak astintzen astea baiño.

Ez al dira deabrukeriak?



-Gaztetako zabartasunak dira orreik. Odolen berotasunak.

-Eta emon al dautsue onek, zure alabak eta orrek, oraiñar-te, orrelako berotasunen agerbiderik?

Alabak txotxinduta zagoz.

Zu zorioneko liberalkeriak itsututa.

Zer dauka zer ikusi ikurrin onek eta eskapulario oneik, eta trabuko oneik alaba baten ezkontzan?

Erregeak eurak ez al dira ezkontzen erlejioaren aurkako sinismendunekin?

Eta arein zin edo juramentuak balio dau, eta alabaren se-nargaiak egin leiken eskintzak ez?

Zuk uste dozu liberalak eta karlistak ba dogula gure errial-dean geiago zer egiñik?

Ez dozu ikusten guk maitien dogun Kristo berberaren iru-dia eskoletan ez dabela ipinten, eta ori eskumatarrak agintzen dagozala, eta len gerra batera urteteko gaia izan zan ezkontz-auste edo dibortzia be, eleiztarrak izan dirala setatsuen jokatu dabenak aurrera atarateko?

Irene, ixil zakidaz.

Ixilik egonda ez da ezer lortuten.

Bakarrik laga nagizu.

Bakarrik zoratu egíten da bat.

Zoratzeko premiña daukat, ez ba nago be.

Argia daukazu artean ikusten alegindu zaite, Karlos.

Danok, danok jausi zarie, igarri barik, deabruaren sareetan.

Ez zaitez ito ur meietan.

Zuk be lotsa galdu daustazu.

Nik?

Bai. Itsukeria zurea, ez nirea. Alaba baten mutil lotsabako batek berotu zaitu.

Karlos, zeuk ez dozu ba, ikusten, Erromatik bertatik gure siniskera guztiak aldatu egin dituela?

-Deabrua dabillega an eta mundu guztian, ementxe dabillan

lez Konturatu zaitetz. Eta amerikanoak, sekula federik euki ez daben amerikatarrak, curen dolarrekin. Eta alemanak, Lutero'ri bizia emon eutsen alemanak, curen markoekin. Danen artean estututa dauke Erroma. Kartzelan. Komunistak alde batetik, judear kapitalista eta luterotarrak bestetik, presor Sinistu, Aita Santuak ezin dau emon legerik, baituta dagolako. Eta guk, oraindik lengo legeak ezagutzeko zoriona daukagunok, doguzan sinistek laga?

Ez Irene, ez!

Ateko zarata enzun zan.

Alaba zanr

Zarrak konturatu ziran eta euren jardunaldia eten.

Susane'k igarri eban ekaitza. Aita eta amaren artean zerbait gertatu zanaren itxura artu eban.

Ez eban ezer esan nai izan. Begira egon zan. Ez eutsen egin zarrek bestetako arrerarik. Begira egon eta etsipenez bete zan.

Aiták jaramonik ez ba eutsan egin be, amak, tarte baten, begiakinerakutsi edo iragarri eutsan zer egon eikean.

Beste barik, irurak, bakoitzaren tokietara joan ziran, gaua oetan igaroteko asmotan.

Asarre ta guzti laster zan Karlos lo-konkorr

Ziurtatu orduko, tarte bat artu eban amak. Eta ainka puntetan alabaren gelara joan zan.

Ezer jakin dozu?

Ez.

Mutillik ikusi ez?

Ez Noiz urten da?

Esateko oraintxe.

Zer gertatu da?

Betiko itsukeria.

Asarratu egin al dira?

Ia, ia.

Gogor?

Bakoitzak beretik urten nai ez.

Andoni ez al da ondo egon?

Zetan?

Lotsa edo errespetuan.

Orretan bai. Baiña ariñegi zitaldu da.

Zegaitik asarratu dira ba?

Bakoitzak beretik urten nai ez-da.

-Zer eukan zer esateko Andoni'k?

Bereak arek, eta gureak beranak.

Azkenean zetan geratu dira?

Ezetan be ez.

Zerbait agertuko zan.

Andoni'ren esanetan, eleizarik zabaltzen ez ba da.. Zibillez ez zara ezkonduko, ezta?


Sartu zan lez ixillik urten zan alabaren gelatik ama.

Senarra bera beste egunetako lo astunik ezin artuta ebillan.

Igarri eutsan:

Zer, mater misericordiae'na egiten?

Lo egin lo, oker pentsaten baiño ez dakizun agure demoniñen orrek!



## **Ezkongaien artean**

Bildurretan egoan Susane, Andoni'k deituko ez eutsalakoan. Minkorra zan olakoetan, eta aserraldi ta gogortade egunetan, ba ekian etxetik ez urteten.

Sarri egiten eban lez, bere leioa zabal laga eban eta barrutik kanpoa ikusten geratu.

Kalearen azken aldian, an agiri zan. Ezer egiten ez ebalakuan, baiña Susane'ren leiotik begirik kendu barik, al eban guztitan. Ingurukoak ez ba'ekien lez ordu aretako bere ango agerpena zegaitik eta zetarako izaten zan.

Salome zarra urreratu jakon laster.

Erreklamuan?

Zer diñozu?

Igarri ta be?

Asko dakizu.

Ai ene! Antxiña urten euskun okotzpean bizarrak.

Leioa itxi dau.

Zeiñek?

Eta egan asi.

Zein baiña?

Zera, Arbeleko likara etorteko zain egoan kardantxuloa.

Bai nik baiño begi luzeagoak euki be!

Amak be igarri eutsan Susane'ri urteteko asmotan ebillala, dotore urten nai eballa.

Nora zoaz?

Edonora, ama.

-Minduta zagoz?

-Bai ama, zearo minduta  
Aita berean dago gogor.  
Beti izan da a gotor.  
Beste mutillen bat...  
Zer?

Entzun dozu, bear ba da beste batek ez leuke orrelako  
asarrerik etxean sortukor

-Ondo zagoz, ama?  
Nik zeu ondo ikusi nai.  
Zegaitik Andoni'ri oztopo au?  
Danak esaten dabe bizkorregia dala.  
Eta zer?  
Erdi zoroa dala.  
Nungo zoro?  
Politikan nastaua dala.  
Abertzale ta kitu.

Alderdi okerrekoa dala, gaur gangortuta dabiltzan alderdi  
orreitakua.

Eta zer?  
Ezkertarra..r  
Zer da gaur obe, eskuma ala ezkerra?  
Zuritu zaitu? Eskuratu?

-Nik ez al daukat neure erara pentsateko adiñik?  
-Jaungoikuagaitik, ez zaite sartu naste orretara.  
Zegaitik jarraitu zeuok zuen erara?

Gure aitita, eta aitak, eta nire senar dan zure aita be, danak  
izan ziran eskumatarrak.

Zer da eskumatar izatea?

-Ez dakit ba, eleizeari jarraitzea  
Laga egiozu eleizari bere zeregiñean.  
Ene ba, bildur da jendea!  
Zer da, esan, eskumatar izatea? Norbere buruari bakarrik

begiratzea, gizarteko gora-bera eta premiñei begiratu barik?

-Ixil zaitez, txikiña.

Ama, urten daigun guretik.

Aitak entzuten ba'dautsu...

Gaurko giroan beste zeregin bat bear da munduan, beste ardura bat, beste kontzientzi bat.

Ixi!

Entzun daiala nai ba'dau.

.....

Kalean, alkar ikusi ta batu orduko, sarri oi eben *lez*, itxas aldera joaten asi ziran, ango bakartadera.

Betoskoz, illun, ixil Andoni.

Susane asi zan egoera ori eten nairik.

Atzo gogor, ez?

Bart? Zelan dakizu?

Neuk igarri.

Ezer esan dautsue?

Aitarik ez dot oraindik ikusi.

-Jatorduan be ez?

Ez da maira agertu.

Ta amak?

Zerbait esan eustan.

-Asarre dago?

Amarena ba dakizu. Zeñegaz, diñozu, zugaz ala aitagaz?

Biokaz.

Aitagaz geiago a.

Geiago berba egin bear eban atzo. A be ez dago nigaz, ez da nire begiko, obeto esanda, ni ez bere begiko.

Aitaren bildurrez a.

Parkatu itaundutea, baiña zuen aitak trabuko ta guzti ibili bear leuke mendiz mendi, berak ames egiten ditun sorgin eta

mozorroak beratzen. Ez deritxazu?

Buru gogorra da. Beretar setatsua.

Lenago be ba zenkien.

Zenbat diru daukazue?

Gurean?

Ezin lei jakin?

Agirian dagona.

Agirian? Nun?

Ba etxe bat edo beste, danetara iru, zarrekandik artutakuak eurak, eta akziño batzuk.

Bakarrik?

Etxeak beintzat errenta zarretan dagoz. Emoten ete dabe gero zergak ordaintzeko lain?

-Merezi leuke Eta'ri salatutea, parte emotea.

Ixilik egon zaite. Gure aitak?

Kapitaldun andiki emoten dau bere pentsabidean.

-Oituraren menpetasuna.

-Ba dauka orraztu bearra.

Laga egiozu berean.

Aren esanetan, ni ezin neike zuretzat.

Astiz artu egizu.

Astiz? la Kristoren urtetara eldu gara ta astiz? Noiz arte, antzutu arte?

Ez diñot denporagaitik. Eroapenez esan bear neban, asarratu barik, dana amaituko da-ta.

Susane, nik ezin neike geiago luzatu.

Geiago ori zenbat da?

Geien be ille bi.

Eztakit.

Aitaren problemak gainduteko urtetan zagoz.

Ta nor eroateko etxera, gu biok joan ezik?

Nik beintzat ezin nei lenengotan an sartu. Niretzat aur-



jale (ogro) baten antzeko izango litzake zuen aita.

Oraindik alkarregaz biziteko adin ona dauke.

Bai, ta laster?

Etxeetan ez litzake bear gaur zarririk. Gaurko bizimodua ez da orrenbesterako.

Ta nok zaindu?

Zetarako da estadia, eurentzako toki egoki eta erosuak egiteko ez ba da?

Eta maitasuna?

Biziten jakin egin bear da, Susane. Maitasuna berezkoa da, eta bardin zaintzen da etxean nai beste tokietan.

Ta eurak bear daben samurtasuna?

Maitasunak aiña balio dau egokitasunak.

Zer da, askotan, maitasunaren zeregiña, utsune edo egokitasun ezaren ondorenak leundutea baiño?

Guk, gaztetan, orrela pentsatu giñeike. Baiña nok sartu zareiri?

Ziur egon guri norbaitek sartu bear ko dauskula. Bizitzako legeaz. Orretarako lan egin bear da, eta estadiari bear diran etxeak jaso eragin, nai ta zartzarokotik zati bat kendu, erreztasun orren ordeaz.

Zarren ardura baiño gurea dago aurrerago.

Esan al dautsut ille bi?

Eta zuritzen ez ba'dira?

Ez nazula maite sinistuko neuke.

Eta ezkondu, nun?

Nun?

Ez dogu sekula erabagi.

Eleizaz nai al dozu?

Nik bai.

-Nik ez.

Zegaitik ez eleizaz?"

Sinismenik ez dodalako.

Niretzat ezezkoa mingarri litzake.

Ainbestetan?

Pentsatu egin bearke neuke ezkondu ala ez.

Komedia egitea nai ete dozu?

Orrelakorik ez pentsatu. Ba dakit ez dozula pentsaten. Alaz eta gure maitasuna bedeinkatzea naiko dozu.

-Gaiñetiko zigorrak emonda? Lepoan artu ta segi aurrera?

Gurasoak asarratuko litzatekez.

Ez ba'datoz, zer ardura eurei? Eta ni barregarri lagateko, zer besterik nai?

Nik, Andoni, nire sinisterik ezin neike laga. Dana eskiñiko dautsut, baiña laga eidazu nire sinistea eukiten. Niretzat konzientziko kezka eta biotzeko min litzake.

Erabagiko dogu.

Ez, ille bi barru ezkontzekotan, jakin egin bear dot.

-Fraileetan ezkonduko gara nunbaiten.

Ezkutuan? Ez.

Zegaitik ez?

Erdi fraile geratu zan zure lagunen batek ezkontzekotan?  
Ez.

Kontu egin gaur iraultzan dabilzan nire ainbat lagunek zer esango leuken.

Andre txotxin bateri emon errua.

Zuk ez daukazu, ezer eleizaren aurka. Akolitu be ez ziñan izan?

Gure umetan zein ez?

Fraile ikasten be ibili ziñan.

Geiegi ikasi neban.

Edo batez.

Orduan etxeetako karga kentzea zan fraile sartu eta pesetako eskola billatzen.

Azalak, azken urtetako bizitza azalak, okertu zaitue, zure sinismentetik aldendu.

Azpijantzaillien eredu izan da Eleiza.

Ez nago zugaz.

Bakarrak ez dabe legerik egiten.

Eleiztar batzuk esan naiko dozu. Gizonak areik be. Praka-dun gizonak.

Eta besteak zer?

Ezagutzen dodaz benetan sufridu bear izan dabenak.

Laga daigun jardun garratz au.

Manifestapena dago gaur.

Zegaitik? Zeiñen alde?

-Ori ez da sekula itandu bear.

Itsu joan? Norbera saltzea da ori.

Lege batzuk eten bear diranean, norbera saltzea egoki eta premiñazko izan leiteke.

Diktadura baten menpe karteia ez ete da ori?

Giroa aldatzearren, edozer. Egunero gertu bear litzake zerbait.

Minaifestapenik barik lortu leitekena da

-Ez. Erriak ez daki ezer. Erriak ez dau ezer ulertzen. Erriak burruka bear dau. Zarata, didarra, kalez kale ibiltea Egitura zarrak aldatu egin bear dira. Onez edo txarrez.

Baiña...

Ez ezpairik ipini. Egunero bear litzake zerbait. Eten, apurtu, jo, esan...

Guzurrean jausi be bai?

Bai. Guzurrak beti eukiten dau oiñarriren bat eta geienetan egia izaten da

Ni, gauza zuzen baten alde gertuko nitzake.

Gauza zuzena ete da, zirkiñik barik, gaurko egoeran, geldi iraun edo egotea?

Iraute utsa, gizartearen aurkako pekatu da Koldarti izan eta ala agertzea da. Zarrei errazoia emotea da, eta guk, gaur, ezin geinke zarren gizaldietako agintea lotsagarritu barik laga.

Urte geiegi dira, Kristoren ondorengo gizaldi guztiak, zaren aitatasunak eta Eleizaren kapak mundua euren menpetasun lotsagarrian euki dabela.

Urrundik zarata lakoa entzuten asi zan.

Ordua zan. «Asanblada» amaitzeko ordua.

Manifestapena etorrar .

Andoni keixatu zan, besteak zer esango.

Ez zan geiago oroitu ez kezkatu euren artean eukezan burukomiñekaz. Ez zan geiago gogoratu maitasunagaz.

Bera zan bestetan abots zabaltzaillea erabilten ebana, eta deiturak esan eta barriztuten zituna.

Orrela laster zan bera burukideen artean.

Neska, Susane, alboan geratu zan.

Burukomin ugari zitun, gurasoak eta ezkontza bitarteko. Ori zan bete kezka.

Ez zan zeatz konturatzen zer zan egun aretako eskabidea-gaz. Gazte aldra bat zan deika ebillana, eta deitura bat esan ala, ukabillak jaso ta erantzuten ebanar

Presoak kalera!

Presoak kalera, presoak kalera!!

Zumeta askatu!

Zumeta askatu, Zumeta askatu!!

Txakurrak barrura!

Txakurrak barrura, txakurrak barrura!!

Lemoiz apurtu!

Lemoiz apurtu, Lemoiz apurtu!!

Greba orokorra!

Greba orokorra, greba orokorra!!

Diburtzio librea!

Diburtzio librea, Diburtzio librea!!

Abortu librea!

Abortu librea, Abortu librea!!

Aurgintza neurtzea!

Aurgintza neurtzea, Aurgintza neurtzea!!

Gurari asetze librea!

Gurari asetze librea, gurari asetze librea!!

Soñaren plazera libre!

Soñaren plazera libre, soñaren plazera libre!!

Amnistia denentzat!

Amnistia denentzat! Amnistia denentzat!

Susane'ren etxe aurretik igarotean, ai zuzen Andoni zan «Diburtzio» librearen deilari.

Susane'k, kaletik etxera begiratu ebanean, leiar atzean amaren kerizpea, itzala lakoa iruditu eban, kaleko iñor konturatu orduko bere burua atzeratzen.

Aita asi jakon bere emazteari orruka lez, garratz eta gaizto, zarataka:

-Ikusten? Entzuten ebanjelari orreri? Konturatu ete zara? Eta etxean sartu orrelako bate Etxekuok danok atara eta bere kutuntxoek bat ekarteko?

Turutak lakoak entzun ziran andik laster, kalean, bide nau-siaren kurutzean.

Jendearen didarrak, oi, atzerakizun eta ezezkoak entzuten ziran.

Batzuk gogor ots egiten eben: «Ez igesi! Eutsi! Ez dira au-sartuko! Bakean goaz! Batuta geratzen ba'gara, ezin leikie ezer egin!

Lur gaiñean jezarteko ezaugarri edo agindu lakoa zabaldu zan. Eta danak bide erdian jezarri ziran, ez ixillik, deika baiño: Askatasuna! Askatasuna!

Zaindari galoidun bat agertu zan. Udabarriko orri bat baiño berdeago. Minutu bat emon eban inguru aretan leku egiteko, aldebanatzeko, bidea libre lagateko.

Iges egiten asi ziran bildurri batzuk. Emakumeak geienak. Euren artean Susane. Etxeko atadira eldu zan bizkor, eta an geratu ate aurrean. Mutillak jezarrita jarraitzen ebenr Susane'k be-

girik ezin galdu Andoni egoala iruditzen jakon tokitik.

Zaindaria ez eben segundorik galdu.

Minutoa igaro orduko, su egiteko agindu eben. Bereala, soñu bizian igaroten ziran gomazko pelotak batetik bestera. Jendea zabartu zan. Txistuka asir Peloten soñuan batetik eta txistuak bestetik, gortu eragiteko lako egoera larri ta bildurgarria igarten zan kale guztian.

Susane'ren etxean laster sarratu zituezan leioak, barruko leiatilla ta guztir

Atadira jetxi zan ama, alaba an ebillalakuan. Andrazko batzuk egozan, berakotan, erdi negarrez, berbarik ezin asmatuta.

Gure Susane ikusi al dozue?

Ementxe egonda lentxuago.

Ta orain ez? Nora joan da?

-Zaurituren bat ete dagon bildurrez, ikusterar

Zaurituak be ba dagoz?

Mordoa, dirudianez.

Ta zer egiteko an, dabillen nastean? Ene ba da ta! Gure neska onen burutaldia, onelako agerpenen inguruan ibilteko!

Zapi zuria atarata urten dar.. baiña ez dabe jaramonik egiten euren amaitu artean. Aurrean dagona jo ta kitu. Jendea aldebanatzea da euren ardura guztia. Bideak zabaltzea.

Amar minutu inguru iraun eban nasteak. Bizi, gordin eta errukirik barik.

Jazarraldiak batetik, erantzunak bestetik.

Gomazko pelotak batzuek, nekez eta urri billatzen zituen arri ta egur edo burdin zatiak bestiek.

Eskuetan eukezan izkilluak zaindareiek; erritarrek ingurutara jo bear ze ikusi edo aurkitu a artzeko.

Kotxe bi trabeskatu zituen bidean gazteak. Bateri sua emoten alegindu bere bai.

Leioetatik deadarka ekin eutsen etxetakoek, baiña zaindareiek gora begiratu orduko laster itxiten zituezan angoek eurenak, aidera jaurtiko eutsezan bildurrez.

Bitartean, lenengo zartadan zaurituak lurrean, iñor eureka-na urreratu eziñik. Atadi batetik urten eta sartu, urrengo atadira beste bitarte baten, aurrerago beste abadunean, baiña edozetara be bide zabalean zuzen ibiltzen ausartu barik.

Nekez egin zan barealdia.

Barealdi guzurrezkoa. Ixiltasun astunez.

Anbulantziak euren zirti-zartadako argi ta ots ezagunekin, kalean agertzen asi ziran. Ixiltasuna etenarren, giroa geiago larritu eta zurbilduten eben.

Areik agertu ordurako ingurutakoak batzuei zauriak eta odola garbitzen ibiliak ziran.

Nekez lórtu eban Susane'k Andoni'ren albora eldutea. A zan iru zaurituetakoko bat. Ez eban ezagutu. Ezaupidea galduta eukan. Begiak indar barik.

Berbarik ez eukan. Zentzu bako min deadarrak, intziri laquak egiten zitun.

Belarri ganean jo eban gomazko pelota batek eta bertan bera konort barik laga.

Bildurra eta izerdi otza emon eta sartzen eban arpegi guztian zear zabalduta eukan odolak. Eta oraindik ixuriten egoan. Zapi txikia eukan Susane'k. Ezin lotu. Egon zan bere azpiko gonari tartatada baten zati eder bat kentzeko. Esku bategaz Andoni'ren burua artu ta besteagaz zapiari eusten iñarduan, odol eriona geratu eragin naiko alegin urdurian.

Kotxetara jaso zituezan zaurituak.

Ez eutsen erritarrei eurekaz barruan sartzen laga. Orretarako egozala gaixo-zaiñak, erantzuten ebenr

Erriko bat-bateko osategira eruan zituezan danak. An lenengo garbiketa eta osaketa egin ondoren, bat etxera bialdu eben eta beste biak uri nausiko gaixotegira.

Susane, bere jantzia odol-kutsuz loituta etxerako bidean asi zan. Kirioak ez eutsen lagaten ingurukoak ezagutzen. Iñori jaramon barik eldu zan atadira.

Lenengo eguna zan manifestapen baten inguruan gertaten

zala. Bestetan, denporaldi aretan orrelako asko ospatuarren, ez zan etxetik urteten amaitu arte, edo ta a asteko ordua elduten zanean, etxera alde egiten eban.

Atadi ondoan, kalean, Andoni'ren aita billatu eban.

Ez eban ordurarte iñoiz beragaz barbarik egin.

Zerbait entzun edo jakinda etorran.

-Zer gertatu da?

Iru zauritu gertatu dira.

Asko?

Ustez bai.

Odol ori zeñena da?

-Zeñena izango da ba?

Gure Andoni'rena?

Bai, gure Andoni'rena. Eta lotsatu lez egin zan «gure» orrek urten eutsalako.

Ez zaitez joan.

Zer ba?

Eroan dabe.

Bizirik ala ilda?

Sartu dabenean bizirik.

Nora eroan?

Ustez, lenengo, erriko osategira. Baiña, niretzat, Bilbo'ra eroan bearko dabe, onako baiño geiago dauka-ta.

Aitagiñarrebagazko lenengo jarduna zan. Bat batekoa eta uste bakoa.

Errukizkoa.

Alkarri begira geratu ziran.

-Odol beroegiak, gure mutillak.

Besteak be jazarpen amorratuegia.

Gogorra da gurea. Bizia. Ekiñekoa.

Baiña arriskuak be ikusi bear dira.

Ori esaten dautsat nik. Orrelakorik entzun nai ez arek.



Sasoiko gauzak.

Bai, sasoikoak. Lagunik *ez* eban salduko arek.

Orrelako nasteetan ez jakin lagunak nundik ibiltzen diran.

-Jakin ez?

Lagunak zurrago ibili dira.

Osategira nua ze barri dagon jakitera.

Emengoa, nire ustez, jakiña da. Garbituko dabe ta kanpora bialdu. Eskuak zuritu.

Ama Irene, leiotik deika asi jakon:

Susane, zagozan eran zetan or?

Ontxe!

Odoletan al zagoz? Ene ba da ta!

Eta atadira jeitxi zan.

Erdi tatarrez eroan eban alaba gora Ikusi bear zala, ondo aztertu bear zala...

Miñik?

Nik ez, ama.

Igarri barik, zeu konturatu barik, oraindik bero zagozala-ko...

Ézetz, ama

Zauriren bat...

Ezetz, ba?

Aita urreratu zanr

Berbarik be ez.

Begiratu, begiratu, ta azkenean:

Dibortzio eskatzen eta odoletan?

Ba nekien, aita, ziriren bat esateko erreta billatuko zendudazala Itxaroten neban.

Eta Susane, bere gelan sartu zan, amorru bizitan, ateari etxe guztiari dardara eragiteko lako bultzada emon ondoren.

Garbiketa egin, eta Susane gaiñeko apaindurei laga-ta, bere oean sartu zan.

Afaldu be ez Gogorik ez

Alperrik deitu amak. Alperrik mesedez eskatu. Aita be, bere gogortadea igaro ondoren, zain egoala-ta.

Bakarrik egon nai eban. Izara artean bere burua eskutatu eta lekuko barik, iñoren kezka barik alaxe egon. Batzutan negar, bestetan bere buruaren aurka jarkiz

Eguna aztertzeke eukan. Kirioak ez eutsen lagaten. Goiza ta illuntzea sekula baiño astunago izan zitun.

Ba eukazan alderdi onak be. Maiteagaz kidetzen asi zala igarten eban, bere elburu eta kaleko kezketan. Ordurarte ez zan ainbestetan ausartu eta adoretu.

Batzutan barregarriak ikusten zitun edo iruditzen jakozan manifestapenak. Zentzu bakoak. Gaztetasunaren agerpen eta zo-roaldiak. Erriko askorentzat oiñarri bako agerketak.

Etxeko gogai askoren lotura eukan. Bere famili inguruko askok, nabarmenkerizat etsiten zituen etenbagako ibillaldi orreik. Eskabideak, lotsagarriak

Bera be bildurtu egiten zan arratsalde aretan deitu ziran deadarrekaz. Baiña baekian danetakoak ibili zirala agerpenean, eta gazteen artean be danak ez ebela bardin pentsaten eta danak ez zituelako ango asko onartuko.

Baiña bere maiteak esaten eban lez, nai ta sinistu ez, nai ta askotan bat etorri ez, lagundu egin bear zan. Asko egozan kartzeletan, asko auzitegietan noiz epaituko. Emakumeak sekula ordurarte onartu ez eutsezan eskabideak eukezan. Legeak nai zituene, lege barriak. Lizunkeri zikin, batzuntzat. Besteentzat esku-bide bat. Bear ba da lengo loturak estuegi izatean, orain askatasunean, nabarmenegi agertu.

Beste askok, gazte aldra txiki bat zala orretan ebillana, eta aintzat be ez zituezan artzen. Entzun eta barre. Eta jardunaldi irritsu eta berakorrak egin.



## **Barri Txarrak**

Andoni'ren aita, alarguna zan. Ez euken etxean beste iñor. Semeagaz bakarrik bizi zan.

Ez zan joan, gertarien biaramonean, Bilbo'ra.

Bere senide bat geratu zan, tarteren baten joatekotan.

Buruko gauzak euren denpora bear dabela... ta berrogei ta zortzi ordu igaro arte obe zala baketan laga. Ori esaten zan eta legetzat sinistu.

Uri buruan, kapitalean, beti egoten dira erri txikietako familien ordezkari lakoak.

Alako batek Bilbo'tik deitu eban errira.

Urrutizkiñik ez etxean, eta alkateari.

Andoni txarto egoala. Izan eikeala bizitea, baiña itxura txarra eukala. Sukarra, beratu bearrean, igo egin jakola. Komeniko zala norbait bere ondora joatea.

Onelako gertaera baten, nai ta artu-emonik euki ez, neska-  
ren familikoei adieraztea pentsatu eben.

Geien bat be, eta ori zan euren gurari bakarra, neskak ara joatea naiko ebalakoan.

Bolo-bolo ebillan errian, Karlos'en alaba, Susane, ez bearretako eguneko manifestapenean joan zala. Agiri zala neska-  
mutillen arteko artu-emonak sendotzen eioazala, ta bera izan zala zaindariei aurre emon eta Andoni'gana lenen urreratu zana.

Iñok ez ekian barruko arraren barririk, etxeko giroaren zitaltasu nik.

Kanpoa, azala ikusten eben: Esanak sinistu. Eta egun bateko jokoa jarraitzeko zan ala ez aztertu barik.

Askorentzat, egun aretako ausardia ikusita, Susane iraultzai-  
He adoretzu egiña zan. Jendeari zer pentsatu eragingo eutsan aitzindari barri bat. Batez be eskumatar famili askotan zotin era-

gingo ebana. Nai ta beste askotan maitekeri itsu eta bero baten ondorena izan. Eta origaitik, zana zalako, ezia izan zan lez ezia izan zalako, gogorrago eta zitalago ezetsi eta gaiztetsi bere jokabidea. Galbideko arri biurtu geientzat.

Jose Zugaza'ren senidetako bat urreratu zanean, Karlos'enean nekez zabaldu eutsen atea.

Karlos'ek ez eban nai ezetara be, batez bere egun aretakoa ikusi ondoren, ezelako artu emonik.

Esan eutsen zer gertaten zan, atera urten ebanari, amari.

Alperrik.

Batzuk batera uste eben.

Erriaren begi onean jausi zala neska.

Karlos'tarren joera, aren urte askotako itsukeria argitzen ebala neskaren joerak.

Famili orren aldikotzea zala.

Nai eta zarrak eurenean jarrai, eta itsu jarraitu be, erri bide baten atea zabaltzen eioazala, igarri barik, euren alaba bakarraren jokabidearen ondorenez.

Orrek, beste onura askoren artean, euren kide askoren begi ona agertu eragingo ebala.

Ori alde batekoak.

Ostera, Karlos'entzat, saldukeri bat zan. Azpikeri bat, ain zuzen be len ikusi ezin eben bere alabaren maitasunagaz baliatuta. Igarri barik egin eutsela, atzipetuta, buru garbiketa.

Karlos'entzat, demokrazia, beste alderdi baten diktadura zan. Eta familien oiturazko edo tradiziozko gogai eta egitura guztiak, onak eta txarrak, danak, zapaldu, eta azpiratu, eta eze-reztu nai eta lotsagarri laga edo baztertu naia.

Ori zan berai izutu eragin eta min emoten eutsana.

Urteetako aginpidea galtzea... Or be keixu zan.

Igarten eban aginpide orreri eusteko nortasunik ez zala egokitzen azken urtetako giroan.

Eleizak emon eutsen, ez konturatu barik berak esaten ebanez, ostikada ixilla, baiña toki onean. Komunista egiña ez ba

egoan be, erdi-bidean gero ta okerrago nabarmentzen igarten eben Eleiza. Zuzendu orde bere bidea okertzen eta ondamendi bidean ezagutzen eben Eleiza. Eurak gizaldietan odolaren eskintzaz zutik zaindu eben Eleizak egin eutsen saldukeririk andiena.

Lengo ereduz geratzen ziran agintariak, egunetik egunera makaltzen ziarduela igarten eutsen. Aginpide barik. Aginpide makilla lerden erabilteko adore barik. Edozein txorik kaka egi-ten dautsen txorimalu zarren antzera, edonoren mende, edozein arpegi zikiñen aurrean, aldian erabillezan prakak erantziteko zorian.

Kalean, zikinkeria nausi.

Ormetan, edozeiñek, edozelan eta edozer ipinitako kartel eta agiriak, atzamarra zan tokian besua salatuten, baltza zan tokian berdea agertzen, umeak lotsatzeko aiñako zikinkeriak, irudi eta apainduretan azpimarratzen.

Abeze baten aukeratu ezin aiña alderdi, anaitasun, batasun, batzorde, kofradi, elkarte, erri-erakunde, klub, mogimendu, iraultzaille, talde eta lagundien bi, iru, lau eta bost izkidun itz-motz eta laburpenak, ezelako egiztapen eta ikertze barik, danak legeari ukondoa emonda.

Arentzat danak, bakarren bat lagata, oillo kakaz be bizarrak urten bako umeen garraxi ozpinduak eta lanean izerdirik atara nai ez eben bizardunenak ziran.

Origaitik, Karlos'en etxean gauzak baretu eta egokitzen etozala uste ebenak, ez eben aren sakonik ezagutzen, ez eben igarten pentsabide orrek zelako jokabidea egosten iñarduan aren izatean.

Joan ziran mandatariek, amagazko jardunetan, ez eben erantzun egokirik artu.

Ekin eta ekin, baiña amarik ez zan argitzen. Berba onek, eta sakon baten borondate txarrik ez, baiña...

Alako baten Karlos berbera azaldu zan atera. Zirt-zart eba-giteko asmotan, garratz.

-Zer da nai dozuena?

Berba egin.

Zetaz?

Andoni gero-ta txartuago duala esateko.

-Eta?

Ba dakigu zu zeuri...

Zer daukat nik onetan egiteko?

Zu zeuk bear ba da ez.

Baiña alabak ez ete leuke zerbait naiko? Berak ez ete leuke zerbait gurako?

Alabak nik diñodana.

Ba dakizu alkar maite dabela.

Ori ez da zuen eta nire gauza.

-Ez dira umeak be, gurasoak euren barruko gauza eta mai-tasunetan sartzeko.

Gurasoen gurasotasunik sekula amaitzen al da? Aitatasunik sekula galduten al da?

Guk esan dautsugu.

Ondo da

Ilten ba da?

Nik al daukat ez ilteko giltza?

Susane'k sentiduko leuke.

Danok sentiduten doguz eriotzak. Danok. Arenak eta ka-leetan garbitzen diranetak.

Batzunak bai eta bestenak ez?

Danenak esan dot. Danenak.

Kolore bateko danenak?

-Uste dozue ez dakidala «danak» berbak zer esan nai dauan? Bizia, bizia da beti. Aitaren seme guztientzat.

Ez dago itxura andirik.

Mesedez, ez etorri ona iñor zirikatzen.

Gu ez gatoz zu zemaitzen

Zetan diarduzue, ba?

Zer gertaten dán alabari adierazten etorri garar  
Naiko dauka alabak bere odolak garbitzen.

Alaba preso daukazula esango dautsagu erriari, giltzapean  
daukazula etxe barruan.

Presoen biurkeria sartuta daukazue.

Sartu eragin dauskue. Eta presoak ez dira kartzeletan da-  
gozanak bakarrik. Zure lako etxeetan erriagaz artu-emonik eu-  
kiten laga nai ezta seme-alabak estututen dozuezanok be, pre-  
soak daukazuez etxeetan.

Susane agertu zan.

Erriari esango dautsagu, au preso daukazular  
-Zer esango dautsazuela erriari?, Susane'k.

Baitua zagozala, preso.

Laga egiozue baketan nire aitari. Eta jakin, nik ba dakidala  
zelan jokatu, jokatzeko aukerarik ikusten dodanetan.

Naiko esaten dozu, gaixo orrek. Aukera ikusten dozune-  
tan...

Mesedez, ba dakit nik zelan erantzun. Ez zaiteze zuek sartu  
iñoren gauzetan.

Bakoitzak jakin bear leuke zelan eutsi bere etxeari'. Eskerri-  
kasko ta zoaze.

Gauzak jakinda.

Danenak jakinda.

Eta Susane izan zan etxeko ate nausia itxi eutsena.

Kalean, kalekoak, zurbilduta geratu ziran.

Bezperako jokabide ausarta eta egun aretako zurikeri a ze-  
lan alkartu edo lotu?

Bitartean zer egon ete zan?

Zelako aginteak eta gogortasunak etxean, edo ta zelako es-  
kintza eta eskabideak?

Batek esan, besteak sinistu; batek zerbait gogoratu, besteak  
aizetu; batek kontu zarren bat ezaupidera atara, besteak kontu  
ori sorginkeriz puztu.



Orrelako jardunetan urrundu ziran.

Etxean, etxekoak, lengo ixiltasunean jarraitzeko giroan.

Alabaren jokabidea ikusi ondoren, Karlos'ek, bere barruan, barealdi lako bat igarri eban, eta itxaropen aizea lakoa arnastu.

Aita eta ama sukaldera zuzendu ziran.

Susane, beste ezer geitu edo aitatu barik, gelara eioanr Baiña aita jardunean asi zala konturatu zan.

Lotsabakoak!

Lapak aitzari lotuta legetxe, ateari lotuta ezin bialdu.

Olakocri, aterik zabaldu ez, eta begiraleko zulutik erantzun bear jakoe.

-Ortarako jakin egin bear nortzuk datozen ate joten. Erritarrei ori egitea...

Erritarrak? Ikusi dozu ekarri daben begirapena! Erritarrak diñozu? Lotsabakoak alakoak!

Susane'k bira egin eta benez:

Zegaitik dira lotsabakoak?

Ez ete dozu ikusi?

Ikusi baiño lenago, entzun egin dot. Eta konturatu naz, asmo onez etorri dirala, nire ustez euren artean dodan begirapenagaitik egin bear eben zeregin bat beteten.

Orretan zagoz?

Zegaitik gauzak diran lez egiaztatu ez?

-Ez euken zetan etorri.

Nire maitasunez edo begirapenez etorri dira. Geiagor Niri, iñori baiño geiago niri komeni jatan barri bat ekarten.

Zetan dago onetan lotsabakotasuna?

Baiña ikusi dozu.

Gero gerokoak.

Batzuk eta besteak alkarri tirrika ibili bear ba'dozue, alkarri destainka, akuluaren ziria erakutsi ta sartzen, ori, alde bietako argalkeria da. Gaixoa.

Bai, aita eta ama, bai.

Zuek zuenari eusten dautsazuen lez, besteak bestenari eus-  
teko eskubiderik ezin lei ukatu.

Nok ukatu dau?

Berbetan asi ordurako eragozpenak eta garrazkeriak ipini,  
atara eta erakustea, zer da?

Susane, beste ezer geitu barik, bere gelan sartu zan.

Ordu bete baiño lenago, berbaroa entzuten zan etxe au-  
rrera urreratzen. Gero ta urrerago. Eta geldi geratu ziranen sur-  
murrua zala konturatzea erreza izan zan.

Andrazkoak ziran geienak.

Ez asko. Ogeiko talderen bat. Eta mutil bi edo iru.

Eurak an ikustean, urrunean, beste lagun batzuk ikusten zi-  
tun etorten, zabaldu nai ez eban gelako barruko tartetik.

Eta abestuten asi ziran.

«Itziar'en alaba» kantaten asi ziran, zutik, etxe aurrean, geldi.  
A amaitu eta «Txoria kaiolan».

Zer esan edo erakutsi nai ete eben egonaldi orregaz? Berari  
adorea sartu?

Bein eta barriro, abestiak amaitu ala, eurak barriro.

Kezkatu zan. Barruko bildurra lakoa sartu jakon. Ez zan au-  
sartuten leiorik zabaltzen.

Zer nai etc eutsen adierazi? Andonil il zala? Ori esan nairik  
beste era baten jokatuko eben, bere ustetan. Iñoiz orrelako  
eriotzak gertatzean, beste gogortada eta agerkizun ausartak egi-  
ten zituezan.

Konturatu zan bere egoerari buruz aitzindarien batek as-  
Katuko ebalatzen egiten inarduen agerbide ori.

Ango askok ez euken orrenbeste pentsateko etorririk.

Alako baten amaitu eben egonaldia.

Eta bidean eiozala, beste deadarrak asi zituezan.

Presoak kalera!

Presoak kalera! Presoak kalera!

Atadian len gertatutakoa gogoratu, orduntxe konturatu

zan Susane bera zala, erriaren begietarako, preso egoana.

Lotsatu egin zan.

Zegaitik eta zetan erritar areik ainbestean ausartu eta era orretan jarki?

Ba ete euken eskubiderik ainbestean eta ain zaratatsu iñoren aututan sartzeko?

Nor zan erria bere gurasoak kalean salatuteko, famili barruko gorabera baten?

Ez *ete* egozan millak famili seme alaben maitasun agerpenak begi onez ikusten ez zituezanak, eta alegiñak egiten zituezanak, etxean, kalean eta gizartean, ezkontzarik ez egiteko?

Ez al euken gurasoek euren ondasunen zaintzea billatzeko eskubiderik, eta ogetak urteak arte eurak etxean euki ebezan seme-alabei, eziketa orren truke, alkarregaz ondo konponduko ziran lagunen bat etxera eroatea eskatzeko bitartekotasunik?

£zin zan egon.

Gero ta estuago.

Alkarren gaiñera sortuten jakozan esaerak eta pentsaerak, salakuntzak eta eskubideak, lotsabakokeriak eta txakurkeriak, eskariak eta garrazkeriak.

Eta Andoni.

Ilda lez besoetan euki eban Andoni.

Ibillaldi baketsu eta ia oiturazko baten tiroz beia jota agoliñan lez euki eban Andoni.

Begiak indar barik, ikusmena galdua lez, eta odola mara-mara buru egaletik eriola bere besoetan euki eban Andoni.

Eskabideak tiroz erantzun bear al dira?

Eskabideak, astakeririk andienak izan da be, bakez egiñak ba dira, ez al dabe euren erantzun baketsurik bear?

Ez al dago beste erarik, erriari bere eskabideak okerrak dirala jakin erazteko, edo gizarteari min emoten dautsenak dirala agertzeko, edo ta gizartearen zentzuzko legea zapaltzen dabela erakutsi eragiteko?

Kaleko eskabideak ez al dira erriaren egoera baten zela-

alako urteerak, bestela ixildu eragiten dana, erriaren aurrean salatuz, erantzun egoki bat atarateko?

Burutasun bakoitzeko, Andoni'ren irudia etorkion.

Ango eskabide asko barrutik sentiduten eta onartzen etc zitun Andoni'k?

Berari eta bere gurasoei eta curen antzeko eta giroko askori min emoten eutsen eskabide, gurari eta dei askogaz bat etc etorran bera?

Laguncn aldeko jokoan ez ete zan jausi?

Zapaldu guztiak etc ziran bardiñak eta danak merezi ete eben danen laguntza?

Esaten zan lez, eskutuko esku oker eta zitalen bat etc ebillan nastea billatzen?

Kalcra begiratu eban.

Ez ebillan iñor.

Illuntzea. Argi motelak kalean.

Eta ezin kendu burutik, ezetara be ezin baztertu edo malkaldu Andoni'ren irudirik.

Zetarako ez ekiala *lez*, jazten asi zan. Jantzi eta apaintzen.

Norako?

Ez eban, une aretan, norako erantzuten jakingo. Aidean ebillen. Gertu egon.

Edonora joateko *lez*.

Barrero leiotik begira egon zan. Zabal zabalik zabaldu eta laga eban leioa. Kaletik begiratuta be, edozeiñek igarteko eran bere gelan ez egoala.

Eta sukaldera joan zan.

Ama josten eta aita irakurten, ixilik egozan, oraindik zainduten eben beko suaren aurrean, antxiñako zumazko jesarleku zabal eta erotsu banatan.

Ba nua.

Nora?

Ez bildurtu. Kalera.

-Erabili naiko zaitue gero, Andoni'rcn aitzakiz.

Konturatu naz nora eldu nazan.

Lotsatuta lagako gaituzu familikoak.

Ez.

Zeuk ez dakizula.

Ez. Ziur egon.

Gure izate guztia laidotuko dozu.

Ez, ez nabil orretan.

-Zu ez, baiña sartuko zaitue.

Kostako da.

Zure borondatez baliatu naiko dabe.

-Gaur gaurkoz aurrez konturatuko nitzake.

Nora zoaz ba?

Andoni'ren aitagaz berba egin bear dot.

Gure etsaia da.

Ez sinistu olakorik.

Bizi guztian izan da.

Sekula ezer euki ete dozue alkarren artean?

Ez.

Zelan dakizu arerioa dala?

Politikan.

Itsukeria. Ez al dauke gizonek politikaz nai daben eran jokatzeke eskubiderik?

Legea zainduta.

Edo legea eginda, ez?

Indarkeriz ez.

Gizaldietako aitatasun guzurrezkoz be ez.

Beti diarduzu jatorrizko agilite baten aurka.

Zuek be beti diardoze oiñarri barik, eta askotan indarrez, berari eusten.

Dana dala. Ez daukat orretan jarraitzeko asmorik.

Ba nua.

Nora baiña?

Esan dautsuet.

Zur ibili.


Laster etorriko naz. Eta etorten ez ba naz, ez zaiteze kezkatu eta asarratu be ez. Karidadezko ekintza eta eskintza bat egingiten geratuko riaz.

Zer diñozu?

Bakarrik egongo dan Andoni'ren aita zaintzen geratuko naz, bear ba'da beragaz egoten dan arreba Bilbo'ra joanda egon leike-ta, Andoni'ri laguntzera.

Alkarri begira mutu geratu ziran gurasoak. Ez ekien zer erantzunr

Zuen mesedean nua. Zarataka ibili barik, erriari agertuko dautsat ni ez nagola preso etxean..r



## Susane lanean

Kalean, ez berean eta ez igaro bear zitun beste bietan, ez eban iñogaz topo egin.

Gazteak, eta mardul banakak, erriko zugaztian egozan batuta, erri asanblada deituten eutsen batzarrean.

Andoni'ren zerbait esaten ebiltzalakuan, jakin-miñak zirikatu eban, eta iñok igarri barik, illunagaz baliatuta, plaza gaiñean adiskide batek eukan etxera joan zan.

Pozik artu eban adiskideak, deja jo orduko igarri be egin eban norena zan-eta.

Zerbait jakin naian?

Zu ez zara olakoa izan baiña...

Eta nok daki zer naizen?

Maitasunak ez dau parkatzen.

Oker zabiltze danok.

Iñoiz ikusi nazue, or tartean, niri eritxirik erakusten? Iñoiz ikusi nazue ibillaldietan? Eta kaleko beste agerpen eta jaietan?

Atzokua danak dakie. Gure zarrak be laster jakin eben.

Atzokua...

Zu an gertatu ba ziña, zer egingo zendun?

Gertatu?

Gertatu bai. Zer egingo zendun? Zaurituei be jaramonik ez eta lagundu ez?

-Baiña zauritua, esaten dan lez...

Gri beste gauza bat da.

Eta leioa erdi zabaldu eben, argiak amatauta, iñor konturatu barik, eta barruan egon ziran, entzuten, txistik egin barik.

Azkenengo gertaerak aztertzen ebiltzan, bezperako ibillalditik asi eta azken orduan eldu ziran Andoni'ren barriak, barri



illunak, jakin eragiñez.

Indarkeriari atzera egin barik, indarrez erantzun bear zala. Ori zala zaindariei bildurra sartu eta erria adoretzeko erarik ziu-rrena, esan eban batek, eta beste guztiak, ao batez, errazoia eu-kala, eta alaxe egin bear zala.

Manifestapenetan (ibillaldietan) asko zirala etxeetan sartu, atadiak be sarratu eta barruan eskutatzen ziranakr Eta ori galerazo egin bear zala, atadietako tirrin eta aldabak edo klisketak jo eta bitarte orretan atadiak zabalik eukitera beartuz, zaindarien jazar-kunde bat egon ezkerro be nun sartu eukiteko, eta barrutik, es-kututik, gitxien uste eben tokitik eurei arriak edo aukera eto-rran edozer jaurti al izateko.

Ori etxe bakoitzaren askatasunaren aurka joan eikeala, ba-tek esan orduko, besteak erantzun eutsen ia etxeak errian eta kalean ez egozan, eta ori dala-ta kaleko zerbitzuan.

Nastea sortu zan, eztabaida, ama zarrak edo guraso zarrak bakarrik egozan tokietan, eurak salduta lagatea zala, kak larritan ipintea zala, eta len be gaixoak naiko orrelako eukiten ebela, ikara ta izualdi geiago sartu barik.

Orretako eritziak, mutilla izan berbetan iñarduena edo nes-ka gertatu, zearo ezbaridiñak ziran. Eta egun aretan erabagirik artu ez da be, aztertu bearreko gaia zala ta beste baten sakonago. eta nasaiago egitekotan geratu ziranr

Gero andre batzuk besperan zer egin eben Susane'ren etxe aurrean gogoratu eben.

Egin ebena indartzeko, komeniko zala urrengo ibillaldian, Andoni Bilbo'n edo gaixotegian egoan artean, *bere* omenez ba'litz lez, gertualdi bat egitea Susane'ren aurrean; eta gurasoen zitalkeriz sufritzen egoan etxe-kartzela zela-ala eteteko edo arintzeko, erriaren guraria jakin eragitea.

Onetan be ez ziran danak eritxi bardiñeko.

Zeiñek ekian etxe kartzelan ete egoan, batzuk. Susane ixilla zala, sekula ez ebala etxeko gauzarik agertzen, bezperan ikusi zala nai ebanetan ba ekiala urtetenr

-Entzuten?

Nik baiño geiago dakie eurok.

Eta kalekoa entzuten jarraitzeko, ixildu ziran.

Etxeko burukomiñak... ori barik bizitakorik iñor ba ete dago inguruetan? dei egin eben neska batek. Orretxen aurka ez gabiltz ba, emakume eta seme-alabea eskubideak eskatzen?, beste batek erantzun.

Gauza bat zala kalea eta bestea etxe barruko egoera. Askotan ixilik iruntziten zala txistu larria, baiña ori gazteei lez zarragoei be bardin gertaten jakoela, esan eban zartxuago batek, eta ori zala asanblada baten erabagitekua.

Andoni'ren goraberan berba egin bear ebanak, ez eban gauza askorik agertu. Onera barik, pixkat ba da be txarrera egin ebala, txarto be txarto egoala, ez zala zauri aundia, baiña bai leku txarrekoa, zer ikusi asko egoala, ta beste zeaztasunik ez.

Biziko ba'zan edo ez, ikusi bear.

Eta illeta? Zelako illeta egin?, itaundu eban andrazko batek.

Iltea nai dozue, ala?

Danok dakizue ezetz. Esan bearra be! Baiña gauzak aurrez gertuten ba dira...

-Zer?

Andoni zeñena da?

Gurasoena, neskarena, ala erriarena?

Erriak aginduko dau beragaz zer egin.

Eta aitak ezin lei ezer agindu?

Susane eta laguna aitarenka geratu ziran, alkarri begirar

Ikusten Susane? Zer nai dabe oneik?

Benetan gauza garratza da ori.

-Goitik berako dardara sartzen jat.

Ez dot uste orrelakorik egingo leukenik.

-Baiña entzuten dozu.

Bai...

Eta barrero batzarreko abotsak etozan:

-Aitari lagaten ba dauzagu, betikora goaz.

Arena jakiña izango litzake. Betiko oituretan egiteko.

Orrela egitekotan, abadien menpe eta eleizaren kapapean egingo litzake illeta. Eta joan bearko giñake?

Lotsarik ba dogu geuk, oraindik bizi dan mutil bategaz, era onetan jarduteko?

Abade kontua atara ezkeru, zugaz ezin leike. Beti bardin. Zegaitik orrelako gauzari ikutu ez? Ugarra, kostria daukazu zuk orretan. Zuritu nai eza.

Ni ez al naz erria, zu bestean, eta erria zure lez pentsateko?

Eta Andoni berak zerbait aginduko ba leu?

Nundik atara, osagilleren batek edo monjaren batek albotik zerbait esan eta zer egiten daben be eztakiala, buruari baiezkoa eraginda?

Zelan atara lei autu au batzar batera, oraindik mutilla bizi dala?

Orixe errazoa!

Berari zelan lagundu leikion iñor konturatu zarie?

Zelan lagundu?

Gaixotegiko gastu eta premiñetan?

Erriak egingo dauza ori.

Erriak? Zeiñek aginduta? Auteskundeak eurak irabazi zituela ta gure aldekorik ezer erabagi nai ez daben orreik, onelako gauza bat erabagiko dabelakuan?

Gure kontzejalak batzar berezi bat eskatzea dauke. Ikusiko dogu erriaren aurrean ukatzera ausartzen diran.

Zetarako batzarra?

Ez dogu esan ba ori erabagiteko?

Alkateak ez dau onartuko orrelako batzarrik.

Zegaitik ez?

Abertzale zar orreik ez dabe onelakorik aztertu nai, erriko batzarrak politikaz kutsututen diardugula-ta.

Alkatea danon artean Udaletxean sartu eta beartu egingo

genduke orretara.

Nire ustez batzarra egitea lortu egin bear da. Eta erri asanblada onetan erabagiten diran gauzak bertan aztertzeraz beartu. Nire ustez.r. Andoni zauritu eben zaindaria auzitegira salatu bear dau erriak.

Ori ontzat artzekoa da.

Emengo danok bat gagoz orretan?

Bai, ondo, ori, aurrera eta orrelako berbak entzun ziran, baietza emoteko.

Beste bat, zaindari ori geiago ez daitela erri onetan agertu.

Orreri be baietza emon jakon.

-Beste bat: Andoni erri gudari aukeratu, eta bere gorabera guztiak erriaren kontura sartu. Ez?

Onetan be danak baiezko ziran.

Zenbat izen bear dira batzar ori eskatuteko?

Sei kontzejalek izenpetu bear dabe, baiña bat baiño ez dogu gure aldekorik.

Eta lege ori ezin lei kendu? Kopletan ibili bear gara beti?

.....

Ortik aurrera ez eban geiago entzun nai izan Susane'k.

Batzarra laster amaituko zan bildurrez, gero jende artean ez ibilteko, naiago izan eban aurrea artu, eta berak eukan asmo nausea bete.

Uste bako aukera a eukiteak gauza askoren jakitun ipini eban, eta gerorako ikasbide bat emon.

Beti onelaxe.

Zapalduak dira.

Zapalduak? Eta nai dabena egiten? Oneikin zabiz?

Ba dakizu ezetz.

Andoni'k sartuko zaitu.

Oraiñarte nire eritzia aintzat artzen jakin dau.

Ezkontz aurreko jokoak. Gero...

Andoni berean dabil. Gauza bat da erri lanean ibiltar Besea etxeko maitasuna billatzea.

Ai ene! Denporak lekuko.

Ni ez nabil... emaztetzako baiño.

Katean sartuta.

Ez daukat kaleko andre izateko asmorik. Len be etxa maiteago dot nik. Ba dakizu.

Lanak eukiko dozuz.

Zeuk ez al daukazuz, labanago zabiltzala pentsatuarren?

Atera eldu eta agurtu be ez ziran egin.

Adiskideari ez eutsan esan nora eioan.

Andoni'ren etxera zuzendu zan.

Atea jo ta Jose Zugaza zarrak urten eutsan.

Emendik?

Lagako daustazu sartzen?

Etxean zagoz. Ze barri? Barri txarren bate

Ez dakit ezer. Zuzenetik ezer be ez.

Oraintxe, ortik igaroeran...

Zumarditik? Zer diño?

Ba txarto dagola. Obarik ez daukala. Egin dabena txarrearako geiago izan dala...

Arrebak ez dau deitu.

Bilbo'ra joan zan?

Bai.

Ta bakarrik zagoz? Afaldu dozu?

-Kafesne pixkat.

Naiko zenduke zerbait gertutea?

-Jaungoikuagaitik!

Orixegaitik, Jaungoikuagaitik

Baiña... baiña... Lotsatu egiten naz.

Zegaitik?

Ez dakit ba.

Ba dakit zuen etxean ez nabela ondo ikusten.

Nok esan dau?

Politikako pikeak, erritxuetako pekatu nausi izaten dira.  
Jakingo dozu liberala naizela.

Ta zer?

Zuen etxerako asko.

Politikan ez al da libertaderik bear?

Baiña zuen edo zure gurasoak karlistak izan dira beti, gogorrenetariak.

Bai, ala dirudie.

Ta gu... erri pekatari izan gara areintzat.

Ez egizu gogoratu denpora zarrrik. Ez jaramonik ordukoei.

Zarrago ta gogorrigo ez dabe esaten ba?

Esana bat eta izana bi.

-Ba dakit gure Andoni'gaz zabiltzala...

Bai.

Mutil ona da.

Niretzat bai.

Erri gauzetan sakon sartu da.

Ala dirudi.

Origaitik gurean ez ziñala sartuko esaten eusten, gaitz izango zala...

-Jendearen esanak.

Eta sinistuta nenguan.

Ara ba. Siniskera txar bat artuta zeunkan.

Bai, bai... Ezin sinistuta nago, baiña bai... bai...

Zer egitea nai?

Zetan?

Apalduteko.

Ene! Ni edozer jaten oitua nago. Zuek fiñetako zarie. Ni ugari ipini ezkerro, edozer.

Porrurik ba daukazu etxean? Eta patatarik?

Bai, orrek bai.

Eta gertuten asi ziran.

Jose'k pozik lagundu eutsan Susane'ri patata batzuk zuri-tzen.

Orretan inãarduela, atea jo ebenr

Jose berak urten eban atera.

Asanbladatik gatoz.

Ta?

Andoni'ren gorabera ikusi artean, bazkaria eta apariaren kezkarik euki ez dagizula gura dogu. Origaitik Katalin'enian jango dozula erabagi dogu ta ori eskatuten gatoz.

-Katalin'enera joateko? Zetan?

Zu ez arduretu. Erriak ordainduko dau.

-Erriak zer?

Aren kontura joango da dana.

Baiña nik ez daukat premiñarik.

Arreba Bilbo'n ez dago ba?

-Bai.

Arek ez eutsun jatekoa gertuten?

Bai, a egoten zan emen laguntzen.

A etorri bitartean...

Ba daukat nok egin.

-Benetan?

Une onetan aparia gertuten nago.

-Ez guzurrik esan.

-Kezka\_ barik egon.

Kezka barik zeu joan jatetxera. Berba egingo dogu.

Sinistu egidazue...

Ez dogu nai zuk zela-ala, beti be txarto, zeure jatekorik 'egin dagizun.

Ba daukat zeñek egin etxian.

Eta bat, lotsabakotuta, sukaldera sartu zan.

• Eta arrituta geratu zan. Pentsatu be egingo ez eban bat, gixien uste ebana ikusi eban an.

Zer esan ez ekiala urten eben.

Kaleratu ziran eta zein ikusi eban esatean... besteak zurbildu ziran. Eta bat batez esan: Erriak ez dagiala jakin, bestela biar iñok ez leuke ibillaldian joan naiko eta gitxiago bere etxe aurrean presoen askatasuna eskatzen jardun.

.....

Danean sartzen dira.

Ez neban nai ikusterik.

Ez dabe baimenik be eskatu.

-Erraz artzen ditue gaiñak.

Dana dala ba dakie Andoni'gaz zabiltzala.

Baiña nire izatearen uste okerra dauke.

Niri be fatxista daitzen dauste.

Eurak lez pentsaten ez daben guztientzat dauke berba ori.

Andoni asarratu egiten zan ori entzutean.

-Ezagutzen zaitulako.

Ba daki ni liberala naizena. Eta nire izaterik *ez* dodala salduko.

Berari be aitaren kutsua emoten dautse.

Nik sekula ezin pentsatu al izango dot eurak *lez*. Ez da elburuen gauza. Endazko gauza bat lez da. Denporen aldia, ikas-teena, giroarena, ez dakit zer esan.

Nire gurasoekin bardin gertaten da.

Areik ni baiño ertsiago dira.

Zer da ori?

Ni baiño sarratuago dirala eurenean.

Etxean ez da igarten.

Ni erdi pekatari naizela ez dautsue iñoiz esan?

Liberal guztientzat dauke pentsaera ori.

Barru-barruraino sartu eutsen.



Orretan ondo zabiltz.

Gure mundua eta gaurko oneina ezin leiz bardiñak izan.

Sentimen asko dagoz guk laga ezin geinkezanak.

-Oneik berbarik ugariena «apurtu» erabilten dabe.

-Orregaz konturatuta nago.

Guk «egin» esatén gendun. Egin edo eutsi. Bataren eta bestearen on eta mesedean.

Ori da nik Andoni'ri esaten dautsadana be. Lengo onari eutsi, ez lengoa dalako ezetsi. Orretan daukala naiko zer egin.

Urteetara irabazi egingo dabe. Ez curen gogai eta elburuz, bildurraren indarraz baiño. Eta bizibidea obetutean, ondo dagozan askok dauken edo artzen daben ardura-ezagaitik baiño. Baiña guri eurak baiño, eurei euren semeak txakurrago urtengo dautser

Ala uste?

-Urte batzuk bizi ba zara, ikusiko dozu.

Ez da bakarrik zurea siniste ori.

Giroen indarra da. Eta gizadiaren aurrerapenaren ondorena. Len eun egunek aiña ez dau irauten gaur egun batekr

Appertu?

Gaurko aditza ez da aspertu, apurtu baiño.

Gaur kantu bat egitera ba zuaz, ez zara asiko Gora ta gora esaten. Ori istorian galdu zan.

-Gaurko agintarien imnoa ez al da ori?

Lengoen oroitza Lendik etorria. Gaztaien ke usaiña lez. Baiña noiz arte?

Gaur «jo ta apurtu mutillak» edo orrelako zerbait sartuko leuke. Ez dozu ikusten apainduren itxura guztia estaldu dautsen ormetan zer agertzen dan? Gogoratu. Lemoiz apurtu, portua apurtu, kateak apurtu, oitura zarrak sutara. Bata kanpora, bestea zatitu. Bata zigortu, bestea birrindu.

Gure zarrei baiño geiago atsegin jatsu politika.

Naiku egin eben iru gerra galdu eta beste berrogeita amar

urtetan itxaropen onean bizitea.

Ta zuri? Politikarik atsegin?

Izenik be ez.

Niri be ez. Baiña zertaz berba egingo gendun biok, amesetan nabillala ta dirudian gau onetan?

Orrelaxe, kontu kontari, aparia amaitu eben. Pozik egoan Jose zarra, bere erraiña ezagutu ebalako be.

Zetan eta da gure Andoni?

Bildurra daukat. Zauri txarra izaten da ori. Buruko gauzak beti lagaten dabe zerbait.

Ez dot esan ezer etxean. Baiña biar Bilbo'ra joango ba nitz, poza artuko leuke, ez?

Bai, ezaupidera etorri ezkerro.

Ba dira, atzerarik gertatu ezik, orretara etorteko orduak.

Eta nigaz zu zeu be joango ba ziña?

Ni? Negar ta negar egiten egotera? Gu zarrok errez daukagu malkoa arpegian bera.

Eta ez dozu uste zu ikusteak ni ikusteak baiño geiago poz-tuko leukela?

Gurasuok galdu gendun gasteen begirapena. Nik ba dakit zek poztuko leuken a: zu ta ni alkarregaz ikusteak. Orrek bai.

Zer esanik ez emotearren, eta autobusetako eguneroko ibiltariei berbalekurik ez emotearren, Susane'k taxisa atarako ebala, eta eguna zabaldu orduko gertu egoteko eskatu eutsan Jose'ri.

Birritan esan bearrrik ez eban euki, zuritzeko.

Apal osteko garbiketak egin eutsazan. Alkondara eta abarren lixiba egin bere bai.

Eta Jose berberak esan eutsan, minduten ez ba zan, errosarioa errezatuko ebela.

Zurbildu egin zan Susane.

Erresarioa?

Zegaitik ez? Gure etxean beti zaindu dogu oitura ori.

-Liberalak izanda?

Zer dauka zer ikusi politikak barruko fedegaz?

Eta parkamen bako erri pekatariak ziñela-ta.

Karlisten zirrikada zan ori.

Zirikada baiño geiago da: salaketa.

Nik dakidana da gurean oitura ori sekula ez zala galdu.

Eta Andoni?

Andoni be, etxean gertatean, ez zan aldenduten amaitu arte.

Areñagun, azkenengoz, nire arreba, bera eta ni gertatu giñan, eta irurok betiko oituran jarraitu.

Beartu barik? Indartu barik? Gogoz?

Beartu ezker ezetz esango eban, bear ba da. Baiña sekula orretara ez dogu indartu. Ezer esan barik, apaldu ostean, arrebak asi ta besteok jarraitu. Teleirratia ixilduta gaiñera.

Ez nekien ori.

-Orain ba dakizu. Eta ez diñotsut arrokeriz.

Eta biak, zarrak esan eta neskak erantzun, gaiñeko garbitasunak egin bitartean orrelaxe egin eben.

Pozik egoan Susane, beretzat ezaugarri bat geiago artu ebalako, eta bere siniskeretako etxea billatu ebalako.

Zeregiñak amaitu ondoren, etxerako ustetan kalera urten zanean, usterik gitxienekoa: An egozan iru andrazko, noiz urte-ten ete eban zai. Betiko ikusmin eta jakin-miñak.

Guzurrezko irribarrez agurtu eben.

Gertu gengozan gu be Jose zarraren garbitasunak egiteko.

-Nik ez al dakit?

Etxe andiko alaba zara-ta!

Iñor ezagutu izan dozue gurean garbitasunen serbitzuan?

Poltseari eustearren zuen zarrak.

Mesedez, nire zarrei baketan laga.

Zeuk be Andoni'ren aitari, a ez dagon artean, bere tokian laga.

-Zegaitik?

-Miñez dagon artean zeure erara biurtu nai? Fatxista biur-  
tzeko asmotan?

-Nok esan dau ori?

-Atetik oartu zaitugu beatakeri eta txotxinkerietan.

-Etxe orretan ez dot besterik egin bertako oiturei jarraitu  
baiño.

-Nungo oiturak? Zeuonak izango dira, sotana eta habitu  
artean bizi zareonak.

-Mesedez, laga eidazue nire bidean.

-Kontuz, beste baten etxe onetara urreratzean.

-Gizartearen onaren billa zabiltzenak zarie zeuok?

-Sorginkeriak kendu nai doguzanak.

-Azkatasuna aoan eta diktadura gogoan?

-Azkatasuna zer dan ikasi al dozu iñoiz etxean?

-Zer dan ikasi barik, bizitea da bearrezko. Eta ikusten dot,  
ikusi zoritzarrez, zer dabillen gure artean.

Geiagoko barik, bere bidean jarraitu eban Susane'k.

Barruko bildurrez.

-Kaletako bakartade arek, berak uste ez eban lako kezka  
sartzen eutsan.

Bildur zan andre areik jarraitu eta zerbait egingo ete eutsen  
be.

Kale kantoira eldu zanean, atzera begiratu eban.

Jose'ren etxe aurrean jarraitzen eban.

Gabaren illunean ez eban igarten berari begira ala euren  
arteko kontuan iñarduen.

Etxera eldu zan.

Aita lotara joana zan, baiña ama kezkaz egoan itxaroten.

Zer egin eban esan eutsan.

-Pozik nator, ama

Karidadea egin dot gaur. Baiña nik be karidadea ikasi dot.

Zelan?

Eta amari, asieratik agertu eutsan Jose'ren etxean gertutakoa.

Orren etxean ori? Domeketan ozta-ozta eleizara joaten da-ta?

Ama, fedea biziteko, santu guztien beatzei musuka ibili bear al da?

Gau aretan ez eban lo askorik egin.

Bere ekintzaren poza eta geroko andren amurrua gogorazten zituan. Biak nastean erabillazan buruan.

Gaitz, berari, iraultzaille jendearen artean gero ta geiago igarten eban ertsitasuna eta gogorkeria iruntzitea.

Beste edonun pozik ikusiko eben egitada, edo ta geien be, neska mutilletako batek etxean sartzeko edo sartzean euki leiken guraso barrientzako begirapena be txarto ikusteak, sututen eban.

Zearo nekatuta eldu jakon goiza.

Lotara joan ez eta baiño txarrago.

Gorputza ezin jasota.

Amak, ain goiz gertaerak egiten ibilteko, nora eta eioan itandu eutsan.

Bilbo'ra.

-Aitari esan barik?

Ume lez oitu nazue-ta.

Ez neuke nai bera asarratzerik.

-Ama, onezkero onelako urteetara oituak egon bear ziñateke. Gaiñera egia esango dautsut: Jose'gaz nua.

Jose'gaz bai, ez arritu, Andoni ikustera.

Uste dozu, zentzurik etorri ba jako, bera aita ta ni ikustean ez dala poztuko eta indar barritzen asiko?

Ametsa, ilusiñoia sartu bear da bizitzan.

Biziak ez leuke pozik ez indarrik, onelakoxe gauza batzuk bitarteko ez ba leukez.

Eta nik, biar edo etzi berari eskiñi bear ba naz, zer egin neike orain beragaitik, orrelakoxe egitada bizigarrien bat ezik?

Baiña aitari esan barik...

Egun guztian ibiliko da marmarrean. Eta nire gain jausiko dira egurrak.

Aitari esan egiozu zeuk. Zuk ba dakizu nai dozunean gauzak zuritzen. Zetarako zara ba ama, alaba bakarrari ez laguntzekotan?

-Zeueri komeni jatzunean, ori.

Ez nazu ikusten, ezkondu aurretik erdi alargun?

Gero be zuk zorionik eukiko dozunik...

Zoriona artzen jakin bear ei da.

Artzea errez, iraun eragitea gaitz.

Ori dakianak daki. Ni oraindik linboan nago orretan.

Etzetik urtetera eioala, beko atean, ate azpitik sartutako karta bat billatu eban.

Erriko iraultza taldeak egiña zan.

Zabaldu eta irakurri:

«Karlos Emaldi'ri»

Errian

Erritarra:

Ba dakizu azpaldian estaduko indarkeria gure erriagaz nau-situta dabillala.

Eta erritar gazterik onenak aidean dabilzela egunero, bata jo, bestea zapaldu edo ta zauritzen.

Azkenengo egitada, aste onetan.

Andoni, gure batzarrekoa, il zorian dago gaixotegian, emen emon eutsen gomazko tiroagaitik, eta iñok ez daki, osatzen ba da, zelan geratuko dan.

Aren aita, Jose Zugaza zarra, laguntasun barik geratu da, erriko emakumeak txandaka zaintzekotan.

Bere gastuak ez jakin zenbat izango diran, baiña millak pe-seta izango dirala ba dakigu, gaur gaixotegi eta klinikak kentzen

daben aiña diruen neurrian.

Jose'ren laguntza be, zaindu bear dabenak galtzen daben alogera emon, janari eta abar, dirutza bear dabe.

Gastu guztiei aurre emoteko, eta ordaindu al izateko, iraultza talde onek ez dauka ezelako ondasunik, eta dirutza bat lenengotik batzea premiñazko dau.

Lan bako asko dagozala errian kontuan eukita, eta beste batzuk borondatea eukiarren, ezingo dabela uste izanik, eta arrantzaleak be euren goraberakin urte txarra euki dabelako, daukenen artean kuota batzuk ipintea erabagi dogu.

Lenengo batueran, zuri, berrogetamar milla peseta eskatzea erabagi dogu.

Aste bete barru diru ori gure kontuan bearko dogu, beste-la beste neurrien bat artu bearko genduke.

Iraultza taldeak

Atzera begiratu eban amak ikusi ete eban bildurrez. Eta pentsatu lez an egoan.

Zer da?

Ezer ez, ama.

Karta bat ez da ba egon?

Gaurko goraberen zabalkundeko gauza bat. Ez dauka garrantzirik.

Guretzako da?

Erriarentzako.

Obe ez jakin, aitak pekatua besterik ez dabillala gure artean pentsatu ez dagian.

Eta bere boltsan sartu eban.

Negarrak urten eutsan.

Atzoko andren jokoa, esan eban beretzat.

Zeiñek egiña ete?

Ez dau izenpetzen.

Erriko taldeak\_ Baiña erriko taldeak ezin au egin.

Ezin lei iñor beartu.

Ezin lei iñor salatu.

Iraultza batzordeak, ba daki gaiñera, Andoni eta nire artean dogun artu-emona.

Ba daki aren aita Jose'k, gaur gaurkoz, ez daukala jateko diru premiñarik.

Ba daki arrebak laguntzen dautsala bizi guztian, alargun geratu zanetik, eta erdi bana daukezala euren ondasunak.

Andoni'rena beste gauza bat.

Baiña Andoni gizarte babesez ondo orniduta dago ta ez dot uste bere gaixotasunak zorrik eragingo dautsanik.

Pentsabide orreitan eldu zan Jose'ren etxe aurrera.

An egoan au zintzo gertu, eta taxisa be laster agertu zan, emondako orduan.

Itxuraz, iñok ez zitun ikusi.

Ez eban nai Susane'k iñok ikusterik be.

Bezperan gertatutakoak ikusita, eta geroko karta ori irakurrita, gitxiago.

Etorriko ziran egunak, gauzak bear lez aztertu eta argitu bearrekoak ikustekoak.

Baiña, orain, Andoni zan danen gaiñekoa.

Gaixotegian kezka ez egozan.

Bere izekoak nunbaitera urten ebala, ez zala agertzen eta artega ta kezkatu egozan.

Andoni'k ez eukala zuzperraldirik, ez eukala obekorik. Eta izan eikeala gitxien uste eben unean, bertan bera gelditzea

Miñak arindu eutsezan eta an igarten zan inkesaka.

Azken igortza emoterik nai ete eban, itandu eutsan bere aitari.

Itandu bearra dago?

Olako gazteen artean, fedeko laguntzak zirala-ta, atsekabe asko eroan doguz.

Aita lez agintzen dot, azken eleiz laguntzak emoteko, premiñarik ba da.



Eta bereala deitu eutsen abadeari.

Onek, gaixotegietan oituta egoten diran abadeen oituraz, atsekabe agerpen andi barik egin eutsazan otoitzak.

Besteak an egozan inguruan.

Begiak malkoz erreta, Jose'k.

Susane, itxaropena sartu nairik, dana galdu arte itxaropena euki ta zaindu bear dala-ta. Baiña bera be gero ta barruko itotasun eta naigabe geiagoz.

Izekoa be agertu zan. Batera ta bestera urrutizkiñez deika ibili zala-ta.

Alaxe iraun eben ordu bete inguru.

Gero, gelatik urteteko agindu eutsen.

Kiروفanora eroan bear ebela, azken ikustaldi eta ebakizunen bat egitera

Anda txiki baten, izaraz estalduta, euren artetik eroaten ikusi ebenan, azken agurra egin eutsen irurak, ixillean, bakoitzak bere samiñean, geiago bizirik ikusiko ez ebalakuan.

Osagilletako batek esan eutsan:

Mutil gogorra da, baiña zauria be ia ilkorra Barruan daukan odol batua bigundu ezik..r

-Ainbestetan?

Zoritxarrez, bai.

Eta aita liberalak, an negarrez egon edo ez bardin zala-ta, errosarioa egal baten errezatzera eroan zitun andrazko biak.

Kiروفanotik biurtzean, itxaropen lako zerbait emon eutsen osagilleak.

Ordutako gauza da.

Izan lei gainduten astea.

Ba dirudi biguntzen asi dala.

Ala ba litz, berera etorten asiko da. Eta ezagutzen asi lei. Zorioneko izango ziñateke.

Nai ba dozue, egon ziñeike.

Ordu bi iru barru euki lei onelako bizialdi bat. Ortara egin

ezik, etxera eroan bearra be gertatu leiteke.

Bizirik etxera?

Oraingo ez pentsatu orrelakorik.

Il da gero ba litz, autopsia egiñarte ezingo litzake atara. Oraingo gertaerak burukomin asko ekarri izan ditue gaixote-gietara, borondate onez bizitzakotzat ataraten laga ta gero erio-tza auzitegietan epaitu bearra egon danetan.

-Orrela dala eguerdi ondorena ikusi ondoren, ekarri dogun kotxean biurtu ginkez batzuk.

Eta Susane'k geitu eban: Oker ez ba deritxazue, ni geratu nei egun bat edo bitan. Eta zuek, biok, etxera joan. Onela etxe-ko zeregiñak iñok egin bearrik ez da egongo.

Gero izeko etorri daitela ta ni joango naz ta aitari lagundu, bere bazkaritxoak egiten.

Zure gurasoak ez dabe ezer esango?

Nire gurasoak ezin lei ezer esan, bizi guztian eurak gogo-ratu izan daben karidadeko ekintza baten jarduteagaitik.

Gaiñera, azken gertaera ondoren, orrelako zerbait egin bearrean aurkitu bearko nitzala ezagutzera makurtu dirala uste dot. Bestela jokatzea, niri neuri bere, maitasun gitxi agertzea li-tzake.

Esan eutsen lez, eguerdi inguruan bere albotik kendu barik egoan neskantil gaixozaiñak deitu eutsan: Ba datorrela esan lei. Zirkin egiten asten da. Begiak zuzendu eta indartzen igarten ja-koz. Leike, leike argitzen astea.

Adi geratu ziran danak bere inguruan. Bere igikada batik ez eben galtzen. Bere esnatze mintsu a..., mintsu izanarren da-nentzat pozgarri zan.

Zaindaria esan eutsen urteteko, gelatik kanpora urteteko, irurak an ikustean, arrada gogorren bat eroan ez egian. Obe izango zala, ezaupidera etortean, banaka sartzea. Errezago eza-gutzeko, eta bere egoeraz bigunago konturatzen asteko.

Alaxe, oraindik indarrak ezin lotuta ebillala, izekoá sartu zan lenengo.

Ezagutu nai, alegiñak bai, izekoak. Baiña oraindik Andoni illunegi ebillan.

Zaindariaik kentzeko agindu eutsan, andik aldentuteko. Lagateko, geldi lagateko baketsuago berera etorten.

Izekoa an egonarren, beste irudimenen batzuk geiago erabilazan gaixoak.

Ordu bete inguruan an ibili ziran, ia minutu bakoitzeko zelataka, noiz ezaupidera etorriko.

Alako baten izekori ezaupide lakoa egin eutsan, baiña berbarik eta bestelako agerkizun andi barik.

Aita sartu zan gero. Aita an ikusiarren, ormei begira, nastea lakoan ikusten zan. Begiratu batari ta begiratu ormeí. Ez jakon igarten urteera bizirik.

Aita naigabez aldendu zan gelatik, oraindik ezaupidera etorteko asko bear ebala-ta.

Zaindariaik esaten eutsen azken orduan egin ebana, onerako itxura zala. Geldi, bai. Astirotsu ta nekez.

Osagillea etorri zan. Berba gitxiko ta bere bosteko. Ikusi eban. Ikusi ta aztertu. Zeatz. Pultsu, sukar eta abarren orria aztertu be bai.

Urteeran etxekoei esan eutsen:

Zuek ainbat ariñen ezagutzea naiko dozue. Egon nasai. Ba dator. Oraindik ze ikusi asko dago, ori bai. Geroago ikusi bearko da bere zauri orrek ze ikututen dautsan, zelako zain eta zatiak lertu eragin ete dautsazan.

Ba dirudi ikusmena lortzen datorrela, alaz eta leike gor geratzea edo ta motel.

Ni ezagutu nau, esan eutsan izekok.

-Ez uste. Zuk bai nai, ez? Baiña berezko kiñuren bat izan eikean, eta zuk zuretzat artu.

Eriotza urrundu da?

Ze ikusi asko dago oraindik. Ba dirudi baietz. Baiña ez dogu ainbeste esateko eskubiderik. Gauza uts bat naiko da, odol batuak zabaltzea naiko, beste zerbaiteri ikutu eta dana bertan

bera lagateko.

Oraingoz itxaropena euki egizue, baiña neurritz. Ez ziur-ziurra. Etsipena baiño ziurrago bai.

Orrelako gauzak entzun ondoren, ia irurak an egotea me-rezi ete eban, itandu eutsen.

Osagilleak bat naiku zala an, erantzun eban. Gabari bildur gitxi eukanen bat.

Ori entzun eta Susane'k:

Asarratu egingo ziñateke biori etxera joateko eskatuko ba neutsukie?

Kotxea nire kontu. Atean dago. Ez ordaindu. Ni konponduko naz beragaz.

Ez olakorik.

Eta nik nai ba dot?

Gure kontura joan bear da.

Mesedez, ez orrelakorik.

Asarratuko nitzateke, benetan.

Ni geratuko naz gaur eta biar. Eta etzi, ikusiko da.

Izekori eskatuten dautsat gurean esateko gaixo zain geratu nazala. Jantzi aldagarriak ekarri dodazala. Kezka barik egoteko.

Gelan sartu ziran.

Konturatu ziran oraindik Andoni bere amets eta irudi illu-nei lotuta ebillala.

Aitak mosu bat emon eutsan bendaz beteta eta ozta-ozta agertzen jakon bekokian.

Izekok eskutik oratu, eta igortziak emoten euki eban, lazta-nez.

Susane, adoretuta lez, bakarrik geratzean, nortasun berezi baten jaube lez igarten zan.

Illuntzean Jose eta bere arreba errira eldu ziranean, emakume bi billatu zituen etxearen atadian. Laster konturatu ziran garbiketak egiten iñarduela.

Zeñek agindu dautsue?

-Erriak.

Zeñek?

Asanbladan erabagi zan.

Zer dala ta?

Batzarrari itandu..

-Gure baimen barik?

Guk ango erabagia beteten dogu.

Gu ez al gara iñor?

Poztu egin bear ziñateke.

-Ez al dogu egin oraiñarte?

Ez dogu ukatzen.

-Illik dakarre?

Zein?

Zein izango da?

Zeñek esan dau il danik?

Guk dana garbitu dogu, gure ustez ondo, gertatu leikena-  
ren orde.

Nok zabaldu dau atea?

Atadia beti zabalik ez al da egoten?

Baiña goikoa.

Ba genkien atadi onetan eskegita lagaten zenduela giltza,  
urteera eta kanpora joan bearretan.

Ta etxe barruan sartu zarie?

Bai, ta esana lez, dana garbitu.

Ez dakizue ezin leitekela iñoren etxean sartu?

Gauza guztiak garbi eta txukun lagateko agindua artu  
gendun. Agindua edo premiña erakutsi.

Ez dakizue ezin leitekela iñoren etxean bertakoen baimen  
barik sartu?

Guk esana bete dogu.

Baiña ta legea? Eta bakoitzaren eskubidea? Eta bakoitzaren

etxearen lotsa ta begiramena?

Ezer falta ba da, guri dagokigu erantzutea. Besteagaitik ez asarratu.

-Ez da ori. Ez dakizue iñoren etxean sartzea zaindu nai dogun legea austeaa dala?

Zaindariaak ez dira sartzen nai dabenean ala? Gurea ain zuzen, legea austeaa ta areina eskubideak zaintzea?

Ez da ori kontua.

-Dana euki bear dogu goguan.

Baiña norberak aitzakirik billatu ez.

Errazoirik emon be ez.

Mesedez, andrak. Gauzak dagozan eran laga eta joan zaitez emendik.

Erriaren gogoaren aurka zagoze?

Bakoitzaren eskubideen alde.

Guzurra dirudi Andoni'ren aita zareala, Jose.

Guzurra dirudi egunero bakoitzaren bizilekuaren duintasuna, azkatasuna eta osotasuna eskatuten diardugula.

Baiña gu onean sartu gara.

-Onean sartu nai txarrean, ez al da beti be gure eskubideen legea apurtzea?

Orrelako pentsabide ta gertaera barik egoan Susane gaixotegiko gelan.

Orduak aurrera ta itxaroten. Minutuak ordu ta orduak egunaren luzetasunez iruditzen.

Nekez, nekez etorran argitzeari begira.

Maitasunaren otsein egoan, ia konturatu barik. Sekula bere buruari igarri ez eutsan duintasunez.

Eta ametsetan. Kezketan aiña ametsetan. Geroari begirako amets luzetan.

Andoni'k, esnatzean, zelan artuko, zelan eroango, ta berak zelan erantzungo.

Gerokoa urrun geratzen zan.

Lengoa, neurtu eziñeko atzean.

Giro barri bateri erantzun bearrean egoan. Gertu bako erantzuna emon bearrean.

An egoan, Andoni'gaz edozer gertatuta be, berak erabagia artu bearreko egoeran.

Gaixo-zaiñak igarri eutsan.

Igarri eutsan, une batzutan, beste askok esaten ez zituen pentsabideak agertzen zitula.

Konturatu zan, an egonarren, artu-emon gitxi edo berezikoen bat eukana zala.

Kutunak ziñen?

Bitarteko askogaz.

Asarreak? Zeiñek ez?

Ez, ez da ori. Maite giñan, alkarren begiko giñan, baiña ez dakit zer esan be.

Urteetan, dirudienez, Eleizako atea zabalik eukiko dozue.

Ez da ori.

Ba dakizu. Len be esan dautsut. Bitarteko asko.

Oztopoak?

Oztopoak geldi geldi gaindu egiten dira. Baiña beste zerbait. Ez dakit, ez neuke jakingo zeatz azalduten.

Olakoari nire lagun batek ba dakizu zelan deituten eutsan?

Maitasun kontuan edozer esaten da

Loratu bako maitasuna.

Ez da ori be.

Asi ondoren damututakoa?

Bai zera! Kontu egin zuk maite dozula bat.

Maite neban bat, bai, baiña Ameriketara joan zan eta geiago ez da gogoratu.

Alproja?

Zezen suzkoa.

Nire gertaera ez da ori. Esan lez, kontu egin maite dozula bat, eta bera be zugaz dagola, ziur, zugaz dagola; baiña zuen birtartean beste norbait dabillala.

Ori bakorik iñor egoten al da?

Ez diñot beste gu lako bat. Gaitz da esaten, gaitz.

Ara, esatea lez, erraza da erriko lider bat maitatzen. Baiña erriko liderrak berea al dau biotza?

Besteen antzera. Batzuk burutasun batzukin eta besteak bestekin.

Berea dabela uste?

Zeiñena ba?

Eta erria bitarteko ba da?

Erriarena? Sinisten?

Ezin al leike?

Askok maitatu bear da erria, norbere maitasunen gaiñeko eskintza berari egiteko.

Andoni au olakoxea zan. Eta izan be egingo da, bizi ba da

Ixillago berba egizu.

Gogorregi nabil?

Igarri barik, bai.

Ez gaitu iñok entzuten.

Ez jakin. Bear ba da orrek.

Andoni'k?

Gaixoak sarri, ingurukoak uste izan ezarren, inguruan gertaten dan zarata eta berbaro guztia artzen dabe.

Ariñago esnatuko litzake.

Edo ez. Barruko naste geiago eukiten ei dabe, ezer egin ezin dabela konturatzean.

Benetan?

Euren gogortadea, edo zoraldia edo burutik berakoa igarotean, askok gogoratzen ditue ixillean entzuten egozan berbak.

Ene ba da! Ez dogu beintzat gauza t carrik esan.

Ixil zaite. Pultsoa artu bear dausat.

Ordu berean, erriko zumardiaren erdian, korroan, oiturako erri batzarra egoan.

Berrogei lagun inguru batu ziran. Sei-zortzi alderdi edo



taldetako ta nastetsu batzuk.

Euren artean txokolate kolorekuak deitzen eutsen euri. Eurak izaten ziran geienetan eskabide edo urteeraren bategaz bestien berotasun asko epeldu eragiten zituenak.

Batzarra asi ta laster, garbiketako emakumeak Jose'ren asarea agertu eben.

Eskubideak, eskubideen giltzak erriak eukazala, erriarenak zirala eta jaramonik ez jakola egin bear, esaten asi ziran batzuk. Bera oraindik gai zalakoan esango ebalaa...

Ez ziran danak eritzi bardiñeko.

Etxearen nortasuna, eta jaubetasuna, zaindu eta lotsaz begiratu bear zala, urten eben batzuk.

Txakurrak ez dabela orrelakorik egiten, albotik zirikalari eta gaizto, batek.

Ori alaxe zala, baiña areik eredutzat artu ezkerro, alperrik iñarduela joan daitezala eskatzen.

Dana zala, Jose'ri laguntzea premiñazko zala, Andoni gai-xotegian egoan bitartean. Jose berari mesede egitearren baiño, Andoni'ri erriaren beragazko batasuna erakusten geiago zala. Obe zala izeko gaixoaren ondoan egotea.

Iñor ez zan gogoratu Susane'gaz.

Ez egoan egun aretan gai askorik, eta kalejira egitea ontzat artu zan, azken egunetako eran.

Orrela, egun onetan be, Karlos'en etxe aurretik igaroeran, geratu aldi bat egin eben atadi aurrean eta beste egunetan lez «Itziarren alaba» eta «Txoria kaiolan» abestu zituen. Eta gero, betiko eran, «presoak kalera» deika úrrundu.

Karlos eta emaztea sukaldean egozan.

Garbi entzuten zan bertatik kalekoa.

Egoera garraztu jakoen.

Zure alabaren lagunak!

Ez jakin lagunak diranik..

Ez esan ez dakizunik. Nun dago ba bera? Ez al dago orain be euron buruari laguntzen?

Aren maitasuna da bat. Bestea, eta ez alkarregaz bardindu, oneik nai daben maitekeria.

Ez dakit zelan izan ziñeiken ain fede oneko.

-Zuk baiño obeto ezagutzen dot nik alaba.

Aginpide asko ez daukazu beragan.

Zetarako?

Oraingo berotasun edo kasketaldi ori burutik kendu al izateko.

Kendu al eutsuen zeuri?

Beste denporak ziran.

Baiña ez nitzan ni zuretarren gogoko. Ondo zenkian. Eta gogor erabili zinduezan.

Etxeko goraberak, baiña ez orrelakoak.

Dana dala, zu burugogorra izan ziñala.

Esan beti ori.

Eta eskartuten dautsut. Ez dozu esango zintzotasunez erantzun ez dautsudanik.

Sekula ez dot esan.

Eta zuri sartu nai eutsuena...

Ba dakit zer esango daustazun. Betikoa.

Ez zala beti toki baten abia egiten ekiana. Txori ibiltari eta kaskariña zala.

Ta? Jarraitu al neutsan?

Gurasoen jokabideagaz gabiltz, ez seme alabenagaz.

-Baiña onein jokabide au... Orain arte egin danaren aurka dua. Lotsagarri da.

Ez dozu ikusten gure izate guztia, guk maiteen dogun guztia, arrika darabilela?

Alabak diño, Andoni'k bere eritzi bereziak daukazala, ez dala gauza askoren aldeko.

Baiña or dabil. Eurakaz dabiL Eta aurrean.

Nabarmenkeritzat daukazala eskabide asko.

Baiña dibortzioa eskatzen dabenekaz dabiL

Gobernua bera ez al dabil gaurko ezkontza askoren egoe-

rari urteera bat billatu bear dala-ta? Eta dibortzioa legeztatu bear dala-ta?

Eta Eliza?

Orain mutu beintzat.

Pozoituta dago egon be-ta! Barrua janda lez dago-ta! Ezkerkeriak janda dauka-ta!

Eta alabak zer diño, ezkondu egin bear dala?

Egingo da alako baten.

-Benetan?

Ezpaian ipinten dozu ori?

Baiña noiz?

Noiz? Nik baiño obeto jakin bear zenduke ori.

Nik?

-Zeu ez ziñan egon, ba, mutillagaz?

Ez dakit zer esan gendun be.

Beti lez, zeure gustokoa izan ezik, zeuretik urtenda ibilten zarealako.

Urten eragin.

Urrunean, gero ta urrunago, erriko iraultzalien deadarrak.

Eta amaierako oiturazko kantua.

Gaur ez dautse zaindariak urten,

Beste askotan be ez.

Arañegun bai.

Egongo zan bitarteko zerbaitr

Etxeen bateko salakuntza edo urrutizkiñeko deiren bat.

Iñok ez dausku esango sekula olakorik egin dogunik

Niri atzeratu, itsu, karka eta nai dabena esan edo deituko dauste, baiña iñok ez dau esango nigaitik sekula salakuntza bat egin dodanik.

Eta ez daizula egin.

Atea jo eben.

Jose'ren arreba zala ikusi eben.

Sartzeko agindu be bai.

Susane'n aginduz eioala. Alkarregaz egon zirala gaixotegian. Lenago ezin joan izan ebala, kaleko ibillaldiagaitik.

Andoni zelan egoan, osagilleak esana, artu eben itxaropen aizea, zauriak zeri ikututen eutsan, dana erabili eban.

Susane berak nai izan ebala an geratzea egun bi edo irutan. Ortarako etxetik gertuta joan zala.

Kanpotik erriratutean etxeko atadian garbitzalleekin euki eben autua be agertu eban.

Ezelako gordetze barik, argi ta garbi jardun eben.

Andrak izan ziran bizi guztiko etxekotasuna euki ba eben lez, ordu erdi inguru ekin eutsenak. Karlos'ek ez eban aorik zabaldu. Ixil egon zan, alboan billatu eban egunkari bat irakurten.

Bitartean gaixotegian, gauzak berera etorten asiak ziran.

Neskatil gaixozaiña izan zan Andoni'ri bere esnatzean geldi-geldi konturatu eta arduratzen lagundu eutsana.

-Ikusten?

Ez dakizu nun zagozen? Ez zara konturatzen?

Ez ikaratu. Ez bildurtu. Gaixotegi baten zagoz. Bilbo'ko gaixotegian.

Andoni'k ez eban berbarik egiten.

Begiratu bakarrik.

Arrituta lez, sekula ikusi bako gauzak ba ziran lez, ango orma, leio, goi, inguru, argi, osagaillu eta abar.

-Gaixorik zagoz. Obeto esanda, zauritutar

Arañegun zauritu zinduezan. Ez zara gogoratzen? Zure erritik ekarri zinduezen...

Gomazko pelota bat izan zan, ez? Osatuko zara, ez bildúrdu.

Gomazko pelotak buruan jo zenduzan. Aurrean ziñoiazan erriko manifestapen baten.

Ez bildurtu. Orain ez zaitu iñok joko. Ori igaro zan. Ez dago zure aurkako iñor.

Geldi egon, geldi... Ondo zagoz eta ez estutu. Min? Eutsi, ez ibili asko, nasai egon, al dozunik geldien...

Dana barri, ezta?

Ni gaixozaiña naz. Ez nazu ezagutzen. Nik bai zu. Nik ba dakit Andoni zareana. Ba dakit zure errian asko maite zaituela. Ba dakit neska bat maite dozula, asko maite dozula. Ezagutzen dozu Susane? Susane ez da ba zure kutunaren izena?

Eta Andoni'k, gaixo zaiñak berba egitean, gero ta geiago begiratuten eutsan. Aren esanak artu eta gogoratuko ba zitun lez. Ume txiki batek bere amari begiratu, eta esaten dautsazan gauzak entzun baiña jakin ez eta jakin nai ba litun lez, berez datorren doai batek jakitera eroan dalako eskutuko indar edo tengadaz.

Gaixozaiñak igarten eban Susane izena entzutean, beste gauza askogaz baiño adiago geratzen zala, eta irribarre zingira antzekoa ataraten ebalu espanetan.

Aita gogoratu eutsan. Gogoratzen aitagaz? Emen egon da Zu lo zegozan artean emon egon da. Baiña etxera joan bear izan dau. Zenbat poztuko dan esnatu zareala jakitean!

Eta izeko be emon egon da Aita eta biak egon dira, zuri begira, zu noiz argituko. Kezketan egon dira, baiña igarri dabe etorriko ziñala, argituko ziñala, eta pozik etorriko dira beste baten.

Ez zaite bildurtu. Gogor artu zinduezan errian, ezta? Zaindari zital orreik!

Eta Susane? Berak euki zenduzan, zaurituta gero... Zu ez zara gogoratzen, jakiña. Zuk durundi lako bat entzungo zendun eta gaur arte. Baiña bera egon zan. Maite zaitu-ta

Susane emen ba lego\_ ezagutuko zenduke? Aurrean ikusita konturatuko ziñake? Bai?

Ta sartzeko agindu eutsan Susane'ri. Ez egiteko ez negar, ez intziri ez bestelako agerpide sutsu edo gogorrik. Irribarrezka sartzeko, alegin egiteko bere izatea mendetzen eta irribarrezka sartzeko, lendik be alkar ikusiak ba ziran lez egoera orretan.

Atean sartzen igarri orduko, begirik ez eutsan kendu, adi-adi...

Biak egin eben ezaupide jokia, ikustaldi aretako mintzoa,

begiekin egin eben.

Aginduta lez, irribarre geldi baiña gozoz sartu zan Susane. Eta irribarre orreri eutsi be bai, barruko arrada eta zotiña barruan nekez ixilduta

Susane'k esku batetik eldu eutsan.

Geldi eukan oraindik Andoni'k bere zati ori. Atzamarrrik be erabili ezin. Baiña Susane'k laztanduten eutsan, bigun bigun igortzir Eta musua emon bertan, esku zabalaren erdian.

Eta berba barik, begiakin, sekula baiño maitekorrago alkarri barruko naia agertzen eutsen. Maitasunaren sakona eta ezitia, iñoiz baiño luzeagoko begirakadetan erakutsi.

Azkenean, lotsatu lez egiten zan Susane, begiak itxi eta unetxo baten alaxe iraun, baiña zabaldu orduko an ikusten eban Andoni, bereak, bear ba da besterik ezin ebalako, geldi eta zorrotz berari zuzenduta.

Gaioxozaiñak esan eutsan Susane'ri:

-Ikusten? Itanduten daukozu. Jakin miñez. Ezin dau berbarik, eta ziur egon berak ez dakila zegaitik dagon. Zuk gogoratu bearko dautsazu, baiña astiro, nekatu barik. Egin kontu ama zareala eta urteko umetxo bat dozula besoetan, zeure aurrean, zeuk zer esango begira berak, berezko ikas miñez, ikasteko eran edo ikasteko naian. Egin kontu ama zareala..

Esaera orrek negarra ataraten eutsan Susane'ri. Samurtu, maitemindu...

-Oetxe bat ekarriko dautsut gelara. Zure mesederako eta niretzat be bai.

Milla mesede egingo daustazuz.

Nik beste gaixo bat ikusi nei. Zuk au zaindu. Eta larrialdi, estutasun, izerdi geiegi edo abar, beragan bereziren bat igarriko ba zendu, tirriña jo ta bereala etorriko naz.

Ez dot uste premiñarik egongo danik.

Olakoetan ez asko larritu. Zentzuz jokatuta lan geiago egin ziñei onerako, itsumustuan zoratuta baiño.

Poztu egin zan Susane, bakarrik lagako ebala esan eutsa-

nean.

Bestearen aurrean ausartu ez zan berba goxoen bat esateko aukera eukiko eban, baiña batez be, bere laguntza eskintzeko egokitasuna.

Bere bizitzan ez eban sekula olako gertaera batik euki.

Andre izaten ikasteko bidean sartzen zan.

Gaixo zaiñak esan eutsan lez, ama izaten ikasteko aukera egokia eukan, gaixo asko titiko umieñ antzeko izaten diralako. Aukera bakarrik ez, eginbearra be bai, gero biok zorioneko izango ba ziran.

Eta ama lez agertu bear orrek, birgin izanda be, amak bakarrik eukiten dabezan doaiak eukitera berez eroaten eban.

Ezer egin barik, ezetarako gertu barik, samurrago igarten eban bere burua; emonkorrago; oparotsuago, maiteari zintzotasun osoz eskintzeko garretan.

Eta biak bakarrik, berbetan asi yakon:

-Andoni! Bizi nai dozu, ezta?

Nik be bai.

Begiratu eidazu.

Susane naz, ez dakizu?

Zugaz nago, eta egongo naz, nai dozun arte.

Ez zara gogoratuko. Jakiña, ezin gogoratu.

Zu, kaleko ibillaldian, aurreneko ziñoiazan. Eta zaindariak urten eutsuen. Ez zendun zuk ez besteak be, itxuraz, ibillerarik desegin nai. Jezarri egin ziñen lur gaiñean, bidean, zuen aurka ausartuko ez ziralakoan. Eta minutu bat emon eutsuen. Eta bete orduko, tiroka asi ziran. Tiroka! Eta pelota batek jo zinduzan.

Ni be antxe nengoan, zueri begira, ba dakizu?

Eta zuk emon zeustan indarra zeugana joaten adoretzeko. Ezaupide barik zengozan. Nire eskuetan artu zindudazan, eztakit nundik ataratako indarrez, eta alaxe euki. Ba dakizu? Zenbat odol ixuriten zendun!

Eta zure odolaz nire jantzi guztia gorritu zan.

Jakiña, ez zara gogoratuko. Ezin! Baiña bai, bai, neuk euki

zindudazan, nire besoetan, esku bategaz burua nire biotzaren gainean eta besteagaz zure zauria ezin zaindurik.

Eta zuk, ez zendun ezer be esaten. Begiratu be ez. Ildakotzat uste izan zinduen lagunak. Baiña zaindaria ez eutsen laga urreratzen. Ni egon nintzan, ni, danen artean, kotxeak billa etorri arte...

Zegaitik ez dozu barre pixkat egiten?

Ez daustazu ulertzen?

Ixilunea.

Estul makal, mintsu bat, Andoni'k.

Igarten jakon min artzen eballa.

Min?

Min asko?

Nun daukazu miña Buruan? Belarrietan?

Begiraka zagoz, ikusten zaitut, baiña ez diñostazu ezer, ezer be ez!

Eta nai?

Ni bai?

Zure Susane naz. Bai! Ez zara poztuten?

Ene ba! Zer?

Lo nai?

Nekatu?

Ezin? Ezin?

Ez ziñan nekatuten, itxasertzean, biok bakarrik maitekerietan jarduten gendunean.

Zabal begiak! Olaxe. Entzuten nazu?

Itxi orain... Olaxe.

Nik daukadan poza. Konturatu naz ezagutzen nazula, entzuten nazula. Eta maitatzen?

Nik asko. Benetan, asko.

Eta zuk? Bai? Benetan? Esan begiak, esan...bai?

Laster osatuko zara. Ezkontzeko mugatzat ile bi ez zendun ipini?



Ni gertu nago, bai...gertu.

Orain zeu ez zara atzeratuko, *e?*

Olakorik ez dozu egingo!

Nekatu egiten ete eban Susane'k Andoni?

Bildur ori sartu jakon.

Irribarre batik ez eutsan egiten.

Igarten jakon begiakin asko ibiltzen bildur zala. Ezin eutsan ikusi zauririk. Bendaren gainean odolaren kutsu eta gorri baltzeranez illunduta egoan.

Bekokia ozta-ozta, aurrearen erdia eukan agirian.

Okotsa bendaen lotura artean eskutatzen jakon.

Andik bera, soñean, ez eukan ezer. Zauri txikienik be ez. Garbi. Baiña eragierarik be ez eukan. Bat-bateko zartada arek erdi gogortuta lez laga eutsan izate guztia.

Alaz eta ba etorran. Onduten etorran.

Susane berak igarten eban. Konturatzen zan bera bakarrík geratu zanetik, egiten ebana onerako egiten ebala.

Sartu eutsezan ziztada edo zirikadak gero ta bizialdi geiago emoten eutsen.

Itxaropentsu egoan Susane.

Lo gurea igarten eban. Gorputzeko astuntasuna. Ezin eutsi soñari. Alegiñak egiten zitun. Begiak uragaz busti. Bere soñekoak estutu, gorputzeko estutasun edo nekez itxarrik irautearren.

Itxarrik egon nai eta ezin. Ori zan bere ardura. Ez zan au-sartuten ezelako pastillarik artzen. Bildurta zan orretan. Etxeko osakai oiak erabiltearen zaleago zan.

Trebetasunez, leunkeriz, Andoni kexarazi barik, bere burukoari, almodari ten egin, bere aldera luzatu eta oetxoan etzaten ba zan loak artuko ebalakoan, antxe makurtu zan, Andoni'-ren burukoan bere burua atsedendu, an loak artu barik errezago iraungo ebalakoan.

Egunetako **kezka**, neke eta lo **ezak**, txil eraginda eukan.

Gaixozaiña igaro zan.

Ikusi eban.

Ez eban itxartu nai izan, Andoni bera egoera on eta bake-tsuan igarri ebalako.

Eta Susane alaxe egon zan, ordu bi, iru...alboan eukan gaxoaren kezka barik.

Alako baten bere arpegian leunketa lakoak igarten asi zan. Amesetan? Bera ziur konturatu barik, erdi lotan, atsegin gozo eta biguna artzen asi.

Zur jarri zan. Bereganatu. Itxartu eta adi jarri. Eta Andoni'ren eskua iruditu jakon bere arpegia laztanduten.

Eta pozarren jagi orduko, Andoni'ren abots makal baiña ziuorra entzun eban berari maitekor eta ixiltsu esaten: Ordu bete ezin egon izan zara iratzarrik, eme, nire zaindari?

Susane'k artu eban goitik berako dardara!



## Errietako gordinkeriak

Ez egozan danak pozik errian.

Erri txikiak andiak baiño adiskide eta maitekorrago izaten dirala esaten da. Edo bestera, andiak baiño erreago izaten dirala.

Adiskideak, lagunak, auzoak, senideak eta bizi lagun guztiai. sakonago ezagutzen dira, umetatik auzo izaten diralako.

Zoritxarretan eta makalaldietan igarten da ezaupide ori. Eta politikako itsukeri ta txikikerietan ez?

Errian, iraultzaille artean, ba egozan Andoni'ren Susanegazko artu-emonak ondo ikusten ez zituenak.

Susane neska ederra izanarren, edozeiñek esango eban Andoni ez zala beragana edertasunak zirikatuta, ez griñaen zirikal-diz. Danak ekien Andoni ez zala pasako txori ibiltaria.

Beste bidetik etorran asarrea.

Gurasoak ezagututa, a ez zala Andoni'rentzat atzeragarri baiño izango. Beti be euskarri bat, sekula ez bizigarri, adoregarri.

Eta ba egozan Bilbo'n egolako asarre ziranak. Andoni, egoan eran, arentzat bere alde guri-guri billatuko eban umetxo otsan eta makur bat lez izango zalako.

Andoni'ren oberatz egiteak erria poztu eban. Eta gabeen kalean iñarduen batzarrean, onetaz zerbait esaten ebiltzan.

Eta esan nai, baiña ezpaitan, norbaitek itsukeritzat artuko ebalakoan, baiña iraultzaren mesedean «kontzientziko» agerbide lez, batek eten eban batzarreko jarduna eta zital itandu:

Zegaitik dago Susane Andoni'gaz?

Bere laguna dalako. Bere adiskidea dalako.

Ikusteko dago ori.

Ba ebizan beintzat.

Eta orain? Komeni al da Susane an egotea?

-Zegaitik ez?

Fatxista bat dalako.

Zuk ez dakizu.

-Neuk dakit. Ondo jakin be. Karka andi bat da. «Meapilas»  
utsa, besterik ez.

-Gurasoak dirala-ta beragaitik ori esan bear al da? E.AJ.'ko  
ez al da zure aita? Eta zu?

Baketan laga niri, ba dakidalako nundik nabillen.

Orra ba. Baketan zuri ta besteei ez?

Egoera ez bardiñak dira.

Zegaitik? Nun dago ez bardintasun ori?

Gure gurasoak gaur kontserbadore ba dagoz be, len euki  
eben iraultza lako zerbait.

Nungo iraultza?

-Ez ukatu. Egin eben eurena.

Zera egin. «Guazen mendirik mendi» abestu ta ingurutako  
indiarak jaten bazkari oparoak egin.

Eskola onean asi ziran beintzat, gero euren kordan erabi-  
llezan Eleizak eta tutik ez ekien politikeriak galdu ba zituen be.

Eta diruak ez? Kapitalaren eskutik eta bere menpean ez al  
ziran bizi?

Nasaitasun baten eta egokitasun baten bizi naia, kapitalis-  
moa aldeztutea ete da?

Danok daukaguz alderdi makalak.

Baiña Susane'ren eskola beti izan da bardiña.

Danok ezagutzen dogu.

Arek guk uste ez genduna egin dau. Etxean kartzelan  
egoalakoan ez al gara egon?

Ta?

Irakaspede bat emon dauskula. Borondatea beintzat.

Esan bearrik *ez* da egongo, bere etxearen aurrean geratu  
bearrik ez dala egongo.

Zegaitik ez?

Geure bururik ez daigun lotsatu.

Nok daki gu orretan asi giñalako, zer esanak kentzearren etxetik bialdu daben?

-Nok daki etxekoen politika bat izan ez ete dan?

Eta gaixotegira joan bearra egoala, nai ta ezko zala iraultzako egoera indartzea ta komeniko zala egunaren ordurik geienak betetea, Andoni'k erríko giroa ezagutu eta bizi egian.

-Goizetarako bi eta arratsaldetarako bi batuko al giñatekez?

-Ba gula ta giñateke, ba litz eta ba zan'en senideak dira. Biak alkarren kasan. Emen ez dogu orrelakorik bear. Emengo erantzuna ziurra izan bear da Ba gara ta kittu.

Ni gertuten naz bat orretarako.

Eta ni.

Ni arratsaldetan bai, goizetan ezin dodalako.

Eta bereala batu ziran, izenak emon beintzat, zortzi lagunek.

Egun birakoak aukeratu zituen.

Danen kontura, iraultzako batzordearen kontura izango ziran ibillera edo joan etorriko txartelak.

Eta norbaiteri kotxea eskatu ezkeru?

Ez gara joango kapitalisten antzera.

Egun onetan, obeto esanda, gau onetan ez ziran ausartu kaleko ibillaldia egitera.

Batzarra amaitu ordurako, inguruak zaindariz beteten igarri eben.

Batzarrekoak konturatu orduko egalak artuta eukezan. Kanpotik be etorrita gozan batzuk, kotxe berezietan.

Ori ikusita, batzarra berez banatu zan, iñoren agindu barik, al ebanak al eban tokitik zear.

Igarten zan areik ez ziralta joan batzar aregaitik ez eta orduan egin eikean ibillaldiagaitik.

Beste zerbait ebillen.

Norbaiten billa ebiltzan.

Tabernetako atetatik barrura begiratu eta norbait ikusiko

ebillan bikote bat.

Inguru aretakoak ez ziran konturatu, baiña Karlos'en etxera joan zan beste bikote bat.

Etxekoak zurbildu egin ziran eta larritu, sekula ikusi ez eben ikuskizun bat atean ikustean: zaindaria barrura sartu naian.

Susanagaitik itandu eben.

Etxea begiratu ta aztertuteko agindua erakutsi.

Karlos'ek arpegi emon eutsen. Asarre jarki. Ia bere etxea zer zala pentsaten ete eben.

Agindua eukela.

Ez zirala sartuko bere gorputzaren gaiñetik ezik.

Batera edo bestera agindua beteko ebela.

Berari iñok ez eutsala irabaziko leialtasunean.

Eurei be iñok ez eutsela galerazoko agindu beteten.

Alaba billatu bear ebela.

Alabaren orde z eurak erantzuten ebela.

Alaba billatu eta eroan bear ebela.

Salakuntza okerren bat egongo zala bitartean.

Ori ez zala euren gauza.

Gogor batak.

Berde besteak.

Bultza batak.

Zital besteak.

Azkenean emazteak arrenka eskatuten eutsan Karlos'er, ainbestean ez itsututeko.

Berak ba ekiala zer egiten eban.

Bakeagaitik lagateko.

Ta sartu ziran.

Susane'ren gela zeatz aztertu eben.

Oe, koltxoe, mai, arasa, komoda, jantzileku, aulki, baul zar bat. Etxe zarretan antzera, tresna geiegi gela baterako. Baiña egia esateko, gela a toki askotako bi sartzeko aiñakoa zan.

Dana aztertu eben, dana erabili, azpikoz gora jarri.

Ez eben ezer billatu.

Paper batzuk gain gaiñetik begiratu zituen.

Ez eutsen garrantzirik emon.

Euskerazko orri batzuk billatu zituen. Ia areik zer ziran. Mariaren alaben illeroko orriak zirala. Sinistu eben, Andra Mariaren irudia gaiñean agiri zalako.

Odolez betetako jantzia oraindik an eukan, otzaratxu baten, bear ba da osatutean Andoni'ri erakusteko asmotan.

Zer zan a, itandu eben.

Argí erantzun, eutsen gertatutakoa.

Jantzia eurak eroan bear ebela, ta artu eben.

Etxean jan tokia eta beste tokiak ikusi nai zituela eskatu eben. Zarren gela laga ta beste guztiak.

Gela nausían sartu ta ango ikurrin, trabuko zar eta karlistadako oroigarri batzuk ikusi zituenean, arek zelan eukezan an jakin nai izan eben.

Karlos'ek erantzun, eurak baiño bere gurasoak aberriaren alde zintzoago jokutzen jakin ebelako.

Trabukoa ikusi bear ebela.

Egoan tokitik a artzeko, kapitana etorri bear ko zala, gitxienez kapitana.

Ez ziran ausartu geiago ortaz jarduten.

Etzetik urten eta zuzen kuartelera joan ziran.

Ara eldu ta unerik galdu barik Bilbo'ko kuartelera deitu eben, erritik ezer jakin baiño len, neskaren billa joateko.

Alaxe, iñok ez deitzearren, urrutizkiña artu eta gaixotegiko zenbakia ipini ta denpora galtzen lez euki eben ango zaindari batera itaun illun eta nastetsuak egiten.

Eldu ziran zaindariak gaixotegira, eta zetarako zan jakin eragin barik, gelatik atara eben Susane, eta kuartelera laguntzeko agindu.

Gelara biurtu nai izan eban Susane'k Andoni'ri zer gertaten



zan esan eta agur egiteko.

Ez eutsen laga.

Gaixozaiñak atetik urteten ikusi zituanean, keixatu zan eta urten eta zer gertaten ete zan itandu.

Beregaz kontu eukiteko eskatu eutsen, eurei kontu artzen alegindu barikr

Susane'k, esateko konturatu be barik, kuartelera laguntzeko agindu eutsela ta gero-arteke agurtu eban, Andoni'ri, mesedez, kontu pixkat egiteko eskatuz.

Laster ziran erritik gaixotegira deika.

Ez egoan urrutizkiñik geletan, etxe-oin bakoitzaren sarre-ran baiño, zaindariak batzen ziran gela zabal baten.

Ango gaixozain batek artu eban.

Susane'ren gurasoak ziran beste aldean. Arrituta geratu ziran, ori gaitz zala erantzun eutsenean, zaindariak andik eroan ebela jakin eragiñez. Andik etorten ba zan esango eutsela berea-la etxera deitzeko.

Orduak igaro ziran.

Etxetik deitu eben bi-irutan. Lengo gaixozaiñak aldatuta egozan lez, berak ez ekiala ezer'

Andoni be arrituta egoan. Ezin iruntsi izan eban zegaitik edo zetara eroan ete eiken Susane.

Eta orduak igaro ziranr

Ori jakin eta laster zabaldu zan barria errian. Bolo-bolo lez aidean.

Arrigarri zan eta etsigarri. Siniskaitz.

Baiña\_.

Ez egoan giro onik Susane'rentzat.

Familiko gorabera geienbatr

Beretarren endazko pentsabide eta jokabidea. Alderdikeri bateko ezaupidearen ondorena.

Asanblada egin zan.

Lagun gitxi batu ta eurak betikoak. Edozegaitik batzea oi-

turazko ebenak, baiña arazo onetan, gertaera onetan, ezpai, zantzaz eta ikusi bearra agertzen ebenak.

Gaitz zan benetan, batzun burutik, familiko etorrera eta kondaira aztu eragitea.

Beste edozein giro, aztuta eukezan. Pikotara joanak ziran. Baiña oraindik eurenan jarraitzen eben buru gogor areik, karlista itsu areik, ez euken parkamenik.

Origaitik an batu ziranak, baitutze ori ezetsi eben, txarto ikusi be bai osoan, baiña ez ziran ausartu errian dei bat egin, eta onelakoetan oiturazko eben legez, antzekoekin egiten zan legez, aren askatasunaren alde kalerik kale ibilten.

Bestelako dei eta iragarki eta jakinbidez etxe-aurre eta etxe bitarte guztiak beteta ba egozan be, Susane'ren aldezko paper bakar batik ez zan agertu.

Ori, Andoni bitartean egoala eta egoan lez egonda. Eta Andoni'ren laguntzaille bakarra, zauritu zanean, areri esku emoten ausartu zan bakarra Susane izan zala danak jakinda.

Biamonean erriko lagun bi, batzarrean erabagi zan lez, gaixotegira joan ziranean, Andoni zearo artetatuta eta beretik urtenda lez billatu eben.

Eta aidean bialdu zitun mutillak, berak ez eukala iñok zaintzeko premiñik, eta Susane'gaz zer igaro edo gertatu ete zan ikusi eta jakitera.

Alegiñak egiñarren, eta ustez toki egokietara joanarren, ez eben garbitasunik lortu.

Zaindaria batetik bestera eta andik besteren batera bialdu eta aldatuta euken.

Eta agintzailleak errian egozala; andik urtendako zerbait zala; angoak eskuartu bear ebela; arein menpe egoala, ordurarteko oiñarriak an billatzen ziralako; ez egoala Bilbo'n ezelako agerbiderik, erriko dei bat baiño, eta ba ekiela errian an egoala\_

Mutillak geiago ezer lortu barik gaixotegira biurtu ziranean, beste agindu bat egoan. Oraingotan Andoni berberaren aurkakoa. Andoni bera baituta eukiteko agindua.

Ara eldu ta zaindaria ikusi eben atean. Ikusi orduko pentsa-

tu eta igarri zer izango zan.

Ez eutsen laga gelara sartzen.

Alperrik alegiñak.

Orrela jardutean agiriak eskatu eutsezan, karnetak. Eta bietatik iñok ez eukan agiririk.

Zaindaria bakarrik egoalako, ez zan ausartu mutillak an gelditu eraziterar

Kuartelera deitu eban eta zaindu zituen. Eta errira sartzean, kotxetik jeistean, an egozan lau zain, eta euren ezaugarriak ondo artu arte, ordu batzutan barruan euki zituen.

Bitartean Susane, Indarkeriaren aurkako legearen arabera zala-ta, bakartadean euken, kanpotik etozanen ikustaldi edo artu-emonik ezetara be laga barik.

Eroapenez artu eban bere egoera.

Ez eukan iñungo eta ezelango zalantzik. Bere arteko azterketa sakon bat egin eban, eta ez zan ezegaz gogoratzen.

Ez egoan ezetan sartuta. Ez ekian bere lagun edo maitearen taldeko ezelako barririk. Ez Andoni berberaren eskutuko gauzarik. Euren maitasunak olako gauzen gaiñetik egozan.

Iñok ezin esan eikion, laguna maitatzean, aren bidari, bitarteko, eskutagarri edo antzerakorik iñoiz izan zanik.

Berak euki eikean guztia maitasunaren kutsua zan. Egune-ko giroagaz bat ez etorran gazte bat maitatzetik. Baiña ori legearen aurkako edo pekatu ba zan...

Eta egunak igaro ziran.

Ezer itandu be barik.

Beragaz kontu artzerik euki barik.

Jatekoa eroaten eutsenean, bere asarrea agertzen eban, ordua zala zerbait itandu edo zerbait erabagiteko-ta. Angoak erantzuten eutsen erriko aginduei egozala. Ez ekiela errira eroan bearko ete eban.

Dana dala, ez eutsen ezelako estutasun eta gogortaderik egin. Euki bakarrik, iñor ikusi eta iñok ikusi ez eikean gela baten.

Gurasoak, batari deitu ta bestea ikusi, egin zituen bere egoera argitzeko alegiñak.

Bear ba da mutil izan ba litz, ariñago lortuko zan zerbait. Neska izatean, eskutuko geiago emoten eutsen auziari. Garrantzi geiago. Eta eskumatarrak, oraingo gazteen zorakerizko jokabidea baiño geitxuago ikusten eben adin oneko neska baten makurpen ori. Ia eskumatar famili guztien lotsagarri ikusten eben giro aretako neska baten makurpen eta jokabide ori. Danen laidogarrri ikusten eben orrelako neska bat alde orretarako jaustea.

Geroko indarrari, etorkizunari geiago begiratzen eutsen, ordurarteko ekiñari baiñor

Alako baten, legeak baituta eukiteko eskubidea emoten eban azken egunean deitu eutsen.

Ordu bete inguru euki eben agiri lako bat beteten.

Lau zaindari mai buruan eta bera bakarrik aurrean. Batak ziri ta besteak itandu, batak ezpajian ipini eta besteak erantzuna ukatzen. Baiña berak zentzuz jarraitzen eutsen. Ekin barriro bata ezagutzen ete eban eta besteagaz iñoiz ibili ete zan. Zalantza barrik orretan be. Azkenean lagunak gordeteko etxeak ezagutzen ete zitun, izkilluak eskutateko zuloak nun ete egozan, zein mendi edo basotatik ibiltea atsegin izaten eben, zeñnegaz batzen ziran.r.

Itaun-erantzun guztietan bai edo ez, ziurtatuz edo ukatuz, bereala erantzuten eban, berak ez eukalako bere ibilleretan euren maitekerietatik kanporako ezeren gomutarik.

Zaindaria bat-bateko bat emon nai izan eutsen, odolez betetako bere soiñekoa erakutsiz.

Konturatu zan etxea be aztertu eutsela, baiña berak garbi azaldu eban zer izan zan gau aretan gertatua.

Azkenean zaindaria esan eutsen, beste gauzak alboan lagata, bere baitzea ez zala origaitik izanr Bere aurkako erriko beste salaketaren bat eukala.

Ez eban lortu salaketa ori zeñnena edo zetaz zan jakiterik. Bear ba da azken guzur bat izango zan ainbeste egunetan baituta eukitea egiaztatzeko.

Azkatu ebenean, ba ekien lez egun a baiño geiagotan barruan ezin eikeela euki, aita eta ama itxaroten egozan, zaindarien etxeko atadian.

Besarkatu ziran.

Olakoetan gertaten dan lez, iru-lau bidar, negar eta musu, alkar jan bearreanr

Malkoak igarten jakozan aitarir

Au be ikusi bear!

Ba al dakizu, aita, zegaitik izan dan?

Nik ez.

-Ez eta nik be.

Zetaz salatu zaitue?

Ori diñot nik. Zetaz?

Esango eutsuen.

Erriko salaketa bat zala.

Zeiñena?

Ez dakit.

-Jo egin zaitue?

Ez. Ziur egon.

Estu erabili?

Ez-ta.

Gogortaderik be ez?

-Jan orduetan baiño ez neban ikusten zaindaririk.

Eta itaunetan igarri ez zeren salaketa ete zan? Zegaitik sartu zinduezan?

Benetan, ez. Nik uste dot oiturazko itaunketa edo jakinbidea izan dala azkenean egin daustena.

-Goserik?

Esateko ez.

-Jatetxe batera joango gara berogarri bat artzen?

-Pozik.

Guk nai izan gendun jatekoa bialdu, baiña laga ez.

Emakumeok ez dogu asko be bear izaten. Eta ni, ba dakizue, ez naz fin-fiña.

Barruan zer egiten zendun?

Zer egingo neban? Danokaz gogoratu.

Ainbeste ordutan?

Eta itxaropena eta eroapena eskatu Jainkoari.

-Jainkoari, zuk?

Zer uste dozu, aita, nik Jainkoaren sinismena aztu edo bastertu egin dodala?

Ez daukat saltzeko.

Ixildu egin zan aita. Baiña erantzun orrek emon eutsan poza igarri eutsan amak.

Zer dakizue Andonirenik?

Gaixotegian jarraitzen dau.

Zelan dagon bai?

-Geldiro, baiña osatzen.

Asarratu egingo ziñateke, gero errira joan aurretik irurok ara joango ba giña?

-Gu? Irurok? Zetan?

Ikustera. Zegaitik ez?

-Zer esango leuke batzuk?

Nok dauka zer esan?

-Eta kalean zear, esan-mesanetan pozik eioazan.

Oiñez

Oituta egoan aita oiñez ibiltzen, eta alabak be naiago eban, azpaldiko ordez, kanpoko aizea artu.

Eurak irudituarren, ezaupide andiko zirala uste izanarren, Bilbo'ko kaletan ez eben ezagunik billatu.

Ordu ona zan eta jatetxe baten sartu ziran.

Ez eban aitak etxetik sarri urteten, baiña urteeretan egoki bazkaltzen atsegin izaten eban. Berak esaten ekian lez, polito.

Etxean emazteak ipinten ez eutsazan gurariak, kapritxoak. Lutxarkeriak, esaten eutsan andreak.

Eta luze eta nasai bazkaldu eben.

Ez eban nai izan Susanc'k urrutizkiñez gaixotegira deitu, bat bateko poza emon al izateko ustetan. Baiña zelan egoan ez jakitea luze eritxi jakon, eta beste norbaitek eskatuta lez, gaixozaiñari itaundu eutsan bere barri.

Ez eutsen ainbesteko onik emon. Azken egunetan sukar pixkat euki ebala, ez ebala lorik egiten, miñak eukazala, kezkek be bai, eta orrelako zerbaitzuk agertu baiño. Alaz eta barriro ba etorrara, asi zala obetzen. Eta zaindaria be kendu eutsela atetik eta orain barriro pozago ikusten zala.

-Zelako zaindaria?

Zainduten euki daben polizia.

E?

Bai azken zortzi egunetan. Gaur goizean kendu dautse.

Ez zan iñor ikustera joaten?

Ez eutsen lagaten eta zetarako etorri?

Gurasoak ba dakie bakarrik dagona?

Biar etorteko ei dira. Baiña bera Susane etorriko dan itxaropenez dabil.

Ba daki askatu dabela?

Konturatu da gaur dirala amar egun baitu ebela.

Zalantzan egon zan Susane bere burua agertzeko, baiña arratsaldean beste gaixozain bat egongo zala ta ixildu egin zan, eskerrak emon ondoren.

Aita pozik ikusten zan.

Ainbeste egun kezkatu eta illunen ondoren, alai.

Bildur eukan, gaiñera, beste nunbaitera bialduko ete eben.

-Aita, nora ni?

Ez jakin. Ainbeste entzuten da-ta.

Uste dozu ezer egin dodala?

Nai ez da be gaur lotu egiten dabe-ta.

Egia aita. Ni ikusten nazun lez, Andoni'gaz nabil. Orrek ez dau esan nai beragaz dabiltzan beste batzukin bat natorranik.

Askatasun geiago bear da Ezpai barik. Erri eskubideak beste begirapen bat bear dabe. Ezpai barik. Langilletza kapitalaren gain ez al da ezagutu bear? Ezpai barik.

Baiña ortik kanpora, legerik ez eta nabarmenkeria, ori ez. Edozein begitatiek begiratu, ori ez.

Or diarduen beste gangar orreik, zer?

Or diarduen beste askok, zerbait lortzearren, orru ta zarata asko eta azkenean, egoera baten, eurak zintzoenak.

Ixiliek entzun eutsan.

Zuek karlatarrok ez ziñen gerran ibili printzipe baten gura-rien alde Zer da *lege* baten ausleago: kalean eskubideak eskatzen deika dabillana, ala mendian eskubide batzun alde tiroka dabillana? Eta ori Jainkoari baketan lagata

Gaurko gazteak Jainkoari baketan laga?

-Gaurko gazteok nai doguna Jainkoaren izenik politikan ez erabiltea dar Jainkoa politikan sartzea guzurrik andiena dalako.

Orrelaxe ibili ziran, barruko agerpen txikietan, azpaldiko alde eta alkar mindu barik.

Susane'k uste eban kartzelan egoteagaz zerbait irabazi ebala. Beintzat, aita berak lotsa pixkat gordeten eutsala.

Eta jatetxetik gaixotegira joan ziran.

Egia esateko, ez ain gogo onez aitar Baiña egun a ez zan ezer ukatzeko eguna. Ama bien bitarteko. Eta neska kezka urduri.

Itota lez eldu zan Susane gelako atera.

Keriza atean igarri orduko, Susane! deitu eutsan biozkor Andoni'k. Ba zatoz?

Eskua emon eutsen alkarri.

Susane ez zan ausartu gurasoen aurrean musurik emoten.

Atean egozan aita eta ama.

Zeintzuk dira?

Ezagutzen ez?

Ez dodaz ondo ikusten. Aita eta ama?



Bai.

Ondo etorri. Poztuten naz.

Eta eskua emon eutsen alkarri.

Ez nago txukun. Jakin izan ba neu... Baiña nai ez da be izarak zimurtu egiten dira.

Aspergarri da gaixotegia.

Bai, izan bear.

Batez be, gaur goizerarte euki dodan lez, zaindari bat atean gau ta egun dagonean.

Zaindu bearra?

Errietako txikikeriak. Nora joango nitzan ni, jagi ezin ba naz?

Ta zuri, Susane? Zer esan dautsue zuri?

Erriko salaketa dala.

-Betikoa. Ni aurrean ibiltzen nitzan, bai, baiña ta zu? Ibillaldi bat egin bear zala igarri orduko, lotsatuta edo bildurtuta etxera igesten zendun ori?

Obe batzutan bildur apur bat euki.

Leikena da.

Ondo geratuko zara?

Nekez.

Zer ba?

Buruko au itzala da. Ezin erabili. Bestela, soiñean ez daukat ezer.

Buruko au ez ba litz...

Dantzan be egiteko eran, buruari zirkin eragiteko egokitasunik ba neu. Ementxe egon bear Jainkoak nai daben arte.

-Jainkoak nai daben arte, ez Andoni?

Ala ikasi gendun. Gure aitá, liberala izanarren, ez zan orretan makala.

-Eta kalean?, itaundu eutsan amak.

Kalean kalekoak. Alaz eta lcnakoa, umetakoa eta gerokoa, beti geratzen da biotzean. Eta zirikalari geitu eban: zure senarrari

gertatu jakon lez.

Aidean artu eban zirikada Karlos'ek. Irribarreak be urten eutsan.

Eta gero ta alkartasun obeagoan egon ziran kotxerako ordua eldu arte.

Susane'k Andoni'ri eskatu eutsan, gau bat geiago eroapenez eta baketan igaroteko. Ba ekiala aita eta izeko biaramonean beregana joateko ustetan egozala.

Bera pozik geratuko zala, baiña barruko egunetako ugar asko kentzeko eukazala ta premiñazko ebala etxera joatea

Errira joan ziranean, zain egozan adiskide batzuk, eta koxetik urteeran agurtu zituen.

Ez eutsen orrelakoetan beste batzuei egiten eutsen lako arrerarik egin.

Etxera joan ziran zuzen.

Eta etxeko atadian, barrura sartzean, amak, barriro, musu bero bat emon eutsan alabari, etxe au izan daitela zure kartzela, esanda.

Alabak erantzun, norbere etxeak sekula ez ebala kartzela usaiñik be bear. Etxea batasuneko abia izan bear zala.

Eta aitak, zirikalari: Askok ikasi dozu kartzelan.

Susane berberak nai izan eban Jose eta bere arreba ikustera joan. Ia gabean bakarrik ibiltzen bildurtzen ez ete zan, esan eutsean, kartzelan be illunpean egoten zala, ia egun guztian, eta ez ebala iñoren bildurrik euki. Eta an euki ezik erritarren bildur gitxiago euki bear zala.

Jose lotara joana zan, baiña pozik jagi zan arrebak deitu eutsanean.

Azkenengo barriak eroan eutsezan Susane'k. Eurak ez ekien ezer, iñor ez zala joaten, ikusten ez ebela lagaten, eta andik erantzuten ebanak, osatzeko denpora bear ebala eta nasai egoteko besterik ez ebala erantzuten-eta.

Biaramonean joateko zirala, ta bertan konpondu ziran, Susane bera urrengoan joango zala ta kezka barik etorteko esanez.

Berak ez eukala orixe baiño zeregin atsegiñagorik.

Ezkontzako gertaera, esan eutsan kiñuka izekoak.

Zarren ezkontza da ori, gaixozaintza, bete-betean erantzun Susane'k.

Izekoak, Andoni'ren izekoak esan eutsanez, bera an egonaren, erriko andrak garbitasunak egitera joaten jarraitzen eben. Eta arro esaten ebela ez kezkatuteko, norbaitek ordainduko eba-la-ta.

Norbaitek ordaindu? Zeiñek?

Erriko lau jauntxok, diñuenez.

-Borondatez ala indarkeriz?

Orixe ez jakin.

Indarkeriz ziurrago.

Ta ori zeिñek nai?

Ixildu egin zan Susane.

Ez zan ausartu bere gurasoei eskatu eutsenik adierazoten.

Bat batean kontura jausi zan komisaritzan amar egun igaro ba zitun, eta eskabidea aurrez artuta euki, bere gurasoei emondako epea amaituta egoala.

Alaz eta ez eukan gurasoei ezer esateko asmorikr


Zelan konpondu?

Etxera biurtu zanean, an egozan etxean itxaroten, auzoko adiskide batzuk.

Neska lagunak geienak, gurasoen bat edo beste kenduta.

Ia gau erdirarte egon ziran, kafea artu, erre ta inguruko kontu zarrak astintzen.

Egia esan, an batutako geienak, Susane'ren maitetasuna ondo ikusten ez eben artekoak ziran geienak.



## Bizi-bidea gertuten

Komisaritzan egin zitun egunetan, milla pertsabide euki zitun bere etorkizunari buruz. Bere ezkontza izan zan buruaustetan geientsu erabili ebana.

Ainbat buruauste.

Andoni zelan geratuko.

Gerorako gaitasuna.

Gurasoen egoera...

Gauza bat ez eban baztertu edo atzeratzen: ezkontza.

Batera nai bestera, ezkontza, eta Andoni'gazko ezkontza, egin bearrezkotzat eukan.

Ez eukan zalantzik zeindegaz.

Baiña eta ondo geratzen ez ba zan? Zelan konpondu?

Nekeza izango zala bera ondo jartea, esaten eutsen. Alaz eta berak ikusten eban, argi eta zentzuz berba egiten asia zala. Or ez eukala akatsik. Ta entzumenean? Gaixotegian geldi egiñeran, konturatu eragiñarrer:, gero zer? Ori be, beretzako, ez zan ainbesteko kalte.

Zerbait geratuko jakona, ziurtzat emoten eban. Baiña ez zan bere erruzkoa. Bere gogai batzun eskabidetan gertatua zan. Eta, beretzat, Susane'rentzat, gerorako be esangarri zan.

Mutillak eukan ogi-bidea, alkarri lagunduta errez eroatekoa zan: babes edo asegurantzetako bere konturako langille.

Ez zan asko bear ortara egokitzekeo.

Gurasoei bereala bere asmoak agertzea erabagi eban barruan egon zan bitartean. Gero, obeto pentsatuta, aurrez Andoni'ri berba egiteko premiña ikusten eban.

Bera gaixotegian egon zan egunetan, oraindik ariñegi zala ikusi eban. Uste eban geroko egunetan aurrerapide andia igarriko eutsala. Onetan konturatu zan ikusi eban denporan aiña ez

ebala egin barruan egon zan artean.

Origaitik gurasoei ezer esatea be, egun batzutan, laga egin eban.

Egun aretan igarri ebanez, komisaritzako bere egunetan, gurasoak ondo gaindu eben lenengoz artuko eban zasztada. Barruan euki eban buruaustetako bat ori izan zan: Bere aita eta amak zelan artuko ete eben bera komisaritzara eroate ori, eta zenbateko errua ezarriko ete eutsen origaitik berari.

Andik urtetean ikusi ebanez, bere kezka egozan eta ez eutsen ezelako errurik jaurti.

Origaitik, gauzak orrela, lenbailen, bero-berotan auzitzea ez ete egoki?

Ortara zirikatuta egoan. Gertuta egoan.

Baiña gurasoei min asko eta buruauste asko emongo eutsen eskabidea, indarkerizko eskabidea berak eukan, ezer esan barik, oraindik jakin eragin barik. Eta ori be egun batzutarako burukomin edo asarraldi gogorra izango zala, sinistuta egoan.

Origaitik, dan dana, Andoni'gaz egonarte lagatea erabagi eban.

Ez eban egunik etxean galdu nai izan.

Bere zeregiña gaixotegian ikusten eban.

Andonigaz egon eta gauza asko aztertzeke premiña eukan.

Biamonean Andoni'ren aita ta izeko joan ziran. Ez zitun gabea ikusi etorten, baiña urrengo goizean, lenengo kotxean, bereak lagata, gaixotegira joan zan.

Oraingotan etxean, oitura lege lez, ezelako aitzaki eta esanik ez eutsen erakutsi.

Gaixotegian, itzal billatu eban Andoni. Itun.

-Ene ba! Gaur nire oinkadarik igarri ez? Ezagutu ez? Emen nago!

Eskerrak, Susane.

Pozik?

Ba!

Ba? Musurik be ez?

-Itzaltasun andi baten menpe nago.

Illunkeriak aldenduten alegindu. Leioa zabaltzeko esan.  
Argitan egon.

Ez da beti al izaten.

Zuk ba dakizu ba bestiei zerbait esaten orrelakoetan. In-  
dartsu zara...

-Indarra eta itzala ez dira alkartzen.

-Ez zendun etortarik nai?

Ez dakit etortarik merezi dodan.

Zer diñozu? Uxatu egizuz aize itzalok.

Ziur nago. Min eta atsekabe geiegi eroatera beartuten zai-  
tut.

Ni?

Ez ukatu.

Ez dakit zegaitik.

Zu lez zure etxeakoak.

Ez zaituela maite uste dozu?

Ori alboan lagata.

Azpaldiko gauzak ziran orrek. Lenengotakuak.

-Lenengotako ta gerokuak.

-Gure maitasunaren ondorenak? Ez bururatu olakorik.  
Asarratuko nitzake.

Beste zerbaitetzaz berba egin bear dogu.

Lenengo gauzatxu asko argituta.

Ez dakit zer sartu jatzun buruan.

-Susane, ez zara nigaz argi.

Ezetz?

Bildur daustazu?

Zeren bildur?

Gauza batzuk eskutatu egiten daustazuz.

Dakidala ez.

Niri dagokidazanak?

Zuri ta niri, biori.

-Etxean asarre dagoz?

Barrero orretan?

Egia esan, ez?

Zertaz? Agertu egizu bein zer dan kezka ori sortuten dautsuna. Zer dan eskutaten dautsudana.

Zer egin dabe eskatu dautsen dirutza dala-ta?

-Zclako dirutza?

-Erri dirutza.

-Zeiñek esan dautsu?

Ikusten zelan eskutaten daustazun?

-Ba neukan esateko asmoa. Ez nebillen ori eskutatekotan, zuri beintzat.

Noiz?

Obetotxuago zengozanean. Ez al gara alkarregaz geiago egon bear? Osasuna da lenengoz.

Orrelako ardura barik jakin dot. Esan zinkedazun zuk ber Ez dakit zeñek egin daben ori.

-Baretu zaitez.

Ez dakit zelan artu daben orrelako erabagi bat.

Ba dakit nik zuk errurik ez dozula.

Eta gurasoak zer?

Betiko antzera.

Ez diñoe *ezer*?

Zetzaz, ontaz? Ez dakie ezer.

Mesedez, ixilleko eta eskutuko barik agertu zaitez. Mese-dez eskatuten dautsut.

Benetan. Ez dakie ezer.

Eta bialdu eutsen agiria?

Nik billatu neban ate azpian. Ain zuzen zugana lenengoz etorri nitzan egunean.

Amak ateraño lagundu eustan agur egiten. Baiña ez zan



atadira jeitxi. Eta goitik ikusi nindun zerbait artzen. Zer ete zan itandu eustanean, bat bateko erantzun lez zabalkundeko orri bat zala nik erantzun. Orretan geratu zan.

Ta gero?

Ba gero..rgeroko gure goraberek bitarte, ez dot eurekaz berbarik egin. Eta zugaz be, kontu egin, ez dodala aukera berezirik euki orretaz jarduteko.

-Idazki ori nik apurtuko dot.

Zuk ez.

Zegaitik ez?

-Dana galduko zenduke zuretarren aurrean.

Dana? Zer edo zelako dana?

Ba lotsa, nortasuna, begirapena.

Ta zer?

Geiago oraindik. Ospea, agintea, maixutza, dana.

Ardurarik?

Zuri ez?

Orrelako baten ez.

Niri bai.

-Ez egizu jokatu sekula maitekeriz. Ez orain eta ez gero.  
Erri gidari izan nai ba dozu...

Ba dakit. Ba dakit nora zoazen. Laga dana eta jarraitu niri.

Ikusten zelako oiñarria daukazu?

Eta biak barre egin eben.

Beti naroazu toki batera.

Eroan? Errez al da zuek ezagutzea?

Erri gidaritzan ikustea atsegin jat.

Ulea artzen?

Ez. Barruan daroazun arrokerizko adarra joten.

Gangar etorri zara.

Ez, akulari.

-Ziri zorrotz eta guzti.

-Baiña pozoï ordez maitasunez igortzita.

-Idazki ori emon bear daustazu.

-Zetarako?

-Or dabillen zentzunbakoen bateri arpegiko narruan irarri dagiodan.

-Ez Andoni, ez; Zu cz zara orrelako. Ta nigaitik ez dozu orrelakorik egingo. Ez dautsut lagako.

-Ez al dakit zetan nabillen?

-Beste baten obeto pentsatu ziñei. Oraindik burua astun daukazu.

-Ta zer egiteko?

-Ordaindu egingo dot.

-Iraindu nai nazu?

-Gurasoak jakin barik neuk ordaindu neike. Ez daukat asko, baiña orrenbeste ba daukat nire kontuan.

-Nun irabazita!

-Gurasoen mesedeari esker.

Ara, nik ordainduten ba dot, zuentar guztiak pozik geratuko dira.

Nire gurasoak emoten dautsazuen zeken, dollor, andiki eta fatxista entzutea galdu egingo leuke.

Eta zuri ez leutzuke iñok esango maitekeriz erriaren gurarien aurka ibili edo jokatu dozunik.

Eta beste askok, nai ta iraultzailleak izan, barruko miña artuko leuke, orrelako zitalkeriak egitean. Beti be arinkeriak.

-Okerkeri eta bidebakokeri bateri arinkeria deitzen daustazu?

-Ziur zagoz, edo ala pentsatuten dozu?

-Izango ez da ba?

-Zu tartean egon ba ziña, olakorik ez zendun baimenduko?

-Esan bearra? Ni aurrera joango naz. Aurrera beti. Baiña nik dakidala, oiñarri sendoetan indartuta. Norbere buruaren aurka jokatu barik. Erriaren mesedean, erri berberari arrika egin

barik.

Ba nik, gertaera onetan, okerkeri eta bidebakokeria dala ezagutu eta sinistuarren, ordaindu egingo dot.

Ez dozu egingo.

Orretan be agindu bear daustazu?

Zegaitik egin?

Zuretzako gerorako mesedea andiago izango dalakoan.

Ez eiozu begiratu nire geroko mesedeari.

Zure geroko mesedea zurea eta nirea izango da.

Luze begiratzen diarduzu.

Nire ustez zentzuz. Eta tantu guztiak nire alde daukadazala konturatuta. Kontuan euki: zure lagun, odoletan zengozala zu jaso zenduzana, komisaritzako egoerak, erriko salaketak, oraingo zure laguntza.

Origaitik diñot ez ordaintzeko.

-Gero orrelako okerkeriak galerazo al izateko agintea euki dagizun nabil.

Maitasunak itsututen zaitu, Susane.

Nik bestera esango neuke. Maitasunez zuri lagundu naian nabillala.

-Ta gurasoak jakiten ba dabe?

Orretxek kezkatuten naur

Gora-goraka asi eta jardungo dira. Eta etxe beteko erra-zoia dauke. Neuk diñotsut.

Nik etzirarte ezin nei ordaindu. Etzi bai.

Bitartean beste aginduren bat egon lei.

Orretan sartzan ba zara, ez nazu emen ikusiko.

Zorrotz esan eutsan Susane'k. Ainbesteko betetasunean ez eban sekula ezagutur

Lotsatu egiten zan Andoni beretarrak euki eben jokabideagaz. Arrituta laga Susane'ren pentsabideak. Eta bere on ikusteko aren alegiñak, beraren ezaupideko mailla asko irabazi eragin.

Osagillea sartu zan.

Neskari urten eragin.

Sukarrak jarraitzen cutsala oartu zan. Zauria ikusi, aztertu ta zerbait garbitzen min andia emon eutsan. Kanpotik be entzuteko eran aieneka ipini.

Kirofanora croan bear zala agindu eban. Lenbailen. Eta arako bereala gertuteko.

Osagilleak urten ebanean, eta orretarako gertuten asi, Andoni bera kezkatu igarri eban Susane'k.

Ez eben berba askorik egin.

Gaixozaiña jatsi bear ebenen billa urten ebanean, samur asi ziran:

Eskerrak. Konturatu naz asko maite nazula.

-Alkarrenak izatekotan egin bear dodana.

Benetan eskartuten zaitut.

Eskerra mesedeagaitik emoten da. Eta guk alkarregaz euki bear dogun jokabidea ez da mesedeko, bion legeko baiño.

Eta orain ezer gertatuko ba litz?

Nun?

Kirofanoan.

Ez da ainbesteko izango. Zerbait esango eben.

Eta ba litz?

Erriak martiri goratuko zindukez.

Eta zu?

Ni? Zer esatea nai? Fatxista baten alabatzat ezagutzen jarraitu. Baiña ala izanarren, Andoni, jakin nik benetan maite zaitudala.

Ba dakit.

Iraultzaillerik andienetako zarea la pentsaten ibili barik.

## Atzerapena

Ia ordubete euki eben Andoni kirofanuan.

Ezaupide barik jaso eben andik.

Egun batzutan ikerketak galerazoteko aginduz.

Osagillearengana joan zan Susane. Gaixozaiña zuritu eban ortarako, egunetan be bera egoten zala zaindari, eta aginduak zeatz beteko zitula berba emoten.

Bakarrik eta zaindari lez egotekotan laga eutsan, baiña jardunaldirik ez erabilteko eta batez be kezkatu edo artegatu eiketan auturik ez atarateko aginduz.

Arratsalde aretan erritik mutil bi joateko zirala jakin eragin eutsen goizean Andoni'ri. Ba ekian ori Susane'k.

Kirofanuko egonaldi ondorengo agindua artu ebanean, errira deitzeko egon zan. Alaz eta pentsatu eban ori egin ezker, ez joatearren zalakotzat artu eikeela, ta bertan bera laga eban. Bere gauzak aidean egozala, naiago eban beretik ezer ez ataratea.

Mutillak eldu ziranean, kartela irakurri eben atean: Ikustaldi guztiak galerazota.

Zer gertaten ete zan itandu eutsen zaindარიarir

Onek, lenengotan, asarrea agertu eutsen gora igo ziralako. Ia atean ez ete eutsen ezer esan.

Baiña ez jakiñean ebiltzala konturatu zanean, agertu eutsen, kirofanuan euki bearra egon zala, eta egun batzutan geldi eta baketan egotea bearrezko ebala. Itxuraz, ez egoala ain txarto. Ez estututekor Origaitik zala. Orrelakoak sarri gertaten zirala kliniketan.

Berbarik ez eginda bere, ikusi nai eben, baiña zorrotz agertu zan zaindaria agindua beteten eta aterik zabaltzen ez eutsen laga.

Origaitik ez eben ikusi Susane'rik.

Onek berandu jakin eban ikustaldiaren barri, mutillak an egozala ez eutsalako zaindaria ezer adierazi. Eta naigabea artu eban, alkarregaz egoteko aukerarik ez eutselako emon.

Illuntzean, errira biurtu ziranean, ordezkariak baltz eta illun ipini eban Andoni'ren egoera erritarren artean. Ez ekien Susane an egoanik. Baiña txarto, benetan txarto, esan eban.

Kalez kale be ibili ziran batzuk, ez asko polizi erailtzalleak, ukabillak jasota, deiezka.

Zaindarien etxearen aurrera eldu ziranean, etxeari begira, Andoni! Andoni! deitzen eban.

Or amaitu zan asarrea, kaleko asarrea.

Kaletik jakin eban Andoni'ren gurasoak ze gertaten zan. Larritu ziran. Urrutizkiñez deitu eban eta Susane'gaz berba egin. Onck baretu zitun, al bestean. Zauria garbitu eutsela, ta aren miñetan egoala, ta geldi egotea bear ebala. Ezer gertatekotan an egoala bera ta iñori baiño len eurei deituko eutsela.

Gau txarra igaro eban.

Miñetan.

Intzirika ta uluka illuntzetik asi ta ezaupidera etorriagaz batera bere zauriak gordin bizitasuna erakutsi nairik ekin eutsan.

Deitu eutsan Susane'k zaindariari.

A ez zan ausartu *ezer* emoten, eguneko orrian ez ebalako orrelakorik ipinten.

Osagilleari deitu eutsan arek.

Baregarri bat ziztatu nai izan eutsan.

Andoni berak, konturatu zanean, berari ezer ez sartzeko eskatu eutsan. Miña bizi croan nai ebala. Sufridu nai ebala.

Arrituta geratu ziran danak bere tinkotasuna ezagutzean.

Barriro esan eutsan osagilleak, zerbait baretuta obeto egongo zala, soiña arintzen igarriko ebala. Orrek ez erakarkiola ezela ko kalterik, mesedca baiño.

Ezetzearan jarraitzen eban berak. Gau batekoa ba zan, miñetan igaro nai ebala, bere borondatez, min eskintzak egiteko pro-

mesa egiña eukala-ta.

Ori entzuteak adoretu eban Susane.

Gero ta sakonago ezagutzen eioan Andoni.

Bere barruko indarraren kontu artzen asia zan.

Eta igarri barik, ezeleko maitekeri barik, gero ta maiteago eban, berbakin agertzen ez dan barruko maitasunez.

Ordu batzutan miñak eukiko zitula garbi esan eutsan osagilleak. Andoni'k, eroapenez, gertu egoala eroateko, barriro erantzunr

Susane'ri esan eutsen bildurrik eukiko ez ete eban bakarrik egoten. Ezpaian, zalantzan igarri eben, baiña gero, berak be, alegin egingo ebala sufriduten laguntzen.

Ia fraile eta monjaren bat ziran itandu eutsan osagilleak zaindariari.

Urrengo goizean kapillaua agertu zan.

Ordurarte ikusi ez eta bat batean ala agertu bearrak ikara sartu eutsan Susane'ri.

Osagilleak zerbait esanda?

Gaixozaiñekaz jardun ondoren?

Bat batean atera deitu eutsan.

Zer zan, zegaitik egoan, bera nor zan, osagilleak zer uste edo esaten eutsenr..

Alkarregaz jardun ondoren, kapellauak garbi esan eutsan, osagilleak bildur zirala Andoni'k, bere zaurietan, atzerakuntzaren bat eukiko ez ete eban.

Kapillauak bere itaunak egiñarren, aurrez jakinda egoan mutilaren pentsakera zer zan, zelan zauritu eben eta gaiñerako jakingarri eta zertzelada ugari.

Eta neska, Susane, ze familikoa zan be ba ekian.

Susane'k bere pentsabidea agertu eutsan. Etxekoak edozer gertatuta, eleizaz naiko ebela. Oker ez zala egongo esatean mutilak, azken ordurarte, ez ebala naiko kanpoko agergarririk. Eta azaleko edo oiturazko egitadarik be ez. Baiña barruz sinismenduna zala.

Ez ori bakarrik. Ez ckiala zegaitik, baiña ziur ba ekiala bere miñak gordin eroateko promesa egiña eukala. Eta gabeen, miñen artean, zela-ala baretasuna billatu nairik, biak otoitz batzuk egin zituela.

Ori entzun eta abadea poztu zan. Naiko zala esan eban. Bera be barruko bizitzaren zale zala, kanpoko moda eta itxurak eta txotxinkeri asko bastertzearen zalea.

Eta mutilla ikusi eban, osagille bat izan ba litz lez, nor zan jakin eragin barik, ez bildurtzearren.

Alkarregaz berba banakak egin zituen.

Gitxi.

Orrelako ikertaldietan oiturazko diranak.

Itxura baten, azalkeri batzuk.

Errian ze barri, ze giro, gerorako asmo, zelako etorkizun..r

Ta geldi egotea komeni jakola ta urrengo baterarte agurtu eban.

Eskua emotean, ten egin eutsan Andoni'k eta esan:

Beste bateri sartu ziria.

Zu abade zara.

Zelan dakizu?

Ezagutzen zaitut.

Ni?

Ta ezagutu ez da be, abade zareala jokatuko nebanr

Benetan?

«Gogor» taldean ezagutu zindudazan.

Eta eskua len baiño geiago estutu eutsan.

Atera urteteen Susane'k agertu eutsan beragaz berba egin naiko ebala. Ez zala gaixoari buruz, bere artean erabillan beste buruauste bat erabagiteko baiño.

Eta orduan asi ezkerro, gaixoak irudimen txarren bat egin eikeala ta andik ordu betera bere gelan itxarongo eutsala aginduta banatu ziran.

Susanc gelan sartu zan.



Zuk deitu dautsazu?

Ez.

Benetan?

Egia da, ez.

Norbaitek bialdu dau?

Ez dot uste.

-Zelan etorri da ba?

Oiturazr

Ezagutzen dot.

Ziur?

-Ni baiño gorriago da.

Ixo!

Bai, ni baiño gorriago da. Ondo dakit.

Eta gabeko egon eziñaren nekeak, eta miñen ondorenak, zeero nekatu eta ler eginda euken Andoni ta berba egiteko baiño oe burukoan egokitasun apur bat billatu ta bertan bera ego-tea naiago eban.

Asper unetan barrero berbetan asten zan:

Ori «Beatus» da.

Ba dakizu?

Eskutuko izena da «Beatus»r

Bair Endika dar Gogorra, baiña beretarra.

Eleiza barrikoa.

Eleiza pobrekoa...

Iraultzaillea?

Bere erara bai.

Orretara ba daukagu bertan lagun bat.

-le!

Lo konkorrean geratu zan Andoni.

Poztu egin zan Susane, «Beatus» egaz izentatutako orduan, urtenaldi bat egiteko aukera eukiko ebalako.

Itxaroten eukan.

Andoni'k nundik ezagutzen ete eban, ainbestena ezagutze-ko apostolaritzako batzarren baten gertatuko zirala eta antze-koak, asierako kontuak ziran.

Gero, Susane'k, bere egoera agertu eutsan.

Sits eta bits, zan lez, ez geitu ez ezer eskutatu barik. Bardin Andoni'ren maitasunetan, bai gurasoen ikuspegi, iraultzako ekintza eta beste artu-emonetan.

Eta nai ta ez, ainbat lasterren garbitu edo amaituta laga nai eban kontu lez, gurasoei ezarritako erriaren kuota erabili eban.

Gogor begitandu jakon Beatus'eri iraultza batzordearen erabagia, ain zuzen Susane beragaz gertaten zan egoera eta bere jokabidea kontuan eukita.

Erri kuotak ipintea.. Onetan iraultzaille zan Beatus. Zille-gizat ikusten eban eta artu orrelako jokabidea. Ontzat, eta bes-terik ezean egin bearrekotzat.

Bizikera on baten, «moral» zarrean ez egoala olakorik, bai-ña «moral» be aldatu egin bear dala denporen aldakuntzeagaz batean. Eleizak be, bere denporetan, ezarri edo legezko zitula «borondatezko» deitu baiña borondate itxurarik ez euken es-kintzak, ofrendak, askotan gurasoak nekez jasoteko edo ta ilda-koaren senideen kaltean eta eziñean.

Amarrenak eta asikiñak be ez zirala gogo onez emoten zi-ranak, geienetan beintzat, eleizak agintaritzta bategaz baliatuta ipinitako mozkin edo zergak baiño.

Gizonaren kondaira ikustea baiño ez egoala ori egiaztatze-ko, eta eskomikatze edo eleizatik kanpora jaurtitze askoren oi-ñarria nun sortzen zan ikusteko.

Eta euskaldunok euki dogun ia gizaldi osotako menperatze ondoren, erriaren on eta bizibide barri baten billa iñarduen iraultza taldeak be zerbait egin bear ebela, eta erri eskubide ba-tez baliatu bear zirala.

Gaur lengo zarrei kenduarren, etxeen jabe edo buru lez agertzen diralako, arein ondorengoan mesedean etorriko zala lortzeko zan guztia. Euskalerrian famili asko egozala, beti gain gaiñean, sekula erriagaz arduratu ez ziranak, bere menpetasuna

apurtzen jakin ez ebenak, igarri barik gaurko bizitzako zoritxar askoren erruudun ziranak.

Eta oraingo eriotza, zauritze, espetxe, izorraldi, eskutuan bizi bear eta abar, norbaitek ordaindu bear zitula, zuzentza baten billa dabilzan erri gudarien jazarpenetik etozalako, eta oraindik be, lengo-lengoak euren patxada edo egoera erotsuan bizi naian jarraitzen dabelako.

Baiña ain zuzen, bera ebillan lez, gurasoen giroaren epeletik urtenda, ardurarik garratzenak bere gain artuta, ori ez zala itxura baten iraultzailleen goragarri. Eta Andoni'ren maitale izatea eta beste gorabera guztiak be goguan artzeko zirala

Beste egoera baten, bere gurasoei eta euren kidekoei zer-bait kentzea, lengo eritziari jarraituz, ondo ikusten ebala. Odol bako iraultza baten ezaugarri zalar Goitik berako ondamendi zakar eta nabarmen bakoa.

Susane'ri Andoni'ren deitura gogora etorri jakon: abade gorria. Aren esanak entzun-ala, gero ta ugariago etorten jakon deitura ori burura.

Beatus'ek esan eutsan ori Andoni'ren eskuetan erabagiko zala errazen. Andoni'ren berba bat naiku zala eta ziur egoala Andoni'k, bere gorabera ori, okertzat emongo ebala.

Baiña Susane'k Andonigaz eukitako eztabaidan erabilitako bere usteak barriztu eutsazan.

Eta erabagita eukala ezelan bere atzerarik ez egitea.

Bidea nai eban bakarrik, bete al izateko era.

Gurasoak jakin barik, baiña areik emondako lez agertu nai eban. Erritarrentzat bardin zan. Etxe batetik urteten eban diruak. Etxearen izenean joan bear zan.

Beatus'ek agertu eutsan ba eukala errian, bertan egozan abade zarren artean gaitz izanarren, erdi eskutuan iraultzailleekaz lagun ebillan adiskide bat.

Nekez sinistu eban Susane'k esaten eutsan abadea joko aretan ebillanik. Norbait esatearren izen bat gogoratu eta a aitatu eutsala pentsatu eban.

Beretzat, esaten eutsan arek, ez eukan orretarako odolik.

Beartsuen laguna zan; arein etxeetara joaten zan; ba eukan entzutea eleizan ainka azurrik sartzen ez ebenei geien laguntzearen aldeko izaten zala. Orrelakoak bai. Ortik etorriko zala eleizaren barriztapena eta abar, eslogan ezagunen maitale zala.

Dana dala, amaitzekotan, pozik ikusten eban.

Andoni berberari ez aitatzeko orrelako konturik eskatu eutsan. Aren egoerarik ez larritzeko buruauste barriekin. Gaiñerra berak ez ebala nai, iraultza taldekoen artean, bere familia mesede berezi batez ikusi eragiterik. Bere familia eta bere etxea, aitonon aitonakandik etorrera, pekataritzat ba eukan, eta Beatus'eri ziri lez esan eutsan bere ustea be a izango zalakoan egoala, bera gertu egoala ipinten zan betebearra edo lorra ordaindu edo osotzeko.

Biotz andiko ikusi eban Beatus'ek Susane. Eta buru argi eta ikusmen luzeko. Gure giroaren ezaupide sakoneko eta lotsakor. Kanean zarataka iñarduen asko baiño egitsu, eginkor eta eragilleago.

Konpondu ziranean, Susane'k erriko bankuetxe bateko zuzendariari deitu eutsan. Erriko X abadea joango jakola eta bere kontutik 50.000 peseta emoteko.

Bankuko zuzendariari luze joan jakon bere irudimena. Iku-si zitun andikitako beste bi, aste aretan dirutza bardiña ataraten. Erri dirutzaren eskabidea zabaldua zala eta zerbait entzuna zan. Baiña beartsuekin ebillan abade areri emoteak zerbait itxuratu eban diruaren urteera.

Esanda lez, Beatus'ek euki eban bere lagunagaz bitartekotasun orretarako bear zan jarduna. Susane berberaren aurrean euki nai izan eban, geroko esan-mesanak kontuan eukita.

Esandako dirutza bankuan eskatu, zuzendariari ain zuzen, eta berak erri iraultzako burutzakotzat eukanari emoteko. Eta iru-lau bidar agertu eutsan, Susane'ren izenik aitatu be ez egiteko, onen gurasoakandik artu eta eroana ba zan lez baiño.

Pozik geratu ziran.

Abadeak izentatu eutsazan an burukide lez ibiltei: diran batzuen izenak. Baiña Beatus'ek erantzuten eutsan, izenik ez

ebala nai jakin, berari erraz eta ixiltsuen egiteko eran jokatzeko.

Beatus orrelako gauzetan satorra zan eta besteak izenak emotean, ez eban birresaten, Susane konturatu ez egian. Onek igarri eta eskerrak emon eutsazan, beretzako, ez jakitea, buruauste bat gitxiago zala eta biar edo etzirako lokune (konpromisu) bat gitxiago.

Eta egun bereko eguerdian deitu eutsan X'ek bere agindua bete ebala eta emon eutsana pozik geratu zala eta gabeko batza-rean bere lagunei jakin eragitekotan.

.....

Keixu ebillan Andoni Susane nun ete ebillen.

Tirriña be jo eutsan zaindariari.

Onek, aitzakiz, garbilekuan sartu zala, dutxa artzera eioala esan ebala, gabeko nagi eta nekeak arintzeko.

Baiña luze egiten jakon bere ango egonaldia eta barriro be deituten ekin eutsan.

Ezin egonak, miñak, larrialdiak eta estutasunak luzeago iru-ditu eragiten eutsen orduen ibilia.

Pozik ikusi eban Susane.

Laguntasuna zan beretzat. Nasaitasun bat. Bakartadearen etena.

Gogor eta sendo izanarren, makaltzen asia zan, erreten. Gero ta errezago keixatu, gero ta ariñago naigabetu, eta gero ta sarriago miñen zatzadak asarratu eragin.

Beatus ba letor naiago neuke.

Abade eske? Ain estu zagoz?

Ez. Zeregin bat emoteko.

Txarto ikusi ba zinduz etorriko zan.

Gero etorriko ete? Edo biar?

Egunero igaroko da, nik uste, etxe-oin guztietatik zear.

Atsegin izango neban beragaz egotea.

Pekatuak sakua emon nai dautsazu?

-Pekatuak kontzientziaz ez dot ezer egin.

Asko esatea da ori.

Alaxe da ta.

Ni baiño barru andiagoko zara.

Emakumeak grazi "berezia dozue pekatu kontu orretan.

Eta zeuk beso zabala ba daukazu?

-Bakoitzaren kontzientzia da neurri.

Susane, ez dozu pentsaten Beatus au bitarteko on edo aukerakoa izango gendukenik?

-Zetarako?

Esaten gendun erri kuotaren kontua erabagiteko.

Aitatu be ez, Andoni.

Zegaitik ez? Arek, nik esandako bateri gogoratu eragitea naiko litzeke, besteak errazoizkoa dala ezagutu eta bertan bera lagateko.

Abaderik ez sartu zuen gauzetan, Andoni.

Gañera zure makaltasun bat igarriko leuke.

Nik uste dot, kuota ori ezartean, ez zirala zugaz konturatu.

Ainbat obe, ezarpen onen zuzentasuna ezagutzeko.

Egiña eginda dago ta kitu.

Mesedez, Andoni, kezka ori kendu egizu eta osatzen alegindu.

Ezkontzak ez zaitu artegatzen? Ez?

Ni?

Egon ziñan ba larri!

Zegaitik diñostazu ori?

Ille biko epea ez zendun emon?

Ba

Konturatzen zara elgorri ori noiz erabili zendun?

Konturatuta be alperrik.

Len berde ta orain zuri?

Zugaz ezin lei gorri izan eta!

Laga egidazu eratsu jarri ta lo zorro bat egiten.

Lo nai? Nigaitik, egun osoan be egin.

Bai al ba neu. Baiña ez iñora joan.

Zeren bildur?

Ixo! Ez joan.

Zer esango dabe, ezkongai bi emen ezkondu lez biziten?

Errekaizea, andreri aizea, ez dakizu?

Gure izekok beste bat esaten dau. Zera...

Ez nekatu gogoratzen.

Bai... aizea buruan eta ibili munduan.

Ia ba, or zagoz. Nigaitik nai dozunean.

Ezin danean?

Or dago ba! Eziña bera naiku miña, ez?

Ixildu ziran.

Osagillea sartu zanean, ixilik aurkitu zitun. Lo naian, buruko biren erdian ia galduta, Andoni.

Lo dago?

Ez, ezin dau.

Atsedena komeni jako. Al danik gitxien zirikatu.

Ezin atsedeen askorik, miñekin.

Asko? Andiak? Sarri?

-Gabaz bai. Orduko nekea ta konkorra daukaz orain.

Baregarriak emon eta lo dagiala.

Gabeko osagilleak emon nai izan eutsan, baiña ukatu egin zan.

Zer dala ta? Alergia dauka?

Ez dot uste. Promesa eukala esan eban.

Osasunaren aurkako promesak pekatu dira.

Miñari berez eustea, logarriekin arintzea baiño osasuntsuago ez al da?

Miña miña da beti.

Osagilleak aztertu eban.

Astiro ta zeatz.

Zauria zabaltzerik ez jakon ondo iruditu. Biaramonerarte lagatea obe zala.

Baiña pultsua, gogordura, biotza eta abar arakatu eutsazan.  
Atsedena eta atsedena. Ori da onentzako botikarik onenar  
Denporak bear, baiña baketan.

Kontu esateko gogorik eukiten dau?

Gure artekoak.,

Kezkatiak ala jolasak?

Danetakuak.

Buruaste asko darabiltzue zeuon artean?

Gaztcenak.

-Ezkontzako asmotan zebiltzen?

Gazteak asmatu ta gurasuak ukatu.

Etxe guztitako pekatu.

-Eta beste burukomin asko!

Gaixotegira ez etorri kaleko kontuekin.

Eta uxatu ezin ba dira?

-Jo ta puts.

Emen berba bat erabili bear da bakarrik: osasuna.

Ori litzake gure ondasuna.

Ondasuna ez, osasuna esan dot.

Entzuna da, bai.

Iñor etorten da ikustera?

-Kapillaua bakarrik bein.

Bildurtu zan?

Ezagutzen ziran.

Iraultzatik?

Iraultzailea al da abadea?

-Entzutea ba dauka. Pozik joango ei litzake mendira.

Iñor ilten?

Ia, diñoenez mundu barri bat lortzeko...

Kontuak entzuten, Andoni?



-Erdi entzun, erdi amets.

Obeto zagoz?

Ez.

Alaxe da.

Alaz eta be ez etsi. Zauria garbitzen ba da, eta ez dot uste sornatuko danik, biartik aurrera asi bear zifake aurreratzen.

Oraindik, egia da, ez dozu atzerakadarik eten. Eta errua, orren erru bakarra, zeurea izango da.

Ez zaitez nekatu. Gauzak astiz artur Ez keixatu.

Naiko zenduke oneri emen egoteko baimena kentzea?

-Jaungoikuagaitik!

Zein Jainko? Zeuona? Iraultzailliena?

Bakarra!

-Jarrai.

Eta ateko iragarkirik, gaur beintzat, ez kendu.

Eta biar? Gurasoei deitzeko be...

Gaurtik biarrera ogetalau ordu dagoz. Ordu luzeak ez, Andoni?

Joan orduko, eskutik oratu eta Susane'k jardun eutsan:

Entzun?

Kezkak kendu.

Ba dakizu zelan kentzen diran? Erabagita.

Zutzat erabagita dagoz.

Danak.

Ez dautsut esan ezkontzerik nai dozun?

Barrero adar joten?

Zer daukazu besterik?

Gure arteko ori. Zure kuota ori.

Ori egin zan eta kittu.

Bidebakokeria da baiña.

-Zuri al dagokitzu?

-Ta biori ez?

-Biori? Ezkontzen zareanean. Bitartean bakoitza bere alde-tik.

Elgorria zeñek batu dau orain?

-Elgorria gorria ez da ba? Gorri zarenetik, zuk niri egotzi eta eldu erazo.

-Egun gangarra daukazu gaur.

-Aizeak atzetik ekarten dau ekaitza

Bai ekaitzak be barea. Ori da bizitzako katear Zu eta ni ibi-liko garean lez: kalma zuri eta ipar baltz

Gau ondoren, eguna argitu orduko, gela jaso ta garbitzai-llak etozanerako, zerbait gertuta eukiteko denpora artu baiño len, gaixo zaindariatako bat sartu zan gelan, eta ixillean Susane'ri esan mesedez atera urteteko.

Polizi bat egoan atean bertan.

Susane Emaldi, Karlos'en alaba?

Ni naz.

-Lagundu bear daustazu.

Nora?

Komisaritzara.

Zer dala ta?

Agindu ori daukat.

Mesedez. Begira gaixoa zelan dagon. Konturatu zaitte. Ikusten dozu ateko iragarkia? Iñor ez sartzeko. Txarto be txarto dagola esatea beste.

-Baiña zu ez zara gaixo zagozana.

Ez.

Eta nik zu eroateko agindua daukat.

Eguerdian ni joango naz.

Ezin lei.

Berba emoten dautsut. Nire berba.

Ez dau balio.

Uskeriren bat izango da ziurretik.

Edo ta zuk uste baiño andiago bat.

Gaixo zaiñari jakin eragin eutsan Susane'k zela ala Andoni kezkatu barik eukiteko.

Eta kapillauari esateko, tarteren baten ikusi nai ba eban, eta bera zeñek eroan eban be esateko.

Eta amorruez poliziari:

Goazen.

Eskurik ez daustazu Jotzen? Begirapen asko eukitea da ori. Eskerrak.

Ainbesteko fede?

Gaixo bat zaintzen be laga nai ez?

Iraultzaren aurka diarduzue, eta ez zarie konturatzen asarre lagaten dozuen bat iraultzaille azia dala?

Polizikoak ezelako erantzunik ez. Jaramonik ez.

Zenbat eta ixilago, Susane'k biziago:

Ia ilda laga zenduen eta orain zaintzen be ez dozue lagaten. Eta orreik gorriak dira, iltzailleak, azpiratzailleak, eta zuek zuriak, zeruetako santuak?

Gure errietatik zuenetara zoazala eskatzen dabenak, uste dozu ez daukela errazoirik? Zentzu oneko ez da eskabide ori?

Komisaritzara eldu ziranean, gela baten sartu eben. Ezagutu zitun sarreran len ikusitako arpegi batzuk.

Ez jakin zenbat denpora egon zan gela barruan. Orduak, ziranak, bestetan baiño luzeagoak iruditzen jakozan.

Ainbeste denporan eukiteko, konturatu zan ez zala izango itaun bakar bat egiteko. Beste zerbait bitartean egongo zan susmoa artu eban. Bildurra *bere* bai. Erriko kuota ete? Baiña ain arin? Ume lez jokutzen iñarduen batzuk ete egozan iraultza bartzarrean?

Eguerdi aldera deitu eutsen:

Ez ziñan oraintsu emen egon?

-Amar egunetan, eta ezelako kargu barík kalera bialdu.

Ta barriro etorteko gogotan?

Ona etorteko gogotan egon leikezanak salatariak dira.

Zelan? Barrero esango?

Ba salatariak dirala, erriaren salatariak.

Zu txori zarra zara ta ez gara ibiliko egazka adarrik adar.

Zer dakizu erri dirua dala-ta?

Nik neuretxoa eukiten naiko zeregin.

Baiña jakingo dozu zerbait.

-Zer da erri dirua?

Nai ba dozu, erritar batzuei ipinten dautsen kuota.

Zetarako?

Iraultza batzordeak nai dabena egiteko.

Eta nigaz zetan zatoze?

Zure gurasoek ez dakielako ezer!

Kapitalista lez itandu dautsazue arei?

Erriko jaun zigortuak lez.

-Eta niri erri iraultzako lagun lez?

-Jakin zeinkelako zerbait.

-Ezer ba dakie gurasoak?

Ez dakielako, edo ezer ez dabelako esan nai, zure aita baitua, preso dago erriko kuartelean.

Nire aita? Karlos Emaldi, bizi guztian zuen estaduaren goratzaillea, preso?

Alaba lez, ezin nei sinistu. Ezin nei. Eta ala ba da, oindixek diñotsuet, iñoiz egin dozuen bidebakokeririk andiena egin dozuela.

Goizaldean errian egin diran baituretan, an billatu diran zerrendetan, zure familiaren izena agertu zan.

Ba dakigu areik ze eratara pentsatuten daben eta zu nundik zabilzan.

Polizi onak izango ziñateke lau gizalditan idea bateri lotuta egon diran zaldunak, ori dira-ta, zaldunak...

Parkatu, guretzako jaunak.

Niretzako jaun zaldunak.

Uste dozue arein zintzotasunean, iraultza baten bildurrezko aldaketarik egon leikenik?

Areik zintzoak eta alaba? Kanean dabiltzan lau izkiko zantzar guztiekin batuta?

Bat baten sututa jagi zan Susane. Itsu lez, komisariori paparetik oratu eta esan eutsan:

Zein zara su niri lau izkikó deitzeko?

Zein zara zu?

Eta beretik urtenda, aginka egingo eutsan alderdi egokirik eratsu billatu izan ba leutsa.

Pistola atara eutsan zaindaria.

Ez daust ardurarik lau tiro emon da be. Baiña zeuk galduko dozu.

Konturatu zan zaindaria galtzekoa eukana. Esaten asi zan ez ebala esan bera lau izkiko zanik, areikin batuta ebillala baiño. Eta berba bigundu edo itxuratu naian asi zan.

Ixildu zan Susane.

Berak lenengotik lau izkikotzat artu ebanari arpegirik ezin emon eikiola erantzun eban, edozer gertatuta be ezetz Denpora etorriko zala ziñaldari, lekuko.

Ikusten zan zaindaria damututa egoala, baiña ez eban damurik agertu nai izan eta ez eukan urteerarik.

Egoera a eteteko, arratsalderarte barrero gela baten sartzeko agindu eban.

Arratsaldean agertu zan zaindaria ez zan goizekoa.

Aren makaltasuna igarri eban Susane'k.

Ezetan asi baiño len salakuntza bat egin nai ebala. Ez eutsen laga.

Andik kanpora nai ebana esan eutsan, baiña an ezin eikeala.

Itxuraz komisarioak ez eukan baituta eukiteko agindurik, itaun batzuen erantzunak lortutea baiño.

Goizekoari jarraitu eutsan.

Zer dakizu zure familiari eskatu eutsen diruetzaz?

Gurasoak eurak ba dakie, ez dauke adin txarra eta ez dira motclak erantzuteko.

Ez ei dakie ezer

Zeiñek daki?

Zure erritik dakigu ori erantzun dabela.

Ziur nago emongo *ez* ebenik.

Zeiñek eskatu eutsen?

Ez dakit.

Norbait joan zan etxera?

Ez dakit.

Zeu zabiltz Andoni zainduten. Zenbat diru bialtzen dautse Andoni'ri bere bear izaneterako?

Nik dakidala zentimorik ez.

-Ezer bialtzen dautsue zuri? Zeu zabiltz Andoni zainduten. Orrelakoak ordainduak izaten ei dira.

Ez neuke artuko orrelako dirurik.

-Zegaitik ez?

Maitasunez lan egin nai dodalako.

-Zeintzuk izan dira dirua batu dabenak?

Ez dakit.

Zenbat batu dabe?

Ez dakit.

Zenbat batzeko asmoa euken?

Ez dakit.

Guk ba dakigu abade bat bitarteko ibili dala.

-Abadeak izaten dira diru batzaille onenak.

Ba dakigu Bilbo'ko urrutizkiñez agindua emon ebala ban-ku batera, aren eskuetan onenbesteko bat lagateko.

Ba nekien lendik telefono batzuk bitartekotuta egoten di-rala.

Ta?

Orrenbeste ba dakizue, eta ziur jakin, ez daukazue nire ai-

tarik baituta zetan euki.

Zegaitik ez?

Ez dozue esan nai nire dirutzatik ordainketen bat egin dala?

Ez dira telefonoak bakarrik bitartekotuta dagozanak. Bankuetan baiño salakuntzetan diru geiago irabazten daben gizonak be ba dagoz.

Zure ustea da ori.

Uste eta sinistea.

Eta esango dautsuet.

Ziurtaten dautsuet. Neu naz ni Susane Emaldi, dirutza bat emon dodana. Ez armak erosteko, ez iñor ilteko. Jazartuta eta premiñen dagozan erritar batzuei laguntzeko baiño.

-Borondatez emon dozu?

Ukatu, neikean.

Zeiñek eskatu eutsun?

Ez dakit. Eta nire gurasoak be ez. Ez ekien eskatu eutsenik be, eskabidea atepaan nik artu nebalako. Eta eurei atsekaberik ez emotearren, ni izan nitzan kuota ori ordaindu nebana.

Ortarako adiñeko naz eta ni jaubetzen naz egitada orren ondorenekaz.

Zeiñeri emon zeuntsan?

Ez dozue esan, ba dakizuela abade bat bitarteko egon zala?

Orri bat emon eutsen izenpetzeko.

Aurrez beteta irakurri nai ebal.

Bete eben.

Esana esan lez garbi ipini eben.

Origaitik izenpetu eban.

Gaixotegira joan eikeala esan eutsen, baiña andik iñora joatean, jakin eragin bear ebal.

Andik etxera eta etxetik ara ibilteko beste asmorik ez eukala erantzun eutsen.

Alaz eta curen agindua ori zala eta Bilbo'tik urtetean jakin

erazoteko barriztu eutsen.

Gaixotegira eldu zenan, Andoni makal egoan. Etsipenez. Kirioen joaldiren bat euki ebala jakin eragin eutsan gaixozañiak. Batez be Susane berberaren egoeren kezka.

Komeniko zala, aretan jarraitzekotan, beste norbait bere ordeza ara eroatea, eta bera etxera joan.

Etxean egoalakoan estutasunik ez ebala eukiko. Eta orretara, poliziak etozan bakoitzean, ezinbesteko larritasunean geratzen zala, dan dana beragaitik edo bere ondorenez etorralla ikusten ebala.

Susanc'k ez eutsan ezer eskutatu nai izan Andoni'ri. Garbi edestu eutsan zetara croan eban, eta andik zer jakin eban.

An egoala amak deitu eutsan telefonoz, etxean eukan atsekabea agertzeko. Ia egun guztian euki ondoren, aita etxera bialdu ebela. Aitak oraindik be ez ekiala ezer. Ez ekiala aitatzen eutsen dirutzaren barririk.

Susanc'k erantzun eutsan bera ere egun guztian egon zala komisaritzan diru kontu origaitik eroanda. Baiña nasai egoteko, azke laga eutsela-ta.

Egingo ebala berba, telefonoz gaitz entzuten zalako. Ziur ekiala bitartekoak ebizalako zala ta amaitzeko, alperrik jardun barik.

Andoni'ren barriak emon eutsezan. Orrelako naigabeak itzalduta eukela. Oraindik an jarraitu bearko ebala.

Aitak urten eutsan.

Komisaritzara eroan zaitue?

Goizean.

Zer itandu dautsue?

Ia ba ete nekian zeñek eskatu eutsuen dirua.

Ta?

Zer erantzungo neban ez nekien eta?

Besterik ez?

Ia zenbat diru emon ete zenduen.

Eta?



Lengo erantzuna. Emon al zenduen ezer?

-Goizaldean sartu dira etxe batzutan. Eta esaten dabenez, diru mordo bat billatu eutsen, bateri. Gixajoak etxean go deta arek. Gaurko gaztien kontuak. Fede onean, poliziak baiño geiago dakielakoan.

Zuei karlatarroï billatuko eutsuen iñoiz liberalak órrelako gauzarik?

Umorea daukazu gaurko egun lotsagarria igarota?

Eta urrutizkiñaren jarduna eten zan.

Naiko berba egin ebela ta ez bata ez besteak ez eben barriztatzeko alegiñik egin.

Pozik geratu zan Susane aitaren itaunetan geiagoko erantzunik emon bearrik ez ebalako euki. Guzurrik ez eutsen esan beiñik-bein eta edozein egunetan bere burua garbitzeko gai geratzen zan.

Andoni'k be nai eban jakin zerbait.

Erriko gorabera zetatik etorriko zan bere erara azaldu eutsan. Aitak esanda lez, iraultzalletakoren bat diruagaz baitu ebela.

Pozik egongo zara emon ez zendulako?

Ain zuzen atzo emon neban.

Zeiñeri?

Beatus'eri eskatu neutsan bitarteko izan eta errian beste norbaiteri zeregin ori artzea eskatzeko. Eta an abade bat billatu ei eban. Baiña zaindariak ba ekien abade orrek eroan eban diruaren barri. Dirudienez salakuntzaren bat egon zan, edo ta gazteren bateri abestu eragin eutsen.

Beti lez izango zan. Tripak atarata.

Ziurretikr

Ariñegi ibili ziñan.

Nik ez daukat damurik.

Dirua galdata be ez?

Emon ez ba neu, luzera jota gure salakuntzaren bat izan ete zan be aizetuko eban norbaitek.

Luze begirutzen dozu.

Geroago biok egin bearko dogun lez.

Amaitu da ori. Ezkontzako amar milla ogerleko gitxiago ta kittu. Baiña burua garbi ta barrua bekaizkerizko ar barik.

Ori be alaxe da.

Eta aitak jakiten dabenean?

-Gure otsoa ez da dirudian antzeko.

Asarratuko da.

Zeuk ez dakizu esaten ba karlistak sekula ez dabela gerrarik irabazi?

Beatus agertu zan.

Dana ekian.

Zelan?

Goizean, jakin orduko nagusiagaz berba egin eban.

Arek lenengotik agertu eutsan zer zan. Eta agindu be bai ez zala ezer gertatuko.

Erriko deia bete bear ebala eta aretako zala.

Komisaritzan ziur ekiela Karlos'ek ez ebala dirurik emon, jakin be ez ekialako eskabiderik bialdu eutsenik.

Bankutako kontuetan ikusi ebela polizikoak, ez ebala aste guztian diru sartu-atararik euki.

Baiña barriro itandutean, baitu eben mutilla izan zala autortu ebana, dirutza zati bat abadearen bitartez emona zala.

Beriala atara eutsen ango abadeari berari Beatus'ek emon eutsala bitartekotasunaren aitasuna. Ez ekiala zetarako edo zegaitik izan eikean dirutza aren eskintza.

Eta urrutizkiñaz esan eutsala zaindari batek Susane'ri zer gertatu jakon lenengo itaunketan.

Ori jakitean berak otoi egin eutsala, gaixotegiko egoera eta premiña ikusita, ainbat lasterren erabagiteko.

Ba ekian komisarioagaz euki eban asarraldia be.

Ba ekian polizi a minduta egoala, olakoetan arrokeriz oitzat artuarren, ustez egoki ez zan esaeraren batek urten eutsalako.

Alaz eta ziur egoala beragaitik, Susane gaitik, ez ebala esan olakorik. Bere gomutetan, kalean dabiltzan lau izkiko zantar guztiekin batuta esan ebala, ez bera orrelako zanik.

Eta bera zan, Beatus berbera, or sortutako oker ulertzea bertan bera laga nai ebana.

Txakur orrei parkatu ezer bere ez, Andoni'kr

Gogoratu: zazpi bidar zazpi, Beatus'ek.

akiña, zu iraultzaile zarela esanarren, beti be abade zara-ta!

Abadeak ez al daukagu iraultzaille izateko eskubiderik?

Eurak ba al dakie atzerarik egiten?

Bat bateko esaera edo urteera izan zan. Konturatu. Ez zan arratsaldean jarraitzen ausartu. Lotsatu egin zan. Ez zan ausartu zuri zigorrik ipinten.

Zuk parkatuko zeuntzake?

Len be esan dot: zazpi bidar zazpi.

Gaiñera ez eban esan kalean ebiltzanak danak orrelako ziranik. Kalean ebiltzan orrelako guztiekin bat eginda baiño.

Nok daki kaleko orreik orrelako diran?

-Danetarik ez gara munduan?

Parkatuta ezer irabazten dogu?

Irabaztearren parkatzeak ba dauka bere arantza. Nun geratzen da norbere izate zintzoaren giarra?

Alaz eta nik irabaziko neuke zerbait besteren baten mesedean.

Irabazte ori legezko dan gauzaren baten lortzea ba da, ori ez da irabaztea Iñok baiño lenago bete bear leukie eurak legea

Orretara ezkerro, legea, legea deitzen dana, danontzat bar-diña da.

-Ez da erritik datorren legea. Ta erria da legearen ama

Beretzat be ez.

Bera lege orren aldeko da eta zaindari.

Auziari bertan bera gatz emotekotan geratu ziran.

Andoni nekatuta egoan.

Egun aretan be atzerantz geiago egin eban, oberantz baiño.

Inguruko egoera zan garraztuten ebana.

Bakarrik geratu ziranean Susane'ri esan eutsan.

Miñetan nago.

Ez dot uste emendik urtengo nazanik.

Ainbestean etsita?

Benetan.

Adoretu zaite. Nigaitik.

Ez dot uste ni aldentuta galduko dozunik.

Ez egizu orrelakorik esan.

Gogorra da gure burruka. Iñoiz pentsaten dot pot egin dogun gazte zoro batzuk garela.

Dabid Goliat'en aurka.

Baiña errazoaia gugaz.

Erriari zoratzen laga dautsagu.

Lau berba gozoz erria goraka asten da. Gero beratu ezin.

Iñok maite ba dau maite dot nik erria.

Ba dakit.

Gero makillakadak emoten dauskuez.

Mundu guztia dabil zigorren aurka.

Paperetan bai. Baiña zigortzen jarraitzen da. Toki guztietan. Mundu guztian.

Eta ezin geinke Kristonik egin.

Zegaitik ez?

Orduan arpegiko bat emoten eutsuen ta kitu. Gaur tiroka joten zaitue ta ikusten dozu.

Gaur itzalerako zagoz.

-Bertan ilten dabena martiri andi geratzen da. Txarrago da au, tiro bat emon, eta nekez ilteko zatzada baten antzekoa sartu.

-Andoni, aldatu daigun gure jarduna. Zeure onarren.

Gaitz.

Negarrez ipiniko nazu.

Ez dakit besterik egiten.  
Galduta laga zaitut, Susane, bizi guztirako.  
Egon zaitetz ixilik. Ekatzu musu bat.  
Ezin nei.  
Zegaitik ez?  
Ez dautsut emon bear. Judas'en antzekoa litzake. Salduta laga ondorengoa.  
Pozik nago zugaz. Ni izan naz zure atzetik ibili naizena.  
Nik atzipetuta gero.  
Atzipetuta ez. Mesedez. Aitatu be ez ori.  
Zer da besterik bizitza eder bat eskiñi eta orren orde z gaitxotuta lagatea?  
Ez jarraitu!  
Eta bizi guztirako zoritxarreko egingo zindudakez.  
Zu ez zara gure arteko borroketan ibiltekoa, Susane.  
Zuk beste erako borroka egin ziñei, eta egin dozu igarri barik. Eta bear ba da guk baiño mundu obeago bat lortur  
Erria gareala uste gara, eta gara, baiña gu baiño ugariago dan erritaldeari lepoa emonda gabiltz.  
Kristo bako apostolu garar Nai ta ezin.  
Ixildu ziran.  
Ez luzaroko.  
Barrero asi zan Andoni:  
Gaur errian baituko zituenakin gogoratuta nabilr  
Ez dakit zeintzuk.  
Edozelan be gure lankideak. Gure burrukalariak.  
Eta etsipena artuko dabe. Lepoan artu ta segi aurrera.rr esan egiten da. Baiña zearo gaitz da.  
Andoni! Aizatu pentsaera berakor orrek. Gaindu zaitte.  
Ezin dot. Ezin dot.  
Ez dot ikusten...  
Lausotuten nator... Ba nua...

Tirriña joten asi, deika Susane.  
Agertu ziran zaindariak.  
Eta osagillea.  
Oxigenoa ekarri eben.  
Emon eutsezan biotzaren bizigarrizako zztada batzuk.  
Izerdi likiñetan busti zan.  
Osagilleak uste baiño nekezago itxartu zan.  
Sueroa ipini eutsen.  
Eta oxigenoa.  
Esnatu zanean negarrez asi zan.  
Etsipenaren asiera?

## Une larrietan

Gizon bulartsua zan Andoni.

Aurrera jo ta ke ibiltekua.

Akats bat eukan.

Atzerik ikusteko ez eban balio.

Bere zoritxarrak eta nekeak eta ondamendiak ez eutsan ardurarik.

Bere albokoen zoritxarrak eta argalkariak gaixotu egiten eban.

Salduta ikusten eban berari bete-betean eskiñita ezagutzen eban kutuna.

Salduta gaztetasunaren adore eta indarrez iraultza zintzo bateko bere lagunak.

Beragaitik saltzaillien sarean jausi izan ba ziran lez.

Lau mutil eta neska bi baitu zituen errian azken gau erdian, bertako zaindaria. Obeto esanda, Laterriak bertan eukazanak.

Dirua eskatu eutsen batek egin eban lenengo salaketa. Aren agerpenak begiak zabaldu.

Ordutik zur egozan zaindaria. Azpikeriz jokatzen iñar-duen, zein-zeiñegaz ikusten eban, bankutako sartu-urten, gazteen taberna eta barretako gastu eta antzerakoak oartzen.

Erriko batzar edo asanblada joko, jazarpen denporetan, erri aurrerako adoretsu eta itxaropentsua da, bizigarria Baiña argibide geiegi emoten dira kalerar

Zaindaria ba ekien Andoni nun egoan.

Ba'ekien arek ez eukala erriagazko artu-emonik, bitartekorik, zauritu ebenetik.

Baiña aren itzalari eutsi naian ikusten zituen gazteak, iraultza taldetan, ia eguneroko illuntzetako elkarte, batzar, asanblada

eta kaleko agerraldietan.

Diru eskabidea artu ebenak bildurrez egozan. Artu orduko jakin zan zerbait. Birek lagun artean zabaldu eta erakutsi eben curen estutasuna. Iñori ez esatekotan agertzen eben. Baiña esate ori bategandik bestegana, ainbat bidartu zan. Azken baten ia erriko geienak jakiteko aiña.

Besteak lenengotik salatu eban eta agintariei erakutsi berak artu eban eskabidea.

Baiña salataririk ariñcnak izaten dira bildurtienak bere, eta eurak izan ziran dirua lagateko agindu eutsen tokian, denpora bete orduko, laga ebenak.

Beste biak be ordaindu eben.

Ez eben lortu zaindariaz azken bi oneik dirua nun lagaten eben jakiterik. Salatu ebenarcna bai, baiña berak dirua laga ta biaramonean jakin erazi eutsan poliziari nun laga eban.

Danetara be, salatari ta larri, arpegi biko.

Laster igarri eben iraultzako mutillak zerbait ba ebillala bi-tartean, dirua laga eban tokian, eta inguru guztian, bia amonean ainbat zaindari zelataka ikusten zituelako. Barre egiten eben, berandu zalako, baiña gero ta kezka biziago barruan igarten ebela.

Bestecnak toki *ez* bardiñak ziran, eta ez ziran alegindu aldatzen. Eta areik be, batak esandako tokian, eta besteak, ondasun andiak eukazalako ta oker geiago egingo eutsen bildurrez, bitar-teko bategaz bialtzen eutsen berari egokiona.

Carlos'ena falta zan. Ez eben laga esandako tokian. Baiña egunak igaroten laga eben.

Zaindariaz ez eben pentsatuten ordaindu ezik areri ezer egingo eutsenik. Baiña adi egozan.

Oiturazko ez zan bat ikusi eben diruetxean sartzen.

Atean zaindari egoanak, txarrik pentsatu barik, abadea zer egiten joan *ete* zan begira egoala, diru mordotxo bat artzen ikusi eban.

Gero, kalera urten eta kantoi baten egalean zain egozan mutil bigaz geratzen ikusi eben eta eurckin joaten.



Eta areititik bat kalez kale ibilten zanetakoa zala ba ekian.

Orrez gaiñera, bankuko batek bere zalantza erakutsi eutsan bere politikakide bateri ta onek, erosia zan-eta, zaindariei jakin eragin.

Onela ziur egon ziran eta ez eben gaitz izan, gaba egin ondoren, txoria billatuko eben etxera joatea.

Arek, zaindariak zearo ekiala ikustean, lepokada eta zaplalden bildurrez, dirua zeñek emon eutsen agertu eban.

Laster joan ziran abadearen etxera. Arek be ekian lako autortza egin eban.

Nundik eta zetatik etorran ez ekiala, eta Beatus baitutekotan geratu ziran. Baiña kapitanak telefonoz eskatu eutsan ekiana esateko ta ez jakiñeko bitartekotasuna izan zala esanez erantzun.

Erritik salatu eben Susane, erriko zaindariatik.

Dirurik geienak osorik eukezan gazteak. Esku garbiko ziran orretan. Kontua zeatz ipinita euken, egunen baten erri batzarran erakutsi ta egiaztatzeko.

Origaitik baituen artean ba egozan diru pixkat artuta eukinak, euren lanen orde, baiña kopuru txikiak ziralako ez eutsen orregaitik ezer egin.

Gertaera orrek, gabeko orduetan etxetan sartu, arakatu ta ikuste ta guzti izan zala kontuan eukita, zer esan eta zotin andi ta ugaria atara eban.

Susane bera ez zan erritarren artean ondo gelditu, bere aita azken ordurarte ukatu ete zan suzmoz eta atzerapen orrek poli-ziagazko artu-emon edo konponketak bitartean zitulakoan, eta gero, indarkeriz jokatzeko aukera emon.

Gaiñera bera etxekoen diruekaz jaubetzearren izango zalakoan etsiten ebenak be ba ziran tartean.

Erriak, sakoneko gauzarik ez eukan erriak, politika zentzuz, errez eta patxadatsu zan ikusbegiz ikusten eban.

Gaixotegian egonarren urrun geratzen zan Andoni baten eragille irudia. Ikutu ezintzat, baiña urrun.

Urrunago oraindik, baiña ez aitzaki barik eta akatsik barik

Susane baten jokabidea.

Andoni'k ondo ezagutzen eban jokabide ori eta betetasun oso eta zintzoz erantzuten eutsan Susane'ren jokabideak ez eukan, beretzat, ezelako argalikeririk.

Baiña gaixotegiko bakartadeak, bakartadeak baiño miñak geiago, eta geroko beste gertaerak, zearo illundu eben eta bere izate giarratsua aulduta laga.

Errian egon ba litz pozik ibiliko zan jazartuen artean. Pozik, edo ekiñean beintzat.

Baiña erriaren ekintza, beste asmoetatik atara eta bere ize-naren inguruan ezagutzeak, arrotu baiño itzaldu geiago egiten eban, berak ez ebalako ezetara bere ospe ta jauntxukcririk biltlatzen. Eta egoan lez egonda, orrela zerbaiten elburu biurtzen zala konturatzen zan.

Ori, beretzat, iraultza ardura eta zeregiña txikitutea zan, indarra galdu eragitea, erri baten joko eta naia gizon bakar baten begira gelditzen ziralako.

Eta gizon bakar baten aldeko ekintzak erri baten lana berganatzeta, ez eban ondo ikusten. Egin bearreko, bai, baiña zeregin andiagoak bastertu barik. Eta bere barruko pentsaeretan orrek be samindu egiten eban, lotsatu.

Susane'ren betetasuna erriak ez ezagutzeak mindu eta negar eragiteko giroan lagaten eban lez.

Alaz eta ba'ekian Susane apala zala, ez zala berekoia, eta ez ebillala izen edo ospe baten billa.

Ziur egoan gaitz izango ebala bere antzeko beste emakume bat billatzen.

Origaitik erantzun eziñak eta bere lagunak bere nortasunean ez ezagutzeak emon edo sartzen eutsan naigabeak, itotasun lako estutasun bat ondoretuten eutsan.

Txarto, benetan txarto igaro zitun egun bi. Txarrena pentsatu eragiten.

Orreitako ordu asko, une asko, Beatus'en ardurapean eta bere onespenak artzen.

Etxekoei deitzeko egon ziran, baiña ez eutsen egin, negar

baño ez ebelako egingo. Berak eta eurak.

Zerbait ulertu eragin eutsenean, naiago ebala ez deitzea, itzal egotekotan an egoala bera-ta.

Beatus'eri agertzen eutsazan bere barruko eta eskutuko gogo eta autorpenak.

Ez asko.

Olgeta benetan zerbait erraz ataratea lortzen eban zirikilaria zan Beatus. Berbatik ten eragiten ekiana. Neke barik.

Iraultzako kontuak edestuten, nai ta Andoni ixilik egon, poztu egiten zala igarten eban. Eta orrelakoak, dan danak egiak izan ezarren, asko ekiazan lez, une batzuk atsegiñez beteten eban.

Susane, beste aldetik, kezka eta ardura zan Andonirentzat. Pentsabide sakona.

Beatus, atsegin eta atsedena.

Susane, ikusi ordurako, bere eziña eta txikitasuna gogoratu eragiten eutsana.

Beatus, ostera, ikusi eta iruditu nai eban istori barria. Ametsei luzatu eragitea, min, naigabe eta atsekabe barik, zerbait lortu danaren ametsetan.

Beatus'egaz bere biziaren katea luzatu egiten zan. Laster igarri eban Susane'k eta bere naikeri guztia al bestean bastertzen jakin eban, Andoni'ren bakearen mesedean. Bestetik, txarrena pentsatuta, berak baño Beatus'ek obeto lagunduko eutsala ikusten eban azken bidea aukeratzeko unean.

Zirikalari zan Beatus.

Gaixo bateri inguru atsegiña errez billatzen ekiana eta pozaldien bat emon.

Gaixoari bere alderdi argala billatzen bakana.

Bein Andoni'k:

Txarto nago?

Bai.

Ilteko?

Danok bizi gara ilteko.

Baiña ni? Laster, ez?

Zelan ilgo zara laster Bizitzako Asegurantzako edo Babeseta-ko dirutza datorren urterarte ezin zeinke artu-ta?

Alaxe ez da ba?

-Bai. Zelan dakizu?

Egun berean egin gendulako gure poliza.

-Bai, alaxe da.

-Eutsi orduan.

Al ba litz...

Lotsagarri izango litzake asegurantzeko bitarteko batentzat bere politza txarto neurtuta eukitea.

Andoni'k eskua luzatu eutsan.

Ainbat eukazan orrelako ataraldiak.

Gaixoari bere une larria aztu eragiteko egokiak.

Ipuin, guzur eta abar.

Baretsu igarri eban egonaldi baten, Andoni'ri esan eutsan:

Susane maite dozu?

Asko.

Benetan?

Ba dakizu.

-Ta berak?

Berak esatea dauka.

Zuk zer daukazu bere aurka?

Ez nintzake ondo, ezer ba neuka.

Eta zer bere mesedean?

Emazteki ona ezagutu dodala bete-betean.

Ori entzun eta deitu eutsan Susane'ri:

Ba dakizu au nor dan?

Ze eskutaten dozu eskabide orretan?

Maite dozu Andoni?

Ondo daki.

Asko?

Berak aiña edo geiago.

Benetan?

Gure urtetan ezin ibili olgetan.

Eta alkarri eskua emon eragin eutsen.

Orduan berak:

Pozik?

Bai.

Estutu ondo.

Ikasketak eragiten?

Nungo ikasketak? Entzun biok:

Jaunaren aurrean Andoni eta Susane senar eta emazte ez-konduta lagaten zaituet.

Gaixo zain au lekuko, testigu.

Andoni keixatu zan.

Ta ilten ba'naz?

Susane len lez, birgin.

Alaxe dala nik diñotsut.

Eta Susane'k:

Benetan ezkondu gaituzu?

Umeak al zarie olgetan ibilteko?

Ain errez?

-Jataldi ta guzti nai zenduen?

Baiña Eleizaz?

Ez al naz abade?

Geiagoko barik?

Zer geiago bear da?

Erastunak eta...

Denpora eukiko dozue erosteko.

Eta arrak?

Zelako arrak?

-Diruak.

Zaindariak kentzeko?

Iribarre garratza egin eban Susane'k.

Andoni'k, berbarik barik, begiekin, ulertu ebalak jakin eragin.

Andik ordu batera, berak izenpetuta, paper bat emon eutsen.

Paperak, zeatz, au esaten eban:

«Eriotz arriskua ikusi eta bien alkarrenganako maitasuna ezagututa, curen gogoak alaxe zala igarrita, baimen eta gurasoen on-iritzietarako euren adiña be kontuan eukita, ezkondu egin dodaz, gaur, Bilboko gaixotegian, «in facie Ecclesiae», Andoni Zugaza eta Susane Emaldi.

Eta ala egin dodazala idazki onen bitartez egiaztatzen dot,, nai ba dabe euren parrokiako liburuetan agertu dedin».

Eta Beatus'ek, bere artean barre eginda:

Nik artzen dodaz eskubideak!

Egunen baten abade izatea kenduko dauste: «A divinis» zigortu ta lurra jota geratu.

Baiña, dana dala, andik aurrera biak, ezkonduetako sinismenez uste ziran.

Andoni'ren bare alde baten, Susane'k:

-Ez zara asarre egongo.

Oso osoan zeureagaz urtetea lortu dozu.

Gizon eta andra gara. Senar emazte.

Eta gogoratzen?

Illebiko epea emon zendun bein.

Ori lortu dozu.

Eleizaz ezkondu bai, ez, ezprietan ibili ziñan.

Fraileetan ezkonduko gara nunbaiten, esan zendun azkenean, baimena emoten lez, eleizaz ezkontzeko.

Nik eskutuan ezetz, esaten neutsun.

la zegaitik ez, ekin zuk.

Eta nik, erdi fraile geratu zan zure **adiskide** batek ezkontze ipinten neutsun, **zirikalari**, nire **zalantzen aitzaki**.

Zeñek esango, eban, ez?

Orra ezkondu, eleizan egin barik eleizaz, gurasoei be ezer esan barik, eta zeure antzeko erdi iraultzaille dan abade bategaz.

Ori baiño aukera obeagorik nai?

Ez dozu esango ezetan aurka egin dautsudanik. Azken baten, konturatu barik be, edo gure gauzak eta egoera orrela gertatu diralako, danean lagundu izan dautsut.

-Pozik nago eta eskerrak, Susane.

-Ni be bai, Andoni.

Eta ezkondu ondoren lenengo musua emon eutsen alkarri.

Zarata gitxi ebillan errian.

Azkenengo baituen artetik batzuk askatu zituen.

Alaz eta barruan eukezan bi.

Eta auzitegira eroango zituelakoan, errian indarkeriz diru kentzen ebiltzalako.

Indarkeriz kendu ta indarkerirako emon.

Bitartekoak sartu ziran tartean.

Beti egoten dira ur bit -a jokutzen dabenak. Eta auzia, erbestera eroan barik errian an. itzeko alegiñak egiten iñarduenak.

Zaindaria, nai ta eura ezagutu erriko gauza eta erriko goraberentzat izan zala, areil. J arruan eukiteagaz bildurra sartu nai eben errian.

Illuntzetan, erri batzarra giten zan orduetan, zumardi inguruan agertzen ziran bikote , eta an egonagaz batera, jendea batzen ez ausartzea lortuten el- gin. Barrurako bildurrak asko atzeratzen zitun, batez be goiko\_ n edo aitzindarien bultzada igarri ezik.

Andoni'ren barriak, txarto; ta txarto egunero, lenengotan sortzen eben itzaltasuna galdu eben. Barri txarra entzuten oituta geratu.

Gitxien uste zanean, etxera ekarriko ebela, baiña arena egiñña egoala ta orrelakoak zabal ebiltzan.

Egun baten sendi bieri gaixotegira joateko deitu eutsen Beatus'ek.

Kapillauak deituteak, itxura batez, egoera garraztu eta azken unetara eroaten eban.

Karlos bera artegatu egin zan. *Geien* bat berari be deituten eutselako.

Pepito'ri deitzea (berak, antxiñatik euken oituraz Andoni'-ren aitari Pepito deitzen jarraitu eban), areri deitzea ondo da, esaten eban. Baiña guri? Zer daukagu guk ze ikusi Andonigaz, esateko baten, iñora aldatu bear ba da, edo ta ilten ba da?

Alabaren laguna edo maitea dala? Ta zer? Zenbatean lotu bear ditu orrek gurasoak?

Abadeak deitzeko zerbait geiago egongo da artean, asi jakon emaztea zuritu nairik.

Zera! Atzamarra jokatuko neuke dirua edo diru premiña geiago dala beste ezer baiño.

Zure pentsamentu guztiak dirua dabe oiñarri.

Gure alaba onek zoratuten ez ba gaitu!

Bera zoratzen ez ba da, aidean darabilen ainbeste gertaera eta zoritxarrekin.

Ta? Zer egin bear dogu? Bai ala ez?

Bilbora joan ala ez?

Esaten dozuena besterik egiten al dot? Ba dirudi nik danok lotu egiten zaituedazana.

Zuk?

Ez dakit zer gertaten dan, baiña azken egunak kenduta, noiz ikusi zaitu zu iñok, ez nik bakarrik, beste edozeiñek, iñori burua makurtuten? Frantzetar oillar lez gangoilla goian beti. Zetarako?

Nire tokian egoteko.

Azkenean olakoxe naste borrastean gazteak sartzeko. Erri guztia ikusi eziñez ibilteko.

Kontxo! Guk al dogu orren errua?

Nik ez diñot dana. Baiña ez neuke esango zerbaiten errurik ez dogunik.

Zein zara berbetan diarduzuna? Nire emaztea?



Ez nazu ezagutzen?

-Berbetatik ez.

Aldatu egin al naz?

Orixe esateko nengoan. Ni nengoan itanduteko ia nire emaztea ala alabaren ama zarean.

Biak ni. Ezpaian?

Orrelako autuetan noiztik?

Eta noiz ez?

Gu errudun? Esan gaiñera?

Ni ez nator esaten gu gu ain zuzen. Ez nator iñor salatu-ten. Baiña ez dakit zer esan bere.

Ez dakizu, baiña zalantzan zagoz. Ez zagoz, len lez, gurean ziu eta tinko.

-Beti gauza zarrei begira egoteak eta eurei lotuta biziteak, mundu barriari utsune bat ekarri dautsanik ez dozu pentsatuten? Nik ezin ukatu.

Kalera begira asi zara?

Zer ba, etxean lotuta ikusi nai?

Etxea da emazteen kalea, andrea. Or ez dago zer esanik.

Zureztat, beti lez zeureari eutsi ezkeru, ezpairik be ez.

-Ori nai zuek, zuentar utsak zarelako, zuek goratzeko eta Jainkoa goretzeko.

Gurea baiño politika obarik ez dala egon eta egongo bere ez dala, neuk diñotsut.

Besteak jo ta mutu eukitea.

Zeu zara ori diñozuna? Iraultzaille taldean sartzeko zer eskiñi dautsue?

Emaztea ixildu zan. Karlos'ek barrero itaunduten jardun, baiña erantzunik lortu ez.

Edozetara bere Karlos len egiten ez ebana eta zearo ukatzen zana egitera makurtu zan.

Eta bere alabaren laguna ikustera gertu.

Beatus'en deia zan, besteak jakin barik.

Origaitik gaixotegiko sarreran esanda eukan, Andoni'ren senitartekuak elduten ziranean, gora joaten laga barik, gelara urreratzen itxi barik, berari deitzeko.

Esana bete eben.

Deitu eutsen Beatus'eri.

Askotan ez eban erabilten, baiña sotana ta guzti jetxi zan ikertzailien gela berezi batera.

Ez ezagun lez artu zitun, agurtutean.

Eta berbetan asi orduko, Andoni goratu bá eben, Susane'-ren loratan galtzen zan.

Bataren kemena eta gaztetasuna aitatu, bestearen eskintza ixil eta maitekorra txalotu.

Batak, biziagaz burrukan erabillazan alegiñak agertu, eta besteak bere maitasunez bizi orreri eustearren eskintzen eutsazan alegin eta ardurak goratu.

Kontzientziko jokabide lez ikusten ebala bitsuen egoera. Bata bestearentzat jaiok zirala ikusten zala, kaleko ekintza, bu-ruauste eta ekiñak alboan lagata.

Origaitik, berak adoretu zitula, egozan egoeran, azpalditik alkarrri eskiñita eukezan maitasunak eleizak agintzen daben eran santututera.

Andoni ilten ba da, neska birgin da. Ezkondu ez ba litz lez. Biziten ba'da gero be ezkonduko ziran. Gurasoentzat bardin.

Neuk diñotsuet bitsuak askatasun eta ezaupide osoz ezkondu dirala. Ez dala egon iñoren bitartekotasunik, neurea ezik. Eta bitsuak nai izan ebela gaixozaiña lekuko zala, bakartadean ezkondu. Orrela eginda, Andoni ii ba litz, edo ilgo ba litz, Susane'-ren goraberan egongo litzake bere illetetako ardura guztia.

Susane'k, dan danan gaiñetik, eleizaz ezkontzea nai eban. Eta Andoni'k, neuk diñotsuet, eleizaz ezkontzea aginduta eukan berari, nai ta gaurko oiturei jarraitu barik, ospe eta zarata barik eleiza pobre baten ezkontzeko gogoa erakutsita.

Gertaerak etorri diran lez, gaixotegi onetako gelan, ezkondu dira, baiña eleizaren naia dan lez, Jainkoaren onespenez.

Gerokoa zuek konponduko dozue.

Uste dot, oraingoz beintzat, Andoni'k aurrera urtetea lortuko dabela. Zuen aldetik bizi barri baten amets egitera aupatuten ba dozue, kristiñauak egin leiken zeregiñik onena beteko dozue: alkar maite izaten lagundu.

Ixilik egozan bateko ta besteko gurasoak. Ia sinistu nai ezinda, abadeak esaten eutsena.

Eta Karlos asi zan berbetan.

-Azkenean dana, dana, seme-alabak nai deben lez jokatu eta erabagita amaitzen da. Eta gurasoak berbarik ez. Zetarako gara gurasoak? Jaten emoteko bakarrik?

-Nok esan dau ori?

Ez dagiala pentsatu Pepito'k...

Zein da Pepito?

Parkatu. Ez uste irriz esaten dodanik. Izen orrek askok uste ez daben samurtasuna eta etxekotasuna daukaz.

Ni ez naz asarratuko Pepito deitzeagaitik.

Eskerrikasko.

Ez dagiala orrek pentsatu nire alaba bere semeagaz ezkondu dalako zer esanik daukadanik. Nik ez dausat alabari berak aukeratu dabenaren aurka ezer esango. Eta askok pentsatu ezarren, lagundu egingo dausat gaiñera. Or konpon bere politika edo iraultza edo esan nai dan erri jokabideak. Ni karlista izan nitzan. Izan eta izango. Jainkoa eta gure erriaren eskubideak. Ori da nire bizi guztiko naia.

Gaurkoena ez al da bardin?

-Bardin? Bardin, abade jauna? Niretzat, Jainkoa bastertuta eta erria zapalduta bizi nai dabe gaur askok.

Dana dala. Gurásoen kontura nator.

Bata ta bestea esango da, baiña azkenean, ikusten danez, dana libre laga bear ba'dogu, gurasoak jaten emoteko baiño ez gagoz. Orretarako, lenengotik obe jatetxe edo hotel bat ordain-

du eta ezelako burukomin, buruauste eta ardurarik barik an euki ta alikatzea, ez ete litzake bardin izango?

Noiz arte gara gurasoak guraso?

Ez uste itaun au nik bakarrik egiten dodanik. Edonun eta edozelako familien ingurutun sarri entzuten dana da, batez be gertaten diran gauza asko entzun ondoren. Noiz arte gara gurasoak guraso?

Umeak sortu, eta oi dan lez, oraiñarte oitura baiño bear izana geiago izan dan lez, bataiatzera eroaten ba doguz, ez diardue ba ez dagola eskubiderik esaten, eta umiei laga egin bear jakoela euren ezaupidera etorri edo eldu arte, eurak erabagi dagian kristiñau izan edo ez?

Gero, eskola eta abar, or lenengo urteak bardiñak diran lez, or bai guraso izaten lagaten dauskue jantzi, alikatu eta atsegiñetarako emoteko.

Ondoren, gaztearoan, zer?

Aske nai, aske. Ibili, jokatu, pentsatu, jantzi... edozetarako aske nai izan, euren buruen jaube. Baiña ezbearren bat ba dago, edo zoritxarren bat, gaixoen bat eta abar... Orduntxe gara gurasoak.

-Ez zaitetz ain ezkor.

Ezkor ez, zentzudun naz. Batez be egitsu, ikusi eta bizi doguna ikusten dakidana. Eta esaten dakidana, askoren gaitza or be ba dago-ta; ikusi eta bizi, atsekabez itoten bizi, ta jendearen aurrean ausartu ez naigabe ori erakusten. Ipokriten munduan bizi gara-ta.

Seme alabarik ez ba litz, zer ziñake guraso asko zartzaroan?

Oraindik biotz andiko monjatxo asko dagoz.

Ta gero?

Ez diñoie ba estaduak jaso bear gaitula zarrok?

Diruz, bai, baiña\_ biziak eskatuten dauskun beste guztia?

Diruz eta epeltasunaren atsegiñez?

-Ortarako gertu, ta orain seme-alabak ezkontzean maitasuna erdibitu egiten dabela ta asarre? Zer ba, zer nai, bizi guztian

zeueri ederkatura egiten eta emoten eukitea?

Abade jauna, ez dakit nire griñak nire alde pentsatera eroango ete naben, baiña gazteen aldeko igarten zaitut.

-Zein ez da gaur gazteen aldeko? Lengo denporetan ez al ziñan zuek bardin. Zu, Andoni'ren aita: Andoni'ren jokaldian, iñoiz asarretuko ziñan, ez?

Ezin ukatu.

Ta bere aurka jokatuko zenduke?

Aurka?

Bai, egia esan.

Pentsatu bere ez.

Eta alde?

Al dan guztia, al dodan arter

Eta zuk, Karlos?

Zenbat bidar zeure artean txartzat etsi dozu zure alaba Susane'ren jokabidea?

Ba! Asarratu, garrastu eta pixkat zitaldu... Ezin ukatu. Berezkoa dogu batzuk ori.

Sasoia zan gizona errazoi bat entzuteko!, albotik Irene Karlos'en emazteakr

-Aoa zabaldu orduko, zirika?

Berezko urteera bat ezin ete nai egin?

Abadea aurrean dagolako ez asi arrotuten.

Ez orixer

-Jarrai Karlos, zenbat bidar txartzat artu?

-Gogoko izan ezarren txartzat etsi sekula ez.

Oraingotan bere ez?

Ondo pentsatu ezkerro, ikusten zan au gaiñean etorrela.

Ta?

Eleizaz ezkondu ba da, nik sekula ez dot naiko Eleizak lotu dabenik gizonak azkatuterikr

Lengo gizaldietako gizon bete eta zintzoa zara.

Lengoak ez al eben balio?

Urre zarra beti urre.

Lengoak gero ta balio geiago orain eta urrengoan berer  
Ez al geinkez ikusi gure seme-alabak?

Gurasoen eskubidez?, zirikalari, abadeak.

Gauza bat da eurak gu alboan lagatea, baiña guk gureak  
laga? Ez, ori sekula ez.

-Ondo Karlos. Eutsi zuk Montejurra'ri. Besteak eutsi da-  
gioela zuk aiñako setaz Yurramendi'ri.

Itaun bat, abade jauna. Zu *lege* zarreko abade ala lege ba-  
rrietako zara?

Ni? Igarten ez? Ezpaian?

Atsegin izango litzakit zure aotik entzutea.

-Ezin orrelakorik ukatu. Gure legekua, Melkisedek'en or-  
denakua.

Goazen gora.

Oar batzuk. Ez zarataka ibili. Andoni'ren aurrean ez negar  
eta malkoka jardun. Al dan bestean, poza agertu. Adorea sartu,  
itxaropena emon. Osasun erdi izango da beretzat.

Zorionak emon, ezkondu diralako. Ori be bai.

-Ez dau igarriko olgetan izan leikenik?

Barruko sentimenez ezin agertu, ala?

Poza eta negarra zeñek erdiz erdi ondo iruditzen ikasi?  
Euskaldunok teatro gitxi ezagutzen dogu.

Ikasi ez dakit, baiña iruditzen ez gara makalak.

Gelara eldu ziranean, atea jo eta bat bateko gertaera are l: ia  
mutututa laga eban Susane.

Bere amak, ikusi ebanetik, beso biekin estu-estu egin, eta  
musuka jan bear. Itxi nai ez besteei agurtzeko tarterik be.

Andoni'ri, egoan lez, laztanik emon barik, eskutatik oratu  
eta estutzen euki eban aitak.

Eta Beatus'ek esana beteaz, adorea artu eta malkorik barik  
euki eban Jose zarrak

Bardin izekoak

Ezagutzen au?

Karlos? Ezagutu ez?

Ezagutzen gara bai. Eta Karlos berberak, ia berbarik ezin asmatuta, eztarriko itotasunagaz, zorionak, esan eutsan.

Zegaitik zorionak?

Ezkondu ez zarie 'ba egin?

Ba dakizue?

Bai.

Beatus'ek zirikatu ta berotu genduzan.

-Zein da Beatus?

-Abadea.

Asko dakina da.

Asko ibilia bai.

Amak laga eta Susane aitagana urreratu zan. Ez daukazu ni-retzako laztanik?

Amak ez dautsuz emon bion izenean?

Osagillea agertu zan.

Zelan amen ainbeste batera?

Gurasoak dira.

Zeñenak?

-Bionak.

Baiña batera?

Ezkontza ospatzen etorri dira.

Zeñen ezkontza?

-Oneina. Andoni eta Susane'rena.

Noiz dago?

-Egin zan.

Nire baimen barik?

Ba al dago agiririk sekula ukatu ziñanik?

Baiña egoera bakoitza ikusi ondoren izaten da ori.

Legezko da baimena.

Zuk soilakin agindu ziñei, osagille lez. Baiña nik, Jainko

legez, kontzientziakin.

-Asi zara iraultza billa?

Zelako iraultza?

-Zuk ez dakizu, gaixotegi baten ezkontzeko, osagilleak aurrez *bere* eritzia emon bear dabela?

Nun dago idatzita?

Oiturazko da.

Eta ezaupiderik ez daukela egiten ba da, zeinengan gero egurrak?

-Ez estutu. Bestetan egiten dana: Lepoan artu ta segi aurre-ra.

-Esatea da bat. Eta ondorenak?

Emen dagoz gurasoak. Jakin nai zer diñoen?

Urten ziran atera. Beatus'ek gurasoak aurrez-aurre ipini ta itandu eutsen: ba zekien Andoni ta Susane maite zirala?

Bai.

Gogoko zenduen euren ezkontza?

Gogoko edo ez ontzat artzeko gengozan.

Ba dakizue ezkondu dirala?

Abadeak esan dausku.

Nik, osagille lez, esaten dautsuet, luze joango dala Andoni'-ren osakuntza.

"Uste baiño zauri zabalago da buru barruan daukana. Gaur, neskarentzat, zama andi gertatuko da.

Ez dakit zuen baimena edo ez, emen egonda be bardintsu izango zan.

Gertatu lei, mutillak aurrera urteteko, ezkontza au egokien izatea.

-Orrela dala, guk, gure aldetik, ezin ezer esan, gure seme-ababen ona ikustea geurea lez artu bear dogulako.

Etxea eta egoeraz zelan zabilte?

Zegaitik itaun ori?

Gaixoa luze joango ba da be, gaixotegitik etxera bialtzea



pentsatu bearke dogulako. An zaintzea besterik ez dau izango, nai ta gero, astero, ikustaldien bat egitera onera ekarri bear.

Orrela dala, zein egaz joango litzatekez?

Karlos eta Jose alkarri begira geratu ziran. Ainbesterik ez eben pentsatu.

Mutillak, al dala, etxe argi eta bustitasun bakoa bear dau. Eta zauria burukoa izanarren, oiñetan be eukiko dau bere gogortada. Origaitik, al dala, gero erabagitekotan be, etxe eroso batera eroan bearke da. Asieran beintzat. Gero ezkonbarriak, libre izaten ba dira, eurak esango dabe.

Jose eta Irene'k alkarri begiratu eutsen. Eta Irenek ekin eutsan:

Ez genduke nai asarrerik famili bion artean. Lenago be, politika bitarteko, erritarrak izanarren, ez giñan asko ezagutzen. Orain ez genduke nai eztabaidarik.

Kaleko naste eta lagunekin, ez dozue pentsaten zuentzat mintsuago izango litzakela gure Andoni zuenean eukitea?

Osagilleak, bereala:

Andoni'k, illetan, ez dau kaleko nastetan sartu bearrik eukiko. Berari kalterik geien eragin leikena ori izango da.

Eta ala izanarren be, bere deia ortik dabillala ezagututa, orretarako zaletasunean jarraituko ba leu?

Mutilla betirako atzeratuta geratuko litzake.

Zelan?

Bere pentsabideak ezin jarraitu izango dau orrelako gauzarik, lenengotan beintzat. Eta orretarako gai ez dala konturatzek, atzeratasun luzea ekarriko leutsake bere osabidean eta bere osasun guztian.

Ala dala, kartzelari deituko leuskidateke. Baiña oituta nago ni len be orrelakoak entzutera.

Alaz eta iñoren bizia bitarteko dala, ez daukat lotsarik eta eragozpenik nire gain orrelako kurutze bat artzeko.

Eta erria asarratzen ba da?

Eckerrak emon bearke leukez erriak.

Bai osasuna bitarteko dala pentsatuta.

Alaxe ez dago ba?

Eta iraultzaren aurka jarduten dala pentsatuten ba dau? Aitzaki bat dala mutillari gogai ori kendu eta bastartzeko?

Zelan pentsatu leike ori, osagilleen agindua bitarteko dala?

-Konturatu Karlos, orretan zuk gogor eta zital ciitzutca daukazula.

Entzutea bakarrik? Oneri esaten dautszanak...! Bakoitzak bere irizpidrik euki bear ez leuken lez!, geitu eban bere emazteak.

Niri, esanak esan, Irene, Jainkoa bitarteko dala, or konpon. Eta onetan, ba... zeuok nai dozuena egin.

Obe ez al da izango Andoni eta Susane biak esaten dabena egitea?

-Nire ustez, sartu zan osagillea esaten, Susane'k be bere indarretatik gaiñezkako lana eukiko dau. Berak be bearke dau norbaitek laguntzea. Lenengotan. Gero, gauzak arindu leiz, zer-bait egokitu. Baiña beti be, il batzuetan, gaiñean bearke dau bat Andoni'k, bere zauri ta aitzakiak garbitu ta arintzen.

Eta noiz lez joateko?

Zortzi egun barru, besterik ez ba da.

Ni beintzat, astero ikustaldi bat egiten joango nazala agintzen dautsuet, geitu eutsen Beatus'ek.

Zure etxean lez artuko zaitugu, abade jauna, -Karlos'ek.

-Ni bere ia astero joan bearke naz lenengotan. Gaixotegia arintzearren egiten dogu au, gaiso asko dagolako oe barik. Alaz eta, egia esateko, oraindik gaixotegian egoteak ez eutsan kalterik egingo mutil oneri.

Osagilleak beste asmo bat agertu eutsen. Egun aretan bertan erabagiteko, baiña familiak banaka sartuta, eragozpen eta aldeak, alkarregaz, nasai agertu eta azaltzeko eran.

Ondo artu eben eritzi ori famili biak.

Eta bakoitzak eukazan gurariak eta naiak garbi agertuarren, lenengotik igarten zan Jose zarrak bere ia ezifia autortzen ebala,

eta Susane'k, barritan, lenengotan, bere etxean aukera ta egokitasun geiago billatuko ebala ikusten eban.

Gaiñera Karlos'ek uste ez eban lako adiskitetasuna erakusten eutsan, eta bakoitzaren politika alde batera laga-ta, gertu egoala biotz onez bere semea etxean artzeko ikusten eban. Origaitik bere semeari garbi esan eutsan, negar egin da be, ezagutzen ebala Karlos'en etxean, Susane'gaz obeto egongo zala, Susane berbera be bere etxean, lenengotan, salduta edo ainbesteko etxekotasun barik aurkitu eikealako.

Izekok ez eban ezer esan. Premiñazko izan ezkerro, gertu egoan, eta Anc#onigaitik dana egingo eban berak, baiña oraintxe be etxe bi zaintzen egon bear izaten zan, berea eta anaiarena, eta gero, nai ta Susane Andoni'gaz konpontzen itxi, eta berak lez Jose'ren garbitasunak egin, Susane'rentzat amaren ondoko bertotasuna obeto ikusten eban. Gaiñera gurasoak oraindik gordin egozan eta ainbat lan egiteko indar eta bizitasunez.

Orrela, egun berean erabagi eben, osagilleak etxera joateko agintzen eutsenean Karlos'en etxera eroango ebela.

Illuntzean errira biurtu ziran. Poz bat eroien. Andoni eta Susane bakez eta pozik laga zituen atsegiña.

Ezelako akats eta zirikadarik be ez eben entzun oneik, euron egitada zala-ta.

Ezpairik ez dago joko guztia Beatus'ek gertu, eroan, egokitu eta berotu ebala.

Susane'gaz batean? Edo ta Andoni berberaren eskabidez?

Andoni'gaz asko geiago egoten zan Beatus. Susane'k edozertara urten bearreko guztietan, berari deitzen eutsan, eta biak orretara jarrita egozan lez, pozik geratzen zan Beatus iraultzaille lagun eban Andoni'ren onduan.

Origaitik, Susane'ren zirikada bat edo besteri baiño jaramon geiago egiten eutsan Andoni'ren kezka eta egoerak eragindako premiñen aztertzeari.



## **Odol beroak errian**

Errira eldu eta bakoitza euren etxeetara joan ziranean, adiskideak urreratu jakoezan.

An jarraituten eben Jose'ren etxean, erriko emakumeak, garbitasunak egiten. Eta zain egozan.

Obetotxoago egoala laster errira eroango eben itxura artu ebela jakin eragin eutsenean, poztu ziran danak, laster Andoni etxean, errian, eukiko ebela eta bera zaintzen jarduteko aukera eta egokitasun geiago eukiko ebelakuan.

Baiña, etxeratzean, oraindik ziur jakin ezarren, Karlos'en etxera eroango ete eban ustea erdi-esanerako, bitsuak, indar bategen eraginda lez, gora-gorakada asi ziran.

Gure Andoni fatxista aren etxera? Zeiñen burutan sartu da ori?

Osagilleak ala deritxo.

Kartzelan sartzea da ori.

Guk ez dogu agintzen.

Zegaitik ez?

Ezkondu dira.

Nok esan dau ori? Gaur?

-Gaur ez. Lengo baten.

Eta jakin ez?

Abadeak ezkondu zitun.

-Eleizaz?

Zegaitik ez?

Andoni gixarajua ezaupide barik artu dabe. Agirian dago

ori. Ukatu eziña da.

Andoni berak eskatu eban ezkontzea.

Baiña eleizaz?

Sekula ez dogu sinistuko.

Abadea bere laguna zan.

Lengo gizaldikoren bat?

Eztakigu ba.

Ezetz! Nor besterik?

An diñueenez, oraingo abade asarre edo iraultzaille talde orreitakoa ei da.

Aitaren eta Semearen! Auxe be entzun egin bear. Besterik ez gendun bear. Ezkondu eta eleizaz gaiñera.

Eta emon eutsena izenpetuko eban, ez?

-Zer izenpetu?

Orain eskatzen dautsena.

Ez dakigu ezer.

akiña da: Umeak ekarriko dituéla, ekarri ala, dozenaka izan da be ekarri.

Euren gauza da ori.

Abortutan ezingo dabela pentsatu, umeak urritu eragin leikezan beste ezelako osakai edo egituretan be ez. Betikoak.

-Len be orrelakoak izenpetzen ziran. Zuen gurasoak be egingo eben.

Baiña gaur adigarri geiagoz. Esatea lez, zitalkeri geiagoz.

Danen aurka emen ibili ta azkenean makurtu eragin, osasunaren makalaldi baten. Ba dakigu zer izaten dan orrelakoen jokoak. Atzelarien maltzurra.

Libertade osoz jokatu dabela ziur egon.

Karlos fatxista zarrak oiturazko daben libertadez?

Arek be, gure antzera, gaur arte ez dau ezer jakin.

-Sinistu Kredoa!

Ziur egon. Ondo dakigu. Karlos'ek orrelakorik ez euskun eskuratuko, ezer jakin barik. Politika alboan laga-tar

-Geurea da errua konturatzen ez garealako, iñoren erpetan jausi eta ilten ikusi arte.

Eta neska biak asarre urten ziran Jose'ren etxetik.

Joze zarra, bere liberalkeri ta guzti, orrelako itsutasuna ezetsiten asi zan. Bai eta Karlos'eri etorkion lepokada igarten.

Karlos'enean, ango senideak..Beste era batetatik artu eben.

Eroapenik eukiko ete eban Karlos'ek bere zintzotasunean, bere etxean senar-emazte barrien arte sortu eikezan eztabaidak batetik, eta besteak kaetik bertara eroan eikeezan autu-mautuak ixilik jazan eta iruntsiteko?

Etxekoen maitasuna ez ete zan itsukeriz bertan bera galduko, uste bako egitada, begirapen, pentsakera edo belarriberotzeren baten ondorenez?

Karlos'ek garbi jakin eragin eutsen bere adiskideeí, bera ez ebala iñok beretik atarako. Bera ez zala iñoren bizitzan sartzen, baiña bereak be lotsa ta begirapen bardiña eskatzen ebala.

Gaitz ikusten eben auzokoek gaurko gazteek euren iraulzailletako bat iñoren mende lagatea.

Eta Susane onegi izateak mendetu eta galdu ebala. Errukitsu izateak martiri biurtu.

Onelako ezkontzak berotasunean egiñarren, gero atze luze eta illuna ekarten dabela Eta egoera onetan, Susane, maite izanarren, ez ebala ezek lotuten Andoni'gaz ezkontzera, au bere nostasunaren jaube izatera eldu artean.

Uste oneik bat batean ebagi zitun Karlos'ek. Jainkoak daki-la bakoitzari zer agindu edo emon, eta zer eskatu edo ta eskiñi, eta orrelako edo antzerako bizitza bere gurarietan sartuta egongo zala, eta gurari ori beteten alegintzea beste erremediorik ez egoala.

Karlos bera, bere aldetik, etorrana gogo onez edo ta eroapenez artzeko gertutera eioala.

Egun batetik besterako aren aldakuntza eta irizpide biguntzea sinistu ezintzat euken senideak.

Arrebetako batek esan be egin eutsan: Oraingotan santuak

amenean daukazuz, anai.

Esatea lez, gauzak ain bare eta baketsu ikustean, norbait bere alde eukala igarten zala. Eta arrituta egozala danak.

Biaramon goizean, lenengo orduan, Jose'k, bere arrebaren bitartez jakin eragin eutsan Karlos'eri, andre bi areikaz zer gertatu jakon, eta areik atara eben marmar eta asarrea Andoni'ren ezkontza eta geroko bizibidearen asmoa jakin zituenean.

Karlos'ek erantzun, bera ez zala ezer aldatuko, iñoren bildurrez, gaixotegian erabagi zanetik.

Eguerdi inguruan, atea joten, erriko gazte bi agertu jakozan, beragaz egotea eskatzen.

Lenengotik agertu eutsen, eskatu, jakin, edo esan bearreko zituena, erraz eta labur agertzeko.

Itaun bi eukezan egiteko: Ezkontzarena bat. Noiz, zegaitik eta zeïnek agindu zitun eta orretarako baimenak zeïneri eskatu eutsezan.

Bestea etxera etorteari buruz: Zeïnek, zegaitik, eta zetarako agindu eban Andoni etxera ekartea.

Aurrez, Karlos'ek, bere nortasuna galdu barik, *bere* aldetik gauza batzuk jakin nai zitula erakutsi eutsen. Eta itanduten asi jakoen:

Zein zarie?

Erri ordezkariak.

Baiña, zentzuk?

Erri ordezkariak.

Eta ortik ez eben urteten.

Zuen izenak?

Erriak dakit.

Zeïnen izenez zatoze?

-Erriaren izenez

Bardintsu erantzun eta euren eutsiten jarraitu eben.

Neu be erria naz.



Erriak erabagita dauka batzuk erritzat ez artzea.

Zegaitik?

Erriaren arerio izan diralako beti. Erriaren merkatari ta zapaltzaille.

Gizonak ez al dauke bakoitzaren erara jokatzeko eskubiderik erri arazo eta gauzetan?

Zuek ito egin dozuez errien bizitzak.

Guk lagatako bizi maillatan oiñarritu zarie.

Bízimodu okerretan.

Gure denporetan, ustez, egokienetan.

Erriaren bizi-miña itoten zenduela.

Ito ba gendun be on ustez.

-Eta zuek? Indarkeriz erre ta izorratu.

Bedar txarra ebagi ta erre bear dan lez.

Orrela dala ez dakit zetara etorri zareen.

Erriaren eskubide batzuk zeureganatu nai dozuzalako, kontuz ibilteko esatera.

Nik? Nundik atara dozu oria

Andoni etxeratu nai dozu.

Nire alabak, bere emazteak, etxeratu nai dau. Eta daukan osagilleak.

Ba dauka bere etxea.

Euren gauza da.

Zure itzala bitarteko dala, jakiña

Niretzat, neuretar lez, egoista lez pentsatuta, milla bidar baketsuago zan alaba ez ezkondutea. Edo ezkonduta gero zuek diñozuen etxera joatea.

Zuek ezkondu dozueako dakartsue zuenera.

Mutillak, gaixotegian itandu egizue, noiz, zelan ezkondu diran. Ziur egon nik baiño obeto eta zeatzago erantzungo dau-tsuela andik

Besterik?

-Ez al zan ori nai zenduen guztia?

Lenean laga gaituzu.

Erritartzat ez nazue ezagutzen. Artu be ezr Niretzat erria famili bat da.

Ez dago itxurarik.

-Zuentzat famili barruko ez naizenez, ez daukat zetan familiko gauzarik kanpotarrei esaten ibili.

Ez dira bat familia eta erria.

-Niretzat erria ez da sekula alderdi politiku bat, ez eta iraultza talde bat, edo mogimendu bateko lagun artea. Ori baiño geiago da erria. Osotasun bat, famili bat, nai ta famili barruko guztiak eritxi bardiñeko izan ez.

Erria maite dabenak bizita, erriaren on eta aurrerapideagaz pentsaten dabenak osotuta. Noiztik orrelako uste eta sinistreak, artu dozuezan eskubideak armakin edo erria salduta erabili dozuezanok?

Alperrik gabiltz. Ez gara ulertuko.

Bestien errazoirik ezagutzen ez dozun artean...

Atea itxi eutsen Karlos'ek amorruez.

Asarre joan ziran gazteak.

Egoera orretako giro eta gogoz egin zan erri batzarra, ga-bean, betiko tokian.

Egon ziran gain gaiñetik Andoni'ren osasuna billatu bear zala ta egokien egongo zan tokia billatu bear jakola agertu ebena.

Baiña geienak Andoni zaindu egin bear zala, ez bakarrik osasunez, bai eta bere asmo, gogai eta pentsabidetan. Eta osasun arriskuan ba egoan be, bere gogozko jokabidea zearo makaldu, galdu edo aztu eragiteko bidean egoala, erriko gizonik lotu eta politika itsuenaren etxera sartzen ba zan.

Erriak ez ebala aukera andirik bertara sartzeko, orrelakoen etxeetan milla aitzaki ipiniz batera, bakoitza bera lotsatuten salako euretara joaten.

Norbaitek esan eban, Bilbo'ko gaixotegian oe askoren eskabidea ba egoan eta andik atara bear ba zan, zegaitik erriko gai-

xotegian euki ez, batetik erriaren kontura, eta bestetik trabuko zarren bildur barik

Besteren baten eritziz, errian agintzen egozan E.A J.ko arlo-  
te eta itsuak, ez eben lagako erriko gaixotegian sartzen; bestetik,  
ordaindu barik, zer esanik ez Eta luze pentsatuta, atsegiñago  
ikusiko eben Andoni fatxista baten etxean, ezelako nortasun bar-  
rik, kalean edo beste nunbaiten zerri gidari baiño.

Edozetara be batzarrean asarre, mar-mar, garrazkeri eta be-  
tiko pentsaerak agertu, aztertu eta erabiliarren, ez zan besterik  
erabagi Bilbo'ko gaixotegira lagun bi bialtzea, barri geiago eta  
zeatzagoen eske, eta biaramonerako atzeratu zan erri maillako  
jokabide bat agertzea.

Karlos'engana joan ziran lagun biak aukeratu ziran orreta-  
rako eta euren ustez beste nunbaitera joatea komeni zala erizten  
ba jakoen, orretarako be askatasuna emon.

Gaixotegira joan ziran.

Bidean milla urten-bidegaz pentsaten.

Andoni'ren gelara zuzen.

Susane'k urten eutsen. Irribarretsu agertu eben. Eta geiogo-  
ko barik, gauza garratz bat eukela ta Andoni'gaz bakarrik egon  
nai ebela eskatu eben.

Bere aldetik ezelako eragozpenik ez eutsen ipini Susane'k Alaz  
eta gauza garratz eta mingarria ba zan, al ebenik bigun eta arintsuen  
eta errazen esateko, barruari artu eragin barik Bere gaixotasuna  
orrelako gauzakaitik asko luzatzen eioala-ta.

Gelan laga zitun mutil biak. Eta Beatus nundik ebillan  
ikustera joan zan, gero mutillak zertxobait geiago nai ba eben,  
aregaz alkartu eragiteko.

Bere gelan billatu eban. Eta esan eutsan mutillak etorri zi-  
rala. Erri ordezkari lez uste ziranak. Iraultzaille taldekoak zirala  
eta izan eikeala beragaz be berba egin nai izatea.

Beatus'ek zirikalari:

-Nire bitartekotasuna nai?

-Nik ez. Ni senarrak esaten dauanari lotuten naz. Leike se-  
narrak gura izatea, eta niri esan nai ez izatea.

Gogorrek dira zure erritarrak!

Ezagutzen?

Sarri berotzen dauskuez belarriak eurak dirala ta ez dirala.

Bai, gure diru tratuagaitik be oraindik lagun bi edo barruan egon bear dabe. Kapitana ez dozu zeure lagun?

Bai, ta?

Ez dautsugu ezkontzarik ordaindu eta ez daukagu ezkontza oparirik zugandik artzeko asmorik. Pentsatea be! Baiña nik, opari lez, pozik artuko neuke zure bitartez orrelakoen askatasuna lortuko ba zendu.

Andoni'k ez leuke naiko ezer eskatzerik.

-Bakoitzak gure eritziak zainduko doguz. Nik bai, eskabide orretan ez dalako iñoren gogai eta jokabiderik salduten. Bidebakokeri bat etetea, ez ete da iraultzako zeregin?

Batzuen ustez, agintzen dagozanei mesede eskatzea izan lei ori. Eta ba dakizu agintariei ez jakoela mesederik eskatu bear, gogor egin baiño.

Nire ustez, gogor edo bigun, erriaren alde jokatu bear da, eta batez be zuzentzaren alde. Bakoitzean zelan komeni, alaxe. Oker nabil?

Etxekoandre..., zure agindupean! geitu eban koipetsu Beatus'ek. Pozik eskiñiko dautsut erregalu ori.

Eta besteko barik, urrutizkiña artu eta zaindarien kapitanari deitu eutsan. Koipetsu, laban, azpikeriz jaboï ugari emoten.

Ze gertaten zan zeatz eta garbi agertu eutsan.

Ba ekian kapitanak. Ba ekian edonoiz, *une* batetik bestera atarateko egozala mutil areik. Baiña areik barruan eukita, besteak ixillago edo bildurtiago ibilten zirala eta ori be begiratu bearreko zala.

Orrelako gauzakaitik mutillak barruan eukiteak, asarre geiago sortu eragingo eutsazala erritarren aurrean, ango azpijantzailleren batek emongo eutsan ospeak baiño.

Dana dala Beatus'ek zuritu eban kapitana. Eta une berberetan agindu eutsan biak atarateko agindua emongo ebal

Eskartu eutsan Susane'k Beatus'eri mesede ori, eta beretzako poz andi zala agertu eta ezkontzako opari on bat.

Geigorik ez eutsan ezer esan, mutil areik an egongo zirala gogoratu besterik.

Andoni'ren gelan, uste baiño denpora geiago eroien mutilak.

Eurak Andoni'gaz euki eben jarduna ez zan ingurutatik eta bigunkeriz erabilitako autua.

Bakartadeagaz baliatu ziran, koipekeri barik itaunak egin eta kontu artzeko, erriari jakin eragin bear eutsela-ta.

Ezkondu egin zara?

-Bair

Dakizula?

-Jakingo ez neban ba?

-Jakin eta konturatuta?

Neuk diñotsuet, ezaupide osoz.

Fatxista orregaz?

Zein da fatxista? Kontuz!

-Susane.

Ziur egon Susane'k ez daukala fatxista atsik be.

Karka andi bat izango dar Bardin da

-Parkatu, ez dot nai olakorik entzun.

Eta Eleizan?

Gela onetantxe.

Nungo legez?

Abade batek ezkondata

Sarean arrapatu zaitue.

Zegaitik? Nungo sarean?

Gure asmoak ez dira orreik.

Gure asmoa gizonaren libertadea zaintzea ez al da? Eta ez ete gabiltz orretarako gizakien edo pertsonen eskubideak eskatzen?

Baiña eleizatik kanpora.  
Bakoitzak daki bere kontzientzia nundik duan.  
Igarri barik erosten asi zaitue.  
Mesedez. Min eta guzti ba dakit burua nun daukadanr  
Eta zeïñek agindu eutsun ezkontzeko?  
-Iñok agindu bearrik ba daukat?  
Zu erriarena zara!  
Eta zuek be bai, eta Susane be bai.  
-Guretzat lotsagarri da abade batek ezkondu zaitula jakitea.  
Ez gabiltz beti abade iraultzaillcak bear doguzala-ta? Zeta-  
rako? Eleizak erreteko ala eleizak aldatzeko?  
-Erriko fatxistarik andienei poza emongo zeuntsen ezkon-  
tzeagaz.  
Bear ba da zuek baiño min geiago artu.  
Pozik etorriko ziran areik.  
Atzo arte ez eben jakin ezkondata gengozanik.  
Eta orain nora zoaz bizitera?  
Osagillearen ustez, etxe eroso bat bear dot. Eta nik aitaga-  
na pozik ikusiarren, osagillearen aginduz noa, bitarteko guztiak  
ikusita, Susane'ren etxerar  
Orrek ez dau esan nai beti an egongo naizenik. Orain, osa-  
gilleen ustez, iru-lau illabetez geldi egon bearra .daukat, ze ikusi  
asko oraindik, eta origaitik Karlos'en etxera joatekotan nago.  
-Zuretzat kartzela bat izango da.  
Aleginduko naz kartzela ori etxe izan daiten.  
Eta erriarentzat, kuartel baten sartzea baiño okerrago.  
Aleginduko naz aterik sarratu ez daituen.  
Ez dozu pentsaten erriak zure jokabide au naigabez artuko  
dauanik?  
Nik erriari eskatuko dautsat, zerbait esateko daukanean,  
argi esateko, baiña oiñarriz eta ez aidean zerbait iruditatar  
Atea jo eban Susane'k eta beste barik zabaldu, Beatus eto-  
rrala esateko.

Beatus gelako atean agertu orduko, ikuspegi utsetik ezagutu eben, agurra entzun baiño len.

Zu Santus ez zara ba=

Zer diñozuee Ixo, ixo! Emen Beatus.

Aralar'en ez giñan alkarregaz egon?

Sarri egon izan naz Aralar'en eta leike.

An Santus deitzen eutsuen.

Bai, an Santus, emen Beatus. Konturatuko ziñen zeozegaitik izango dala, ez?

Naiko esana da

Iñoiz zuen errira joaten banaz, eta gogo bizia daukat, mariñelago egitea nai ba nazue, Kitolis deitu ta ez naz asarretuko. Ondixek asten ba zarie be, ba daukazue nire baimena

Gaixorike

Ez, gaiztorik. Alaxe bialdu ninduen.

Baiña abade.

Bestetarako balio al dote

Oraingotan zuen Andoni atara dot beste munduaren atetik Beste bein ba litz... ez neuke ainbeste indarrrik beste munduko en artean.

Ezkondu egin dala esan dauskue.

Nik ezkondu nebazan.

Eleizaze

Ez nazue abade lez ezagutu

Bai, baiña..

Orretara «gure» eleizaz izango da, ez%

Ni zuen abade ba naz, «zuen» eleizaz ezkondu bear.

Ez eben igarri mutillak abadearen berbetako jokorikr

Alaz eta Santus'ek ezkondu ezkerro gaitz erdi. Irunsiteko errezago. Gaitz izanda be, bertanbera lagateko moduko.

Gero, euren agerbiderako ekarri zituen gai guztiak erabili zituen, batzuk itandu, besteak erantzun, ortarako baster baten egoan gela uts baten.

Monjatxo bateri, abadeak, zirikalari, areik gorriak zirala ta ondo artu bear zirala esan eutsan. Monjatxoak ba ekian eskabide orretan zer eskatuten zan eta barealako baten, leun berba egiñaz, ardao eta gozaki batzuk atara eutsezan.

Ardau gorri artean kontu zuriak agertu eutsezan Beatus'ek. Eta Andoni berberak esandako osabiderako lau illabeteak, ezpai barik luzeago joango zirala jakin eragin be bai. Bere ustez Andoni, iraultzaille *lez*, denporaldi baterako galdutzat emon bear eben mutilla zan.

Susane'gaz ezeren bildurrik ez eukiteko, garbi esan eutsen. Batzutan eureka *ez* egonarren, eta bere pentsabide berezia eukiarren, iraultza talderik *ez* ebalu salduko. Bere ustetan lengo gogoa, lengo espiritua, gurasoakandik etorri eikiona, gainduta eukan, nai ta giro barri bateko bidea aukeratu barik euki.

Eta berak eukan Karlos'en eritzia be agertu eutsan. Bereztzako, orren alderdikoak, istori zarreko arrotasuna kenduta, jorkabide barri batsuen billa ebiltzan, euren siniskera eta pentsakeraren barruan, baiña *ez* lengo itsutasun eta zitaltasunez. Beretzako ez ziran askok uste zituen otso bildurgarriak.

Andoni'ren osasunagaitik eskatu eutsen ez ibilteko bere ingurutan eztabaida ta gora-goraka. Egingo eutsen omenaldirik onena ori izango zala.

Bide batez eskatu eutsen al *eben* bestean laguntzeko, Susane'k ezkontza ori onartzean, era guztietako onclausun askoren kalte eta beratzearen zúrtasunez artu ebalako.

Baiña guretzat Karlos'en etxea kuartel bat *lez* izango da.

Orman eskegita ei deuken trabuko baten bildur zarie, metralletan denporetan?

Konturatu zan Beatus Susane kanpoan geratu zala. Bear ba da lotsaz, edo ta askatasunez berbetan lagatearren. Bere billa joan eta danen artera ekarri eban.

Bizi guztiko lagun eta adiskide *lez* jardun ziran. Orduntxe jakin eben zeatz Andoni zauritu ebenan zer gertatu zan eta bera non egoan. Eurak, ango larritasun eta nabarmentasunean, ez ziran ziur, gertatuagaz konturatu.



Beatus'ek Susane konturatzeko eran, berari lagunduz eta besteei ziria sartuarren, itandu eutsan:

-Jakin dozu ezer gure andre gazte?

-Zetaz?

-Ezkontzako oparirik ez da eldu?

-Ene ba! Aztuta nengoan. Obeto esanda denporarik be ez daustazue emon.

-Zer izan da?

-Pozik egoteko nago. Obeto esanda, uste dot danok alaituko gareala. Koldo eta Peru askatu dituela ziur dakit.

-Azkatuko dituela ala egin dituela?

-Kalean dagozala.

-Benetan?

-Bai, nasai egon. Egia da.

Alako baten bere!

Beste edozein opari baiño pozago artú dot.

Zelan jakin dozu?

Zaindariatako batek esandar

Eta zaindaria nundik?

Zuretzako eskutuko dei bat egon dala, esanez mutillak illunpetik atara dituela.

Mutillak, iru-lautan, euren eta erriko poza erakusten eben, eta esan be bai, orregaz ainbeste kezka sortu eragin eutsezan diru kontu zar a bertan bera laga edo geldituko zan ustea ebela.

Estu eta zital gaixotegira eldu ziran erriko ordezkariak, ez-tia lez gozo ebiltzan.

Beatus'ek esan eutsen:

Zegaitik ez guaz aurreko tabernara txikito batzuk artzen? Ori ospatu bearrekoa da.

Susane etorriko da, ez?

Parkatur Andoni garbitu bearko dot laster. Eta ekarriko dautsena artu eragiten alegiñak egin.

-Oraindik be orretan?

-Eta geroago be.

Ezelako aitzaki eta erreparu barik agurtu ziran.

Beste moduko indarren bat ete eukan Beatus'ek, ala besteak euken artu-emonen utsuneagaz konturatuta baliatzen ete zan euren adiskidetasuna lortzeko?

Ez jakin tabernan, kontu-kontari, zenbat txikito edan zituena, erriko jokabide ta gertaerak agertu ta aztertzen. Ia «baltzitura» geratzeko aia.

Baiña Beatus'en eskabide eta agindu lez artu eta eroan *eben* errira, Andoni'ri bere min eta naigaberik ez garraztuteko. Kosta-alak kosta, ori kontuan eukiteko. Geiago barik naiku martiri zala eta euren mesedean, iraultzako esker lez, ori egiteko. Eta iraultzan jarraitzeko, Andoni berberaren ezaupide eta gogoz, bere eskari lez, arek euki eikean zeregiñean beste bateri emoteko bearko eban aukera.

Mutillak eta Beatus batera etorri ziran, gauzak egozan lez, artu bear ziran neurriak ainbat ariñen artzeko asmoetan.

## **Erriko bakea, eta...**

Bilbo'ra joan ziran ordezkariak illuntzeko kotxean erriratu ziran ordukoxe, gabeko asanblada edo erriko batzarra egongo zala ta ortarako deia egiteko agindu eben.

Gabeen batzarrean batu ziranean, mutillak eurak izan ziran Andoni'ren arazoan, erriak, iraultzako batzordea aurren zala, bildur geiegiz jokatu ebala autortu ebenak.

Andoni zelako arriskuan egon zan eta zelako ondoren eta nekez etxera etorran azaldu eben. Baita jakin eragin nai ebela, esaten ziran gauzetan, ezkontza eta abarretan, iñoren indar barik, Andoni berberaren naiak bete zirala.

Eta beste txikikeri guztiak, bizitzako gertaera uts eta azalekoak zirala, baiña iraultza bidetik, keixatu eta larritu barik, au-

rrera ekiteko zuzentasun eta askatasun bidean.

Jendea itaun eta jakin naiak agertzen asi zanean, tartetik batek itandu eban:

Atzo emen esandakuak zer?

Ordezkarietako batek erantzun eutsan, Andoni'ren mese-dean obe zala gauza batzuei gatza emon eta kitu.

Bere eskabidez Andoni'k eroan arduragaz besteren bat jautetu bearko zala, eta entzun ziran izen batzuk. Baiña bereala ixildu zituen ortan inarduenak, esanez, arerioari jokia egitea zala barruko agintariak zeintzuk ziran orrelako batzar agiri baten ize ntatzea.

Bilbo'n bertan jakin ebela baituta egozan lagun biak azkatu zituela, eta Susane bera izan zala jakin erazo eutsen lenena, eta jakiten lenena be bera izan zala.

-Zelan a lenena?

Azpiko jokoen bat ez da ikusten or?

Ziur egon bererik ezetz.

Arritzekoa da beretik urtetea.

Mesedez, ez autu oneri eragin, onelako gauzak, iraultzailleontzat, eskutuko gauzak bear diralako, eta ez izen da guzti aietzekoak.

-Ortara, zetan batu gara batzarrean?

Ordezkariek gauzak garbi ikusi doguzala esateko bakarrik. Erriak emon euskun zeregiña bete dogula.

Eta danoi esateko, gure ustetan, bildurrak eraginda, gauza batzuk oker edo gaiztotuta ikusi doguzala eta ori autortzeko lotsarik ez dogula.

Oker edo gaizto ikusi? Gero be ernai egotea ez al da dantozako obe izango?

Bide batzuk artu bearko dira gure jokabidean.

Esan eta artzekoak erabagi.

Ori ez da emen erri guztiaren aurrean agertzekoa. Tranpan jausteko besterik ez genduke bear.

Orretara ze balio dau erriak eta zer egin bear dau? Goitik

agintzen dana, besterik barik, ontzat artu ta bete?

-Ez da bardin goitik agintzen dana eta une batzutan eskututik agindu bear izaten dana.

Dana agintzea.

Parkatu. Goitik agintzen dana diktadura da; eskututik agintzen dana iraultza.

Edozelan be tartean ez dagozanentzat, au da, erririk geienarentzat, agintza. Edo bestera esan da, menpetasuna.

Iraultzaille baten berba ez da ori, eta mesedez, esandakoa aldatu edo berba ori jaso.

Esana esanda dago.

Kontuan eukiko dogu zure ukapen ori.

Eta beste barik, batzar ondorengo ibillaldi barik amaitu zan batzarra.

Aurrez ordezkariak egin eta egingo eben lanagaitik batzar-tuen borondate eta esker ona agertzeko aipamenak egin ziran.

\*\*\*\*\*

Esanda lez, egunetara, illuntze baten, gaixotegiko ambulanti bat eldu zan errira.

Karlos'en etxera zuzen.

Oetxo baten, izara zuriagaz estalduta, arpegirik agertzen ez jakola, gorputz luze bat igarten zan. Andoni.

Kotxe berbertan etorri zan Susane. Eta eurekaz batean, Beatus, txoferraren lagun lez.

Deia artu arren, ez eben zabaldu nai izan errian, eta ain zuzen be Bilbora ordezkari joan ziran mutil biak ebiltzan inguruan, eskurik bear ba zan laguntzeko gertu.

Eurak izan ziran oetxoa artu ta etxera jaso ebenak. Eta eurak, etxe barruan, apain eta gertu egoan leio zabaldun gela bateko oean sartu ebenak.

Andoni'k pozik agertu eta eskerrak emon eutsezan.

Susane'k nai ebenean bildur eta lotsa barik ikustera joateko eskatu eutsen eta Karlos berberak, etxera joateko aitzakirik ez

eukiteko, komeni zanetan atea zabalik egongo zala-ta.

Etxekoak zerbait artu nai ete eben eskatu eutsenean, Beatus'ek erantzun, txoferra ta bera kaleko taberna baten zerbait artzekotan geratu zirala, eta eurekin joango zirala mutil biak.

Jose Zugaza eta bere arreba eldu ziran, jakin ordukoxe. Eta lenengotan negar egin eben, iñoren etxera euren Andoni era aretan sartu bearrak eraginda.

Karlos'ek gogor egin eutsen, a ez zala iñoren etxea, familia-koa baiño, ta beretzat eta bere emaztearentzat pozik andiena izango zala alako zoritxar baten famili guztia batuta eta adiskide ikustea.

Bitartean Susane Andoni'gaz ebillan, atsegiñezko egoera bat billatu eta egokitu nairik.

Etzanda ekarri arren, bideko igidura eta bultzadak aldakura eta erretasuna sortu eutsen.

Susane'ren amak be maitasunez artu eta berba samur eta baregarriak esan eutsazan.

Baiña arek argi erakutsi eutsen bere gogorik andiena, egoera egoki bat billatu arte, baketan lagatea zala, mintzor igarten ebalako bere zauria.

Aitak igarri eutsan zerbait. Eta besteen aurrean bere kezka agertu be bai, mutilla ariñegi bialdu ebelako etxera. Baiña ola-koak Andoni berak entzun barik esaten zituezan.

Agurtzerakoan, Andonik deitu eutsan.

-Aita, ez zara asarratuko ona etorteagaz, ez?

-Ba dakit zegaitikr Nasai egon.

-Ikusten nazu. Txori baten antzera pozez urten gara gaixotegitik. Ara emen, ezetarako ez nazala Susane'ri gau txarren bat emongo ete dautsadan bildurrez.

Adore gitxi daukat, aitar

-Bideko nekea da ori, Andoni.

-Nekean baiño geiago da, aita. Nekea baiño txarrago.

Eta gabon esanaz, biak geratu ziran begiak malkoz busti eta lausotuta. Susane'k igarri eta adoretzearren, irriz esan be bai: Iza-

ra banaz etorri bearko naz malkoak legortzera.

Biaramon goizean erri guztiak ekian Andoni gaixotegitik errira etorria zalar

Beretarrak baiño eurentarrak geiago arritu eta zurbildu ziran Karlos'en etxera eroan zalako.

Karlos berbera, izan dana izanda onetara makurtu ba da, gure amaiaren asiera da au.

Nun egon da bera, etxeko alaba bakarrari, sasoiz gonabarrenak beratu eta egoak moztu barik?

-Nun dauka burua Karlos'ek, ezkondu bako neska-mutillak senar-emazte *lez* etxean artzeko?

Zer balio dau gurasoak mendian fedea aldeztuten ibiltea, gero kalean, eta txarrena, norbere etxean bertan fedea galera-zotako bizimodu bat eroaten lagateko?

Goizeko mezatara oituraz joaten ziran andra guztiak igarten ziran korrotan, gauza berezi bat alkarri esaten iñarduela.

Abade zarra eleizan sartzean, aitarenka urreratu ziran berengana eta jakin eragin:

Ezkonduta dagoz?

A! Nik ez dakit ezer.

-Eta orrela laga?

Nik ez dakit ezerr

-Eta Karlos? Ez dauka berorrek Karlos'eri belarrira lau kontutxu esateko bizarrik?

-Mesedez andrak, baketan laga nire bizarrei. Lau eta sei be esateko lotsarik ez daukat. Baiña geiago esango dautsez, ziurretik, or dabilzan barrabasok.

Nun geratu da kontu orretan Eleiza?

Eleiza? Gaurkoa jakiña da. Ormak lengo tokian. Beste guztia aidean.

-Alaba bakarrak orrelakoxe gauzak dakarrez. Naikeri guztiak egin eta eskubide guztiak artu.

Nirea izan ba litz alperrik etorriko zan belauniko.

akiña, berorrek alabarik ez daukan *lez*.

Ikusten eta konturatzen txarraren espiritua zelan sartzen dan ormarik gogorrena dala uste dan tokitik be?

Igarri barik iruntsiko gaitue.

Gertu ez gagozalako. Eleizaren espiritu zintzorik ez darabillelako.

Eleizan be sartuko dira Denporak lekuko.

Eleizetan be sartuko dira

Zer esan dozu?

Eleizetan be sartuko dirala

Guzurrak lenago lertuta

Ni emen nazan artean, ez.

Bizitzaren legea da Gazteak. Gazteak bai. Uste dau berorrek emen daukazan abade guztiak berorregaz dagozala?

-Judas'en bat dago ala?

Bart erretegian, mai baten kristiñauak eta baltzak alkarregaz afaldu ebela ez daki?

Ori bere bai?

Kontuz, jauna, kontuz

Ta? Nortzuk ziran?

Aurrenen dabilzan mutilletako bi. Or zarataka ibiltzen diranetako bi, gaixotegiko kapillaua eta... emengo limosnaria zeinñeri deituten dautsen ba daki, ez?

Nik batu ta besteak zabaldu. Gero bata txakurra ta bestea katua lez ei gabiltz emen.

Beste ori an zan.

Betikoa. Atzea gertuten. Gazteen ederkatura billatu nairik izango zan ziurretik. Gero... parroko jauna, egin zuk lana, nik zabalteko batzen dan dana.

Orreik zuritu eta atzipetuten dabe jauna, berori, eztarri garratza baiña min labana dauken orreik:

Bestaldean, lantegiko sarreretan eta txalupa inguruetan, kallean eta kantoietan, langille ta arrantzale gazteak.

Kartzelan sartu ei dabe.

Nor?

Andoni.

Bilbon ez egoan ba?

Atzo ekarri eben.

Oraindik txarto be txarto dagola-ta? Osatzera ala iltera?

Kartzelara?

Nungora?

-Etxe kartzelara, mutil.

Obeto jakin nai? Karlista zarraren bunkerrera.

Ez egizue orrelako berbarik. Asanbladan egon ziñen?  
Itxurarik ez dago.

Asanbladan? Zetan? An esan bearrekoak esanarren, barruak nai dabena egitekotan?

Andoni'ren gorabera an azaldu zan.

Ta?

Susane'gaz ezkondu zala. Eta osatoki errez eta erosoagotzat eroan dabe bere etxera.

-Aitak ez al dauka etxerik?

Ez gaitezen gu bere satorrak izan.

Etxe aretan Andoni osatuko dalakoan? Ango bandera utsak ikusita, itsututa geratuko ez?

Iñoiz egon zara bertan?

-Ez

Ta? Zelan dakizu ori?

Esaten dabena.

Esaten dabena, askotan, bekaizkeriak (inbidiak) agintzen dabena.

Eta zer obe, bandera zarrak ormetan ala emakume gazte li-raiña alboan?

Aitaren etxean oe faltarik ez eban eukiko ta emakumeak, benetan nai ba dau, jarraitu egin bearko eutsan. Baiña areik liberalak diran lez...



## **Miñak min, gaiztotzen**

Esanak esan, Karlos'en etxean gau txarra igaro eben.

Miñak asi jakozan Andoni'ri, eta gabean, orduetara, bigundu orde, zolitu.

Aidean ibili ziran etxeko guztiak. Jose ta arrebari deitu edo ez zalantzan.

Susane'k igaro zitun lez bere orrelako estualdiak, baiña gaixotegiko gelan, norbere burua lagunduta lez ikusten dan tokian. Eta an gertatu, edo ta etxeko gela baten, zeñek esku bat emon eta zelan lagundu jakin ez-ta, egoera ez bardiña etsi bear.

Ia eguna argitzen asi zan Andoni baretzen igarri zanean. Etxekoak, kezkatu eta bildurrez, esan be egiten eutsen Susane'ri ia ziur egoan Andoni gaixotegigik osatzeko asmotan, ala zeregiñik ez egoalako etxeko epeltasunera bialdu eben.

Aita, ama eta alaba, irurak alegintzen ziran Andoni baretu eta adikatzen. Osotasun bat eta oneko famili lez. Bestelako pentsaera barik. Oraindik ia ezagutu bere ezarren, bete-betea etxeko seme lez artu eben mutillaren inguruan maitasunezko laguntza alegiñean.

Andoni'k gorroto barik eroan zitun miñak. Etsipenez batzutan. Askotan Susane'ri begira, erruki eske lez, parka eske lez, zoritxarreko egingo edo egiten iñarduan lakoan.

Baiña Susane'k maitasunez, adoretz eta samurrez, besterik ez eutsan esaten: Eutsi, eutsi Andoni, danon mesedean. Osatuko zara ta eutsi. Baretu zaitez, baretu... Pozik ikusi nai zaitugu, biziari irribarrezka. Eutsi Andoni!

Goizean, auzo, senide eta ikus-min batzuk ate jotzen asi ziran, Irene'k urtetan eban atera eta gau txarra euki ebala, danak ibili zirala aidean, eta ordu batzutako atsedetik ez kentzeko, inesede eskatuten eutsen.

Orixe bere, kartzelan sartu ebela esaten asi ziranentzat, eu-

ren pentsabidea puztuteko izan zan.

Beste alderdikoak, Karlos'en kurutzea gogoratuten eben. Kurutze bakoak sortuko eutsen kurutze larria, eta orrelako gai-xo batek euren zartzaroari emongo eutsena.

Batzuk eta besteak euren aizetzen jardun eben.

Parrokoak be billatu eban mandatari bat.

Ez zan ausartuten Karlos'en etxera joaten, iñoiz bertan ja-taldi onak egiña izanarren.

Bildur zan inguruan zelatarien batzuk ibiliko ete ziran. In-pernuko deabru orreitakoak zelataka ibiliko ete ziran.

Orrela gertatu ezker, bere ikertaldia kalterako izan eikeala iruditu jakon.

Berba lekuri emon barik, lenengotatik gauza argitu nai ebala-ta, jakin nai ebala ia Andoni ta Susane ezkondu ziran.

Karlos'ek mandataria artuaz batera itaun ori egin eutsanean, abadearen lenengo oar ori txarto artu eban. Eta mandatariari, erantzun lez, berari au itanduteko agindu: la sekula berari itandu eutsan abadegintzarako ordenatuta ete egoan.

Su-ziri lez artu eban abadeak erantzun ori. Arrokeritzat. Ezer izan ez eta zerbait zalakoan ebillan gizon baten norkeritzat.

Mandatariak, koipetsu:

Ezkondata egon ba ziran ez ete eban beste era baten erantzungo?

Ez nagizu zirikatu.

Pekaturik ez ete dago tantean?

Mesedez, ez suari eragin.

Besterik ez da be, arrokerizko pekatua bai beintzat. Ni, ni ta ni! betiko espiritua

Orrelakoak egun batean koipetsu ta bestean ozpiñez.

Ixil zaite, mesedez, esan nai ez dodana esan eragin barik.

Aste bete barru gauzak ia aztuta egozan.

Gero ta gitxiagok itanduten eben Andoni gaitik. Gertatu ziran gauza guztitara egin, oitu egin ziran erritarrak eta etxe-

koak eta iraultzaille berberak.

Andoni bera oituten asi zan, eta jagi be egiten zan leio ondora, eta an eguzkia artu, kalekoak ikusi eta abar. Ezagunen bat ikusten ebanean, eskua jasoten ekian agurtzeko.

Ez eukan berbetako gogo andirik, ez bizitasunik. Orrek lotsatu lez egiten eban.

Iñoiz iraultzailleak kaleko ibiltaldirik egiten ba eben, bere etxea baiño urruntxuago geratzen ekien, an kanturen bat, berak entzuteko eran, abestuteko.

Geienetan adorezko kantu aupalariak izaten ziran. Burrukoak, baiña itxaropenez beteak.

Iñoiz ez ziran ausartuten, txanda bateko antzera, zemaizko abestirik an abestuten.

Eta ori Andoni berberaren aolku izan zalako, etxean orrelako gauzak alkarren bildurra besterik sortuko ez ebelakuan.

Danak ekien kalean Andoni ondo zaindu eta begiratua egoala Karlos'en etxean.

Gaixotegiko kapillaua astelenetan agertzen asi zan. Azaleko kontutxu batzuk esan eta kaleratuten zan.

Andoni'k esan bere bai Susane'ri:

Nigaitik datorrala uste dozu?

-Nik ori belarrondotik igarota neukan.

Luze ikusi ta asko entzuten dozu.

Ustez bai.

Gaitz ez igarten.

-Emengo limosnaria deitzen dautsen abadearen atzetik ibiliko da.

Ez dozu pentsaten abade iraultzaille geiegi dabiltzala gure artean?

Dotriñadun geiegi.

Gure aitagaz eta lez. Abade guztiak ziran karlistak. Zetarako?

Filosofi geiegi. Emen ekintza bear da. Erri ardua.

Baiña aurrez erriari erakutsita.

-Ekintza ba dago azia erneten dagola ziur egon.

Azi ona erein bear.

Iraultzakorik ezer aitatuten dautsu aitak?

Tutik bere ez.

Ona da. Zabala

-Atsegin?

Ez daukat aurkako ezer.

Ba dakizu onelako fama ez daukala.

Laga , baketanr Ekarri niri gizon argiak, atze bakoak, naita arerioak izan.

Ertsia deritxazu?

Ertsiago izango zala pentsaten neban.

Itxurak zaindu nai askotan.

Jose ta Karlos batzen ziranean, musean jokutzen eben or-dutxoren bat. Diru ta guzti. Peseta bana, esaten eben. Baiña alka-rri adarra joten ibilten ziran, kontu zarrak esaten. Eta egun baten oitu jakoen karlistei peseta bikoak deitzen eutsela Bilbon, gerra-te baten. Karlos'ek arro gogoratzen ekian orduko kantua:

. Tan parran pan tan,  
Biar Bilbora nua,  
tan parran pan tan  
peseta bikotan.

Eta eskuak igortziz geituten eban: Gaur Bilbora joan barik, etxean eukiko dot peseta biko.

Orrelaxe, kontu eta joku igaroten eben arratsalde azkena. Bata pozik eta bestea zer esanik ez. Alkarren jokabideei ikutu barik, nai ta lengo zarrenak aitatu ta aizetu.

Mutillak emoten eutsen ardura.

Etorriko zala, ez zala\_

Zer ikusteko asko oartzen eben.

Ogetak urte ta martiri\_

Ori zan mingarriena.

Mutil bat artu eben Andoni eta Susane'k asegurantzetako lanetan inarduteko, lengo ogibideari jarraitzearenr Susane'k izenpetuten zitun ango paperak.

Bizitzari zela ala ten egiteko asmotan ebiltzan. Ametsez asi beñik-bein, egunero arduren bat eukiteko be.

Asierak ziran, euren zeregiñean konturatzen asteko lenen-gotako ekiñak:

Gitxien uste ebenean Andoni gaiztotuten asi zan.

Goizetik gabera ta gabetik goizalderako berakada erraz igarri eta konturatzeko eran.

Miñak ez jakozan geitu. Makaldu bai, arindu edo usteldu. Biotza biguntzen igarri bair

Erriko osagilleak gaixotegikoak ikustea obeto zala, esan eutsen, arek eukalako bere gaixoaren agerpen guztia.

Beatus'en bitartez deitu eutsen.

Biak etorri ziran jakinda laster.

Ikusi orduko igarri eutsan osagille arek gauzak alderdi txarrera jo ebela.

Odola pozoitu zala ta biotza galtzen asi.

Egun biko gorabera zala, bere ikuspegian, eta bitarteko mirarien bat egon ezik, agertu eutsan Beatus'eri.

Onek, bere aldetik, Susane'ri lenengotatik esatea komeniko zala. Obe izango zala jakitun ipini.

Eta Beatus eta osagilleak, bien artean, géla albo baten, ixiltu, garbi adierazi eutsen euren ustea.

Susane'ren erantzuna bat batekoa izan zan:

Ta barriro Bilbo'ra eroanda?

Alperrik da.

Ziur?

Ala dirudi.

An aukera geiago eukiko leuke.

Bidean geratzeko arriskua be bai.

Emen, bere borondatea jakiten alegindu zaite.  
Eta azken naigabetan zure laguntza eskiñi, zure adorea sar-  
tur  
Eriotza baketsua eukiko dau, geitu eban bere aldetik osa-  
gilleak. Ziur egon.  
-Jainkoak ala nai ba dau...  
Il aurretik ezaupidea galduko dau ta miñik barik joango  
da, zorotasun baten.  
Ezin naz egon.  
Ez koldartur Zure eskuetan dago orain egitekoa.  
Laga egidazue negar pixkat egitera joa ten.

## **Azken argitasunpean**

Bitartean Beatus urreratu jakon.  
Andoni, txarto zagoz.  
Ba dakit.  
-Gazte zara, baiña odolak pozoitu jatzuz.  
Igarrita nago.  
Zer da orain zuk benetan naiko zendukena?  
-Egia esanda, baketan il. Ez daukat iñor zoritzarreko egite-  
ko eskubiderik.  
-Jainkoagaz sinistuten dozu?  
Sekula ez dausat sinisteari laga.  
-Alboratu pixkat.  
Ez. Jainkoaren bide barriak ezagutu nai bai.  
Bide gogorak.  
Ez. Aren bidea bakezkoa dala ba dakit.  
Ta indarkeria?  
Bitarteko bide okerrak zuzentzeko nai dot indarkeria. Ba-

kearen billa jokatzeko.

Susane maite dozu?

Biotzak ezin erantzun aiña.

-Berak be bai zu.

Ondo dakit.

Zer lagako zeuntsake itxaropengarri.

Orain ezin neikena.

Zer?

Seme bat.

Eta al zeinkenetik?

Biok alkarren zintzo zaindu garean ziurtasuna.

-Eta iraultza kontuan?

Dakian bidetik jarraitzeko.

Bere bidetik?

Kontzientziari bide zuzenetik jokutzen lagata

Eta zarrei?

Nungo zarrei?

Emengoei.

Erriaren bildurrik ez eukiteko.

Trabuko ta guzti?

Ondo dagoz trabukoak ormetan, istori baten oroigarri.

Eta zureei?

-Besteokaz ondo konpontzeko. Ez pentsateko sekula eurak bastertu dodazanik.

Orren kezka daukazu?

Ukatuko ba neu, guzurretan nebilke.

Susane agertu zan.

Ikusi ordurako, Andoni'k.

Negar egin dozu.

Esan dautsue?  
Zer esan?  
-Nire barri emon dautsue?  
Bai.  
-Ez zendun olakorik itxaroten?  
Ez.  
Nigaz damututa zagoz?  
-Zegaitik?  
Ez dakit zer esan.  
Errudun al zara?  
-Nik dakidala ez.  
Etsipena besterik ez dautsut emon.  
Bizitzarako irakatsi ugari niretzat.  
-Senar emaztien poz batik ez.  
Itxaropenean geratu.  
Aizeak eroango daben itxaropenean.  
Ez dakizu.  
Gerorako frutu barri barik.  
-Nire naia izan zan.  
Nire eziña ikusita.  
-Zuk errurik ez zendun zoritxar baten eziña  
Eta gero?  
Gogorapena geratzen da gerorako.  
Ametsetan ez galdu.  
-Amets gozoak egoten dira.  
Libre izan zaitezala nai dot.  
-Gaitz.  
Zure bizia biziteko daukazu.  
Zugaz bizita naiko neban.  
-Jainkoaren borondatean sinisten?



Nik ezin dot sinistu Jainkoak borondate txarrik euki bear dabenik.

Bere eskutuko da ori.

-Bere eskutukoa izan ete da nik zu negarrez lagatea?

Niretzat bere borondatea beti.

-Eta nire borondatea jakin nai?

-Zure edozer ikasbide bat da niretzako.

-Bizirik ez da lotu bear sekulako.

-Ez zaitut ulertzen.

-Bizitza udabarria da.

-Eta negua baita.

-Nigaz bizi dozuna.

Baiña udabarria biziteko eskubidea dozu.

-Ezin.

-Neuk nai dot, nigazko negua igaro ondoren, udabarri alai baten sartu zaitezala.

-Andoni, ezin.

-Neuk agintzen dautsut.

-Maite-miñez.

-Eta bizi labur onen iraultzak eskatuten dautsu.

-Nik ezin erantzun.

-Zeure iraultza egitera beartuta zagoz.

-Ezin. Ez jarrai alperrik.

-Gerokoen mesedean.

-Ezin, Andoni.

-Mundua ez da lengo.

-Ba dakit.

Ez eta gaurko.

Gaur asi.

Zu eriotza ikasten asi zara.

Mesedez, Andoni.

Baiña eriotza baiño len, bizia ezagutu bear da.

-Guretzat frutu debekatua.

Ez dago ardurarik.

Niretzako betirako urratsa.

Zuk, Susane, agurtzen garan unean, bizi barri bat asi gero-koen mesedean.

-Geiegi maite nazu, Andoni.

Zugan nire erria maite dot.

-Gure erria.

-Ori. Eta gure iraultzarik ezin lei amaitu.

Ez da amaituko.

Nire ondakiñak zugandik artu beariko daben azi barri baten ongarri bediz.

Igarri barik, izerditan eta malkotan eukezan arpegiak, alkar-tu zituen. Musu baten baiño luzeroago iraun eben orretara.

Eurak konturatu orduko, Beatus eta osagillea jatetxe batera joanda egozan.

Karlos eta Irene'k jakin eben ze etorkioen.

Gelara sartu zirenean, eta biak era orretan ikusi, ez eben nai izan azkenetako barruko min a eteterik.

Arpegia malkoz eta izerdiz bustita eukan Susane'k.

Zapi bategaz sikatu eutsan bekokia Andoni'ri, eta gero, be-rea legortu.

Eta malkoz bustita eukazan begietatik, Andoni oritzen eioala igarri eban.

Eta otzitzen.

Deika asi zan. Arrenka eta otoika.

Andoni ez etorran ezetara be berera.

Ezaupidea galtzen asi zan.

Kaletako ibillera eta ekitaldietako dearrak naastu eta oguz-ten asi zan berekautan.

Amnistia osoa! Presoak kalera!

Gero ta geiago artegatzen zan Susane. Baiña Andoni'k be-rean jarraitu:

Erria zurekin.

Etzaitetz nekatu. Geldi, egon geldi. Ez estutu.

Zapalckeririk ez!

Izerdia legortzen eutsan Susane'k.

Begiratu egidazu! Ez nazu ezagutzen? Gogoratzen ez?

Baiña aren begiak ingurukoen irudia galduta euken.

Beatus eta osagillea joan ziran jatetxera, euren billa joan zan, itsu-itsu, Karlos.

Susane eta ama Andoni berera zelan ekarri ebiltzan, arpe-gian jo, igortzi, eskuak erabilli eragin eta antzerakoetan.

Igortzi eta musuak emon, Susane'k.

«Lepoan artu ta segi aurrera», Andoni'k.

Irene'k kandela bat biztu eban.

Begietara urreratu be bai kandela argia, indarririk egiten eutsan ikusteko.

Andoni'k, ezelako ardura barik, eta gero ta makalago: As-ka-ta-sun-a!

Osagillea, Karlos sartzen ikusi eta zerbait esan orduko, jana laga, jaiki eta etxeratzen asi zan.

Beatus'ek osagilleari azkena ete?

Zuk gertu zurea.

Parrokira noa olio billa.

Osagillea etxera eldu eta ikusi orduko osagilleak garbi esan eban, arena amaitu zala.

Oraindik biziarren, ez zala iñorentzat bizi. Alaxe joango zala, miñik bako zorabiotan.

Eta otzitzen zanean, ilgo zala.

Beatus'ek parrokoari agertu eutsan zer gertaten zan.

Gora-goraka asi jakon a, parroko serbitsuak bereak zirala-ta.

Eriotzaren aurrean edozein zala abade, erantzun eutsan Beatus'ek. Eta gogor eta zitalki jardetsi: Guk legea zeinena dan erabagiten dogun artean, gizona ilten ba da, nor da errudun!

Biak joan ziran, arin, etxera.

Azken igortza parrokoak berak egin nai izan eban. Besteari laga ez, bere nortasuna érakustearren.

Beatus'ek esan eutsan bera geratuko zala, bear zan artean, azken otoitzak egiteko.

Oraindik be parrokoak ezkondata ete egozan itandu eban. Eta Beatus'ek len esandakoeren gain orrela jarduten ebalá ikus-tean, minduta, betetasunez erantzun: Zin egiten dot nik ezkon-du nituzala, Bilbo'ko gaixotegian, orrelakoxe une bat etorriko zan bildurrez. Eta eurori laga neutsen agiria.

-Eta eleizaz ezkondu?

-Abade lez ez al nazu ezagutzen? Gaixotegiko kapillau lez ez al nazu ezagutzen?

Lagunak izanarren, Karlos'ek ez eutsan jaramonik egin nai parrokoari. Ba ekian olakoetan zelako buruz jokutzen eban.

Konturatu zan parrokoa etxeko asarreagaz.

Gaztien eriotzak zotin eragiten dabela, esan eutsen. Eta nok lagundu ba eukela-ta, beste barik etxetik urten.

Jose eta arreba, norbaitek deituta eldu ziranean, Susane oe ondoan belauniko negar uluka ikusi eben. Alkarrerri berba egi-teko alik ez eben euki.

Ori-ori egoan Andoni, bertan bera amaitzen.

Osagílleak uste baiño ariñago amatau zan. Geiagoko argita-sun agerpen barik

## **Eriotza ta ondorenak**

Beatus'ek berba egin eban iraultza taldeko bere ezagunekaz. Bere pentsaera, gurari eta naiak agertu eutsezan.

Bakezko illeta bat egiteko eskatu eutsen, Andoni berberaren, Susane'ren eta famili bien gurariz.

Orrelako eriotzetan erria bear litzakela azken berba emon bear leukena, erantzun eben batzuk.

Beatus'ek ba eukan nortasun pizkat euren artean. Andoni berberaren naia ori zala, ziur ekiala agertu eutsen.

Olako aukera bat borroka barik igaroten lagatea, iraultzailientzat koldarkeri zala, jardetsiten eben batzuk.

Beatus'ek, ildako baten aurrean egin leikezan iru-lau deadarrek ez ebela ezer lortuko. Iraultza, benetako iraultza, eguneroko bizitzan egin bear zala.

Erabili zituen eztabaida batzuk, baiña azkenean men egin eutsen danak Beatus'en eskabideari.

Erri guztia batu zan illetarako.

Elizperarte danak lagundu eutsen. Baiña gazte batzuk ez ziran eleiz barrura sartu.

Gero, iltegiraiño, barriro danak joan ziran, gorpuaren atzetik, ixiltasun sakonean.

Gazte batzuk igarten ziran, deadar batzuk egin nairik, baiña bakarti geratzen ziran.

Egia esan, gazteak ba ekien, erriko plazan batzeko zirala eta an eukiko eben aukera barruko gurariak eta asarreak agertzeko.

Iltegian uste bako gauza gertatu zan.

Susane'ren gurasoak euren illobi ederra euken. Erritar guztiak pentsatuten eben, an sartuko ebela, Andoni berberaren gurasoak ez eukelako etxeko illobirik.

Baiña il-kutxa iltegira sartzean, gazte batzuk artu eben le-

poan, eta illobi barri batzuk utsik egozan tokira eroan.

Arritu ziran etxeokak, nok agindu ete eban eta zegaitik zan ori. Gazteak erantzun eben, Andoni lakoak erri guztiak ikertu al izateko erako illobi bakar eta eder bat bear ebelar Eta erriak ordainduko ebala arentzat artzen zana.

Susane'k ez eban ezer erantzunr Ixillean jarraitu eutsan kuxtari, gurasoen erdian.

Abadeak azken otoitza egin ebanean, gazteak deika asi ziran: Andoni, gogoan zaitugu! Andoni gogoan zaitugu!

Eleizakoa eta iltegikoa egin ondoren, erriko plazan euki eben bere oroitzako batzarra.

Amaitu baiño len zaindariak agertu ziran, eta batzarra bereala desegiteko agindu, euren aurka inarduen aitzakiz.

Eta arin-arinkak, tiroak, eta nabarmenkeriak egon ziran.

Erriko denda eta tabernak, asarrez, atek itxi zituen.

Biamamonean, iraultzako talde batzuk lantegietako atetan agertu ziran, eta erriko idazkaritzetan, ogetalau orduko oporra eskatzen, asarrez, eskutuko indarkeriren aurka.

Illuntze berbetan Susane'ri kuartelera deitu eutsen.

Aitak lagundu nai izan eutson.

Berak bakarrik joatea naiago izan ebanr

An beretzako karta bat egoala ta emonagaz batera artutzakoa izenpetu eragin eutsen.

Goiko adierazpen bat zan.

Berrogei ta amar milla pesetako isuna ezarri eutsen, erriari indarkerirako dirua emon eutsala-ta. Eta amar egun barru ordaindu ezik, illabeteko kartzela.

Susane, etxera eldu orduko, bere gelako oean etzan zan. Eta an negar eta negar geratu.

Indarkerientzako dirua emon ebala berak?

Gurasoak artega egozan zer gertaten ete jakon. Agertu eutsen, *ezer* eskatu barik, zer zan gertatua.

Aita gertu egoan edonora joateko. Ba eukazan goietan lagunak. Susane'k esan eutsen, bere kontzientzian ezin eikeala diru

ori ordaindu. Eta azaldu eutsen len zer gertatu zan eta zegaitik ordaindu eban.

Ez ekien ezer eta onelako estualdien aurka biziro jarki ziran.

Oraingo onetan zin egin eban Susane'k gurasoen aurrean, ez ebalda ordainduko .

Kartzelara joango naz, geituten eban, eta Andoni'ri eskiñiko dautsadaz ango illabeteko egonaldiak, nire bizi barria gertuten lagundu daidan.

Egunak igaro ziran. Esan lez, ez eban ordaindu. Ez eban nai izan kalean jakiterik be.

Origaitik, andik egunetara kartzelará el oan ebenean, goragoraka asi zan erria. Alderdi guztitakoak ikusi eben zitalkeri bat egoala bitartean.

Batzarrak eta ibillaldiak egin ziran. Zaindarien aurkako orri eta agiriak egunero zabaldu.

Barrero zaurituak egin ziran, jazarraldi batzutan.

Eta abade limosnariak Beatus'eri erriko giroa jakin eragin eutsanean, eta zegaitik zan adierazi, bereala agertu zan a zaindarien kapitanaren aurrera, bidebakokeri a zelan egin zan eta zelan ez zan zuzendu gaiztetsiten.

Amargarren egunean kartzelatik atara eben.

Susane etxean sartu zan, eta ez eban kalera urten nai izan, ez eta etxean iñor artzerik be.

Bere egoera ezagutu eban erriak.

Andik aurrera, errian iñok ez eban ezpaian ipini Susane, Andoni'ren lagun jator izan zanik.

Bere erako iraultza ixillean jardun eta jarraitu eban.

## Aurkibidea

Oarra	5
Urteak aurrera	7
Ezkongei artean	20
Barri txarrak	35
Susanc lanean	47
Errietako gordinkeriak	82
Bizibidea gertuten	100
Atzerapena	108
Une larrietan	134
Odol beroak errian	156
Erriko bakea	169
Miñak min, gaiztotzen	176
Azken argitasunpean	181
Eriotza ta ondorenak	188



